



Patrizia Vitelli
'influencer'-ari
elkarrizketa

Topagunea:
euskaraz bizi
izateko lanean



TEKNOLOGIA IKERTZEKO LABORATEGI AURRERATUENA, ARRASATEN

Digilab izeneko 2.000 metro koadroko gune multiteknologikoa inauguratu du Ikerlanek. Industriara bideratutako azken belaunaldiko azpiegitura espezializatua du eta 1,5 milioi euroko inbertsioa egin dute / 2

Mondragon taldeko eta Ikerlaneko buruak, eta diputatu nagusia, beste batzuen artean, atzoko Digilab-en inaugurazioan azalpenak entzuten. ANDER GILLENEA

Erreka Egunean, 500 lagunetik gora lanean; 'Errekak bizi' ikus-entzunezkoa herririk herri / 7

SINADURAK

	JOKIN LARRAÑAGA / 17
	VALEN MOÑUX URIBESALGO / 8
	MANU EGAÑA TXOPITEA / 34
	RAMON UGALDE / 11
	ANDER ETXEBERRIA / 48

ZURE LENTEEN EROSKETAREKIN

MONTURA DOAN

+

2. betaurrekoa

OPARI

Kontultatu optikan konpainsaren enaugarriak.

Otalora Lizentziaduna, 18
Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16
Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

www.multiopticas.com

MULTI OPTICAS
kalitatea - konfiantza - diseinua

E.P.S. 9/1/20

Digilab: abangoardiako teknologia ikertzea helburu duen laborategia

Ikerlan ikerketa zentroak Digilab laborategia inauguratu berri du, eta asmoetako bat da instalazioekin makinaren eta prozesuen funtzionamendua "optimizatzea"



Politikariek eta enpresariek bisita gidatua egin zuten atzo Digilaben. ANDER GILLENEA

Amaia Ramirez de Okariz

Kortabarria ARRASATE

Industria adimendua erdiesteko egin beharreko transferentzia teknologikoan aitzindari izan nahi du Ikerlan ikerketa zentroak, eta, horretarako, Digilab laborategi digital multiteknologikoaren ateak ireki berri ditu Arrasaten, Loramendi kalean. Azaldu dutenez, era horretako lehen laborategia da Espainian, eta helburu dute abangoardiako hainbat teknologia ikertzea, azken belaunaldiko azpiegiturak erabilia.

Hain zuzen, Eusko Jaurlaritzako Azpitek programaren finantzazioari esker sortu du Ikerlanek laborategia, 2.000 metro karratuko azalera du, eta 1,5 milioi euroko inbertsioa. Atzo inauguratu zuten, eta bisita gidatua egin zuten instalazioak ezagutzeko. Oraingoz, bi gela nagusi ditu, ordenagailuekin, eta asmoa da alboko espazio hutsean laborategiren bat edo beste sortzea.

Hala, instalazio horiek ezagutzen egon ziren, besteak beste, Arantxa Tapia Eusko Jaurlari-

tzako Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen sailburua, Markel Olano Gipuzkoako diputatu nagusia, Iñigo Ucin Mondragon Korporazioko lehendakaria, Maria Ubarretxenea Arrasateko alkatea eta Ion Etxeberría Ikerlan zentroko zuzendari nagusia.

Izan ere, zenbaitentzako, behar bada, urrun gelditu daitezkeen kontzeptuetako batzuk dira *adimen artifiziala*, *zibersegurtasuna*, *konputazio kuantikoa* edota *robotika*, baina baliteke luzerako ez izatea, eta, beraz, lehen gerturatze bat egin behar izatea,

eremu horiek guztiak lantzen dihardutelako, beste zenbaiten artean, laborategi berrian.

Proiektuak ezagutzen

Bada, gerturatze horretan, proiektu horietako batzuk ezagutzeko aukera izan zuten politikariek eta zenbait enpresetako ardura-dunek atzo, Ikerlanek uste baitu teknologia digitalen "ia mugarik gabeko aukerak" eskaintzen dizkietela aplikazioei, eta horrek bide eman dezakeela makinaren eta prozesuen funtzionamendua "optimizatze"ko.

"INSTALAZIOEK IKERLANEK DITUEN GAITASUNAK INDARTUKO DITUZTE"

ION ETXEBERRIA, IKERLANEKO ZUZENDARIA

"IKERLANEN HISTORIAKO BESTE JAUZI TEKNOLOGIKO BAT DA HAU"

IÑIGO UCIN, MONDRAGONEKO LEHENDAKARIA

*Gure Etorkizuna,
Orain eraikitzen da.*

Ekonomia modernizatuz.

Mundua aldatzen ari da, eta ekonomiaren eraldaketa azkartzen. Hori ikusita, Gipuzkoako Foru Aldundia gure lurraldearen etorkizun ekonomikoa lantzen ari da duela lau urtetik, Etorkizuna Eraikiz egitasmoaren bidez.

Sartu etorkizunaeraikiz.eus webgunean eta ikusi gipuzkoarrok zer egiten ari garen gure etorkizunaren alde.





Bisita gidatuan, garatzen dabiltzan sistema batzuk ezagutu zituzten. ANDER GILLENEA

"GURE EKONOMIAREN LEHIAKORTASUNA ZENTRO HAUEN LANEAN DATZA"

ARANTXA TAPIA, EKONOMIA SAILBURUA

"TRANTSIZIO TEKNOLOGIKO DIGITALAK AUKERAK ERE BADAkartza"

MARKEL OLANO, DIPUTATU NAGUSIA

Horren adibide da, esate baterako, bisita gidatuan erakutsi zuten lehen proiektua. Makinen nortasun digitala garatzen baitabilta, beste gailu batzuekin komunikatzeko orduan identifikatu ahal izateko, gizaki batek nortasun agiriarekin egin dezakeen eran. Baina, horrez gain, badira beste proposamen batzuk ere. Besteak beste, modu autonomoan eta seguruan, makinistatik gabe, ibiltzeko gai diren trenak garatzen dabiltza CAF enpresarekin, edota nork bere burua diagnostikatzeko eta aka-

tsak aurreikusteko sistema adimenduak.

Ekitaldian, hitzartzeak

Bisita gidatua amaitzean, hitzartzeen unea izan zen. Ion Etxeberria Ikerlaneko zuzendariak hartu zuen hitza, lehendabizi. Haren arabera, teknologia berriak "indartsu" daude, eta "errotik" ari dira aldatzen gizakien bizitzak. Uste du trantsizioa "azkartzen" ari dela, eta, beraz, horren harira, Digilabek "ezagutza berriak erakarri eta sortuko" dituela. "Instalazio horiek Ikerlanek etorkizuneko teknologia digitalen arloan dituen gaitasunak indartuko dituzte".

Iñigo Ucin Mondragon Korporazioko lehendakariak ere hitz egin zuen: "Ikerlanen historiako beste jauzi teknologiko bat da hau, etorkizuneko I+Gko espezializazioaren aldeko apustu estrategikoa". Nabarmendu zenez, digitalizazioa "lurrera ekartzeko" unea da, horrek ekar litzakeen soluzioek "pertsoneko egoerak hobetzen" lagun dezaketelako, besteak beste.

Are gehiago, Tapiak ere izan zuen zer esana. Ikerlan zorion-

du zuen laborategiarekin eginko apustu berriarengatik, eta gaineratu zuen "Euskadik bikaintasuna eta berrikuntza" behar duela, eta hori horrelako proiektuen bitartez erdiestea posible izan daitekeela: "Erakundeok uste dugu gure ekonomikoaren lehiakortasuna zentro teknologikoen egiten duten lanean datzala, hein handi batean".

Azkenik, Gipuzkoako diputatu nagusiak hartu zuen lekukoa. "Trantsizio teknologiko digitalak desafio handiak ekarri dizkio lurraldeko industriari, baina baita aukera eta leiho berriak ere". Haren ustez, erronka horiei guztiei aurre egiteko, ahalmen "garrantzitsua" du Gipuzkoak, "zientzia eta berrikuntza sare indartsu bati" esker. "Aitzindari izango dira Digilabek instalazioak".

Elkarrizketak, ezagutzarako

Inaugurazioa amaitzeko, erronka digitalei buruzko elkarrizketak egin zituzten Telefonica Tech, Nestle, Aldakin, Orona, Ingeteam eta Thales enpresetako zuzendariak eta Ikerlaneko ikertzaileak.

Internazionalista Eguna ospatuko dute bihar Arrasaten

Euskal Herriaren askapen prozesuan "giltzarri guztiz beharrezkoa" da internazionalismoa, Askapenaren arabera, eta, "zer esanik ez, egiturazko krisi kapitalista honetan". Bada, hori salatzeko eta internazionalismoa aldarrikatzeko, egun osoko egitaraua prestatu dute biharko. Bazkaria, bertso saioa eta kontzertuak egingo dituzte.

Eolikoez jarduteko batzarra egin nahi dute Aramaion

Itsaraz parke eolikoaren proiektua dela-eta, adierazpen bat egin du Aramaioko Udal Gobernuak, eta, azaldu duenez, batzar informatibo bat lotuko dute Statkraft enpresarekin udazkenean, enpresak bere asmoen berri eman dezan. Uste baitu horrelako proiektuek informazio kontrastatua eta kolektiboki hausnartua behar dutela.

BANAKETA BERRIAK **ESTRA ASKOREKIN**

Terrazadun 2 logelako etxebizitzak **140.000 €-tik aurrera** (BEZ gabe)



TERRAZA
PRIBATUAGOAK

SERIETIK DATOR LURZORU
ERRADIATZAILEA
ETXEBIZITZA BERRIETAN

BERGARA · www.lorentxoko.com

**Berriz
ere**

lorentxoko

P25 · bizigune berria

Gure Lorentxoko maiteak berrasmatzen jarraitzen du eta Bergarako higiezin merkatuko etxebizitzarik ikusgarrienak eskaintzen dizkizu.

Oraingoan, bereziki pertsonalizatuak, maiteminduko zaituzten xehetasun guztiekin eta, nola ez, GERen bermearekin.

Zatoz Lorentxokora oraindik eskuragarri dauden etxebizitzak berriak ezagutzera.

ESKAITZA URTEA AMAITU ARTE: PREZIOAN BARNE OPARI TRASTELEKUA

GE grupo eibar
inmobiliario
www.grupoeibar.com

GRUPO EIBAR-EN BULEGOA: **943 31 66 11**
Email, 1 · 20570 BERGARA. **650 44 21 59**

E: comercial@grupoeibar.com



Auzokoren aurkezpena Oñatin, eguaztenean. MIREN ARREGI

Auzokoren filosofia hedatzeko, hitzaldiak

Orain arte euskaratik urrun bizi izandakoei, hizkuntza ardatz, harrera egiteak duen garrantzia ikusarazteko eta bertako jatorriko ahalik eta jende gehien Auzoko egitasmora animatzeko, hitzaldi zikloa jarri du martxan Euskaltzaleen Topaguneak

Julen Iriondo M. de Zuazo ARRASATE "Askotariko herritarren arteko bizikidetzak hizkuntzatik bultzatzeko" Euskaltzaleen Topagune-ko aniztasun sailean martxan jarri zen lehen egitasmoa da Auzoko. Euskal Herriko herri eta hirietan "harrera linguistiko ez-formala egiten laguntzeko programa" da, eta 14 urteko ibilbidea beteko du aurtengo ikasturtean.

2022-2023 ikasturtean zortzi tokitan izango da martxan Auzoko: Debagoieneko Eskoriatzan, Aretxabaletan, Arrasaten eta Oñatin -iaz ere lau herrietan egon zen bailaran-, eta baita Ibarra, Sorraluzen, Gasteizen eta Donostian ere.

Topaguneko Aniztasun saileko arduradun Onintza Olaizolak emandako datuen arabera, pare bat talde eta 30 pertsona inguru aritu ohi dira Auzokon herri bakoitzean: "Auzokide kolektiboa nahikoa aldakorra da, egoera ezegonkorrean egon ohi da, eta joan-etorri handia egoten da".

Dena dela, euskaratik urrun bizi izandakoen taldea izan ohi da kopuruz handiena Auzokon; bostetik lau, Olaizolaren esanetan, eta bostetik bakarra, berriz, euskararekin bizi dena. Euskaltzaleen Topagunearen nahia litzateke bigarren multzo horretako pertsonen kopurua handitzea ekimenean. "Gure bizilagunak euskarak irekitzen dituen

aukeretara erakarri nahi badiugu, ezinbestekoa da aukera horiek zeintzuk diren ezagutzeko modua eskaintzea. Aldi berean, euskararen biziberritzeak aurrera egingo badu, gure herrietan dauden gainontzeko hizkuntzei beren aitortza eta lekua eman behar diegu, eta, horretarako, elkar ezagutu behar dugu", diote. "Horregatik guz-

tiagatik, euskal hiztunok formatu eta kontzientziatu egin behar dugu gure bizilagunei harrera euskaratik eskaintzeko dugun arduraz". Eta Onintza Olaizolak gehitzen du, egon daitekeen ustearen kontra, Auzoko ez dela harengandik urrun daudenei euskara irakasteko ekimena: "Harrera programa da, euskaratik urrun egondakoak euskarara hurbiltzeko, kulturara hurbiltzeko, gure artean txertatzen joan daitezen, baina baita estereotipoak apurtzeko eta kultura aniztasunerako ere". Izan ere, beste hizkuntza eta kultura batzuetatik etorritako herritarrek hizkuntza eta kultur aniztasunerako ekarpena egiten dute ekimenean; truke programa ere bai baita Auzoko. Aldian behin elkartu eta askotariko ekintzak egiten dituzte.

Hainbat gai hitzaldietan

Auzokoren filosofia ezagutarazi eta hedatzeko, *Zubi bat euskaratik* hitzaldi zikloa antolatu du Topaguneak egitasmoa martxan den zortzi herrietarako. "Ahalik eta euskal hiztun gehien nahi dugu elkartzea hitzaldi hauen bueltan; aukera bikaina da gai honen inguruan ahalduntzen has gaituzten", diote Topagunetik.

Lehen hitzaldia Eskoriatzan izan zen eguaztenean, eta aste-betera izango da Debagoieneko bigarrena, Aretxabaletan. Euskara, immigrazioa eta eskola gurutzatzen direnetan gertatzen denaz egingo du gogoeta Huheziko ikerlari Amelia Barquinek: "Euskara biziberritzeko prozesua martxan zegoela, bere gorabeherekin, faktore berri batzuk sortu dira, egoeraren konplexutasunean kualitatiboki eragin dutenak, haien artean, estatuz kanpotik etorritako immigrazioa. Zein dira ondorioak, eta zein dira galdera, erronka eta aukera berriak?".

Gipuzkoako hizkuntza-aniztasuna eta euskara; erronka berriak izango ditu, berriz, hizpide Belen Uranga hizkuntzalariak Oñatin, kontuan izanda lurraldeko biztanleen artean, euskara eta gaztelaniaz gain, 120 hizkuntza baino gehiago hitz egiten direla. Azkenik, *Aniztasunaren kudeaketa demokratikoa: euskararen kudeaketa Nafarroan eredu gisa* izango da Eusko Ikaskuntzako proiektu arduradun Amaia Nausiak Arrasaten egingo duen hitzaldiaren gaia.

Udaletarako diru gehiago iritsiko da Foru Funtsetik

Aurreikusitakoa baino %3 gehiago 2022an, eta datorren urtean, 800 euro bizilagun bakoitzeko

J.I. ARRASATE

Gipuzkoako udalen finantzaketarako iturri nagusia den Foru Funtzak 587 milioi euroko zuzkidura izango du 2022. urtean, aurreikusitakoa baino 18,4 milioi euro handiagoa. 2023ko aurreikuspena, berriz, 609 milioi eurokoa da.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantzetako diputatu Jokin Peronak esan du udalek krisiari aurre egiteko baliabide gehiago izango dituztela horren ondorioz: "Bi kasuetan, inoizko Foru Funtzik handienak dira. Datorren urtean, gainera, lehen aldiz gaindituko da 600 milioi euroko langa".

Debagoienean, Aldundiak biztanleko 800 euro inguru jarriko ditu 2023ra begira. Datozen hilabeteetako gastuei "lasaiago" aurre egingo dietela adierazi dute Oñatiko eta Aretxabaletako alkateek. "Udal gehienontzat diru-sarrerak handiena hau da", zioen Unai Elkorok, eta "ezinbestekoa" dutela gaineratu zuen. Izan ere, gutxi asko, udalen aurrekontuaren erdia iritsi ohi da Foru Funtsetik.

Gipuzkoako Udalen Finantzetarako Foru Funtzaren aurrekontua

Herria	2023	2022
Arrasate	17.910.912	16.851.604
Bergara	11.962.243	11.170.156
Oñati	9.394.191	8.796.428
Aretxabaleta	5.832.628	5.419.516
Eskoriatza	3.400.848	3.143.136
Antzuola	1.700.818	1.597.372
Elgeta	926.523	865.204
Gatzaga	247.700	236.105

ITURRIA: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA.

'Zubi bat euskaratik' hitzaldi zikloa

- **Urriak 19, Eskoriatza** *Migratzaileak herritartzeko euskara behar dugu?* Julen Zabalo (18:30, kultur etxea).
- **Urriak 26, Aretxabaleta** *Euskara, immigrazioa eta eskola gurutzatzen direnean. Zenbait gogoeta.* Amelia Barquin (17:30, Zاراia aretoa).
- **Azaroak 4, Oñati** *Gipuzkoako hizkuntza-aniztasuna eta euskara; erronka berriak.* Belen Uranga (18:00, kultur etxea).
- **Azaroak 10, Arrasate** *Aniztasunaren kudeaketa demokratikoa: euskararen kudeaketa Nafarroan eredu gisa.* Amaia Nausia (18:30, Kulturte-Jokin Zaitegi aretoa).

"Gure nahia da elkartearen aniztasunean aberastea"

ROSA URRETA GOIENAGUSI ELKARTEKO PRESIDENTEA

Indartsu hasi dute ikasturte berria Goienagusi elkartearen, eta nobedade handiekin. Gainera, eguaztenean egingo dute elkartearen X. urteurrenko ekitaldia, Kulturaten

Larraitz Zeberio Lekuona ARRASATE Zuzendaritza berri eta handitu egin dute, esaterako. Rosa Urreta da presidente berria. **Jende gehiago zaudete orain zuzendaritzan, eta lan batzordeak ere gehiago dira.**

Zuzendaritzan sei kideetik zortzira pasa gara eta lau batzorde berri sortu ditugu. Ikuspegi berriak gehitzea aberasgarria da, eta elkartearen zabaldu eta aniztasunean urratsak egin nahi ditugu. Maila desberdinetan, baina denok dugu zer eskaini. **215 bazkide ditu Goienagusik, eta Oñatira zabaltzeko ekintzekin hasi zarete aurten. Nola izan da prozesu hori?**



Rosa Urreta, Goienagusi elkartearen presidentea. L.Z.L.

Elkartearen beste ezaugarri bat da bailara ikuspegia. Herri guztietako bazkideak ditugu; tartean, oñatiarrak, baina gutxi. Eduki genuen aukera Oñatiko Udalarekin hitzarmen bat sinatzeko, eta, aurrerantzean, eguaztenean hamabostean behin egingo dugu hitzaldi bat Oñatin. Horretaz gain, tailerrak eta irteerak ere bai. Proba moduan hasi gara ikasturte honetan, eta lehenengo emaitzekin oso pozik gaude. Aurreko barikuan, Angel Chamorroren hitzaldia izan genuen Santa Ana aretoan, eta 300 bat lagun elkartu ginen.

Webgune berria duzue bazkideendako Intranetarekin, Youtube eta streaming plataformak... Baliabide teknologikoetan ere ez duzue atzean gelditu nahi.

Goienagusi.eus atariak harrera oso ona izan du. Egia esan, hiruhileko programazio osoa dago bertan, eta modu oso argian aurkeztuta. Nahi dugu jendeak egiten duguna ikustea eta elkartera gerturatzea. Hain zuzen ere, sortu berriak diren batzordeen artean dago komunikazioarena. Ezinbestekotzat jotzen dugu informazioa ematea.

X. urteurrenko ekitaldia urriaren 26an, Kulturaten, bi urteko atzerapenarekin.

Pandemiagatik gutxienez bi aldiz atzeratu behar izan dugu, baina, azkenean, heldu da, eta gure asmoa da ordubete inguruko ekitaldia egitea. Musikatua izango da, eta asmoa da urteotan egindako ibilbidearen errepaso egitea, argazkiekin eta abar. Elkartearen presidentea izandako guztiak bertan izango dira. Gero, mokadutxo egingo dugu Mondragon hotelean.

Asko aldatu da elkartearen urteotan? Ibilbidekoek diote 60 bat bazkiderekin sortu zela, eta gaur egun 215 gara. Denen ahaleginaren ondorioa izan da. Hastea beti da zaila, baina gero, jarraipena eman behar zaio, eta hor lan handia egin duten zazpi zuzendaritza egon dira.

Ikasturteko lehen hiru hilabeterako, hamazazpi hitzaldi eta makina bat tailer, ikastaro eta irteera dituzue iragarrita.

Bai. Guztiak daude jasota *Goienagusi.eus* atarian. Hor joango gara gure elkartearen ekintzen berri ematen. Bazkide egiteko aukera ere bertan dago.



ekiola

Leintz Bailarako
Ekiola Kooperatiba

Eguzkia
berdea da

Eman izena Leintz Bailarako Ekiolan

Gure bulegoetan edo online

www.ekiola.eus/leintz-bailara

**Zure energia, sortu, kontsumitu
eta kudeatzeko aukera**

**Eguzki energia kontsumitu ● Kooperatibako
bazkide izan ● Erosoa, obrarik egin gabe**

ARRASATE

BAZEn, Arano eta Garcia maisu-maistren kalea 8
astearte, ostegun ostiraletan 08:30-19:00

ARETXABALETA

Murrukioko egoitzan, Durana kalea 13
asteazkenetan 08:00-20:00

ESKORIATZA

Udaletxean, Fernando Eskoriatza plaza, 1
astelehenetan 08:00-20:00



[www.ekiola.eus/
leintz-bailara](http://www.ekiola.eus/leintz-bailara)

Bularreko minbizia ikusarazten dihardute

Bularreko Minbiziaren Nazioarteko Egunaren harira, mahai informatibo bat jarriko du Katxalin elkarteak bihar Bergaran. Hilaren 30ean egingo den martxa solidarioan izena emateko aukera egongo da, eta lortutako dirua Biondonostiara bideratuko da

Amaia Ramirez de Okariz

Kortabarria DEBAGOIENA

Bularreko Minbiziaren Nazioarteko Eguna izan zen eguaztenean, eta, eritasuna ikusarazten dihardu Katxalin elkarteak. Lazo arrosa daraman kartela zintzilikatu dute asteon Bergarako eta Antzuolako udaletan, eta elkarteak erakusleihoak, bal-koiak eta terrazak arrosez apaintzeko dei egin du.

Hain justu, Gipuzkoako bularreko eta ginekologiako minbiziak kaltetutako emakumeen elkarte da Katxalin. Donostian du egoitza, eta, egun, zazpiehun bazkide baino gehiago ditu. 2014an zabaldu zuen egoitza Bergaran, eta Maite Valle da koordinatzailea.

Bihar, informazio mahaia

Hala, elkarteak egiten duen lanaren berri emateko eta aurreantzean egingo dituzten ekintzak azaltzeko, mahai informatiboa jarriko dute bihar Bergarako Irala kalean.

Elkarteko kideetako bat da Gurutze Corrales, eta, azaldu duenez, kamisetak izango dituzte, batik bat, salgai. "Martxa bat egingo dugu hilaren 30ean, eta horretarako dira. Ateratzen dugun dirua, berriz, Biondonostiara bideratuko da". Haren hitze-



Lazo arrosa jarri zuten domekan Bergarako udaletxeko balkoian. KATXALIN ELKARTEA

tan, urtero bidaltzen dute zenbateko bat bertara, adibidez, bularreko minbiziaren alorrean ikerketa kliniko batzuk aurrera eraman ahal izateko.

Are, biserak eta kantinplorak ere salduko dituzte, eta, loteria. Hiru euroren truke eskuratu ahalko da, eta irabazi hauek ere ikerketa zentro berberera bideratuko dituzte. Dena den, abenduaren 22ra arte ez da jakingo nor den irabazlea.

Horrez gain, Corralesek nabarmendu du Goizper Taldeak dirulaguntza bat eman diela hori

guztia aurrera eraman ahal izateko, eta kantitate "handi bat" ikerketara bideratuko dutela.

Martxa, urriaren 30ean

Urriaren 30ean, berriz, martxa solidarioa egingo da Donostian. 11:00etan hasiko da Alderdi Ederren, eta, guztira, bost kilometroko ibilbidea egingo dute, "marea arrosa" sortzeko.

Beraz, parte hartu nahi duenak izena emateko aukera izango du informazio puntuetan, eta baita www.katxalin.org webgunean ere.



Bergaran ospatu zuten Atzegi Eguna 2018an. Irudian, herri bazkaria. GOIENA

Aniztasun funtzionala dutenak era autonomoan bizi daitezten

Sentsibilizazio kanpaina aurkeztuko du Atzegi elkarteak Arrasaten martitzenean, bizipenetatik abiatuta

A.R.K. DEBAGOIENA

Aniztasun funtzionala duten pertsonak ere moduan independentean bizi daitezkeela aldarrikatzea du asmo aurtengo sentsibilizazio kanpainan Atzegi elkarteak, *Nire erara bizitzeko erronka* lelopean. Aurkezpen ofiziala egin ostean, bailaraz bailara dabilta kanpaina aurkezten, eta martitzenean Arrasaten izango da, udaletxeko areto nagusian, 19:00etan.

Debagoieneko taldeko kideetako bat da Agurtzane Barrutia, eta jakinarazi du, aurkezpenaren egunean, balitekeela bailarako herritarren baten bizipenak entzuteko aukera egotea, bere laguntzailearekin batera. "Izan ere, beharrezkoak diren babes horiek emanda eta aurretik lan-keta bat eginda, posible da bizitza independentea egitea, beste guztiok bezala, era autonomo batean".

Elkartearen helburu nagusia pertsona guztiak "aurrez aurre" jartzea baita, aniztasun funtzionala dutenak ere esanguratsu bilakatzea gizartean, euren presentzia sentiaraztea.

Boluntarioen beharra

Baina, horretarako, Barrutiak funtsezkotzat jo du lagundu beharra, "gauza txikienetan" bada ere. "Boluntarioena da, adibidez, une honetan Atzegein dugun gai inportanteenetako bat. Badago jende profesionala lanean, baina ekintzetarako boluntarioak behar dira". Beraz, zehaztu du elkarteak "gustura" egingo diola ongietorria parte hartu nahi duenari.

Hain justu, besteak beste, Atzegi Eguna ospatu ohi dute urtero bailarako herriren batean, azken urteetan etena egon bada ere COVID-19ak sortutako izurritearengatik.

GOIENA TELEBISTAK
8.000 IKUSLE EGUNERO.
ESKERRIK ASKO!

Iturria: CIES, 2022 (Gipuzkoari dagozkion datuak)

goiena
Zu hemen zaude.

Deba ibaiaren gaineko lana, bailarako aretoetan

Asteburuko bailarako Erreka Egunaren aitzakian Goienak sortutako ikus-entzunezkoa Debagoieneko aretoetan ikusteko aukera egongo da datozen asteetan. Ibaiarekin lotutako hainbat gai jorratzen ditu, eta erreka garbiketa eguneko irudiak ere baditu

Julen Iriondo M. de Zuazo ARRASATE 500 bat lagun zeuden izena emanda, eta, azkenean, gehiago elkartu ziren aurreko asteburuan Debagoieneko herrietan egindako erreka garbiketetan. Deba ibai nagusiarekin batera, ibaia-darrak garbitzen ere jardun zuten, tokiaren arabera. Garbiketeta lanetan hasi eta, oraindik orain, zabor ugari ateratzen bada ere, sentsibilizazioan egindako urratsak nabarmendu dituzte Bergarako Erreka Batzordeko kide Arianne Kareagak eta Txatxilipurdi elkarteko Iker Agirrek, astean Goiena telebistako *Hemen Debagoiena* saioan egindako elkarrizketan. Ekime-

naren oso balorazio baikorra egin dute.

"Ekimen honen atzean jende asko dago, eta ezberdinen arteko horrelako elkarlanak garrantzitsuak dira. Eskerrak eman nahi dizkiegu izena eman zuten guztiei, eta baita era batera edo bestera lagundu zuten erakundeei ere. Aukerak zabaldu dira bide honetan jarraitzeko", zioten.

Ikus-entzunezkoa

Goiena Komunikazio Taldeak ikus-entzunezko berezia ekoitzi du Erreka Egunaren harira, hainbat aditu eta aritu elkarrizketatuta. Leintz Gatzagako sorlekutik abiatu eta Deban itsa-

soratu artean, errekek izandako erabileraz, artifizialtzeaz eta ondorioez, industriaren eraginaz, floraz eta faunaz, aisiarako aukerez eta berreskuratzeko dihardu, besteak beste, *Errekak bizi* ikus-entzunezkoak, eta zapatuko garbiketaren irudiak ere jasotzen ditu. Hizlarien artean dira, esate baterako, Martin Arriolabengoa geologoa, Jose Antonio Azpiazu historialaria, Naiara Corcuera Ingurumen Zientzietan lizentziaduna, Unai Etxeberria arrantzalea eta Beti-Bustiko kideak. Ikus-entzunezkoa herriz herri ikusteko aukera izango da, atzo, eguena, Eskoriatzan hasita.



Zapatuan erreka garbitzen, Aretxabaletan. GOIENA

'Errekak bizi' lana, herriz herri

Asteotan, Debagoieneko aretoetan ikusteko aukera izango da Goienak ekoizitako ikus-entzunezkoa.

- **Arrasate:** Urriaren 24an, 18:30ean, Kultureteko areto nagusian.
- **Bergara:** Urriaren 24an, 18:30ean, Irizar jauregiko Euskaldunberri aretoan.
- **Antzuola:** Urriaren 26an, 18:30ean, Olanan etxean.
- **Leintz Gatzaga:** Urriaren 26an, 18:30ean, Gatz Museoan.
- **Oñati:** Urriaren 27an, 18:00etan, kultura etxean.
- **Elgeta:** Urriaren 27an, 18:30ean, Espaloia antzokian.
- **Aretxabaleta:** Azaroaren 3an, 18:30ean, Arkupe kultura etxeko Zاراia aretoan.

DEBAGOIENENKO

PROFESIONAL LIBERALAK

<p>ABOKATUAK</p> <p>BERNARDINO MAIZTEGI BERGARA / Irizar 5 Tel.: 943 76 10 81</p> <p>BEGOÑA LASAGABASTER ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A Tel.: 943 79 98 86 / Faxe: 943 77 01 08 blasaga@conet.es</p> <p>RAFAEL ARANBURU BERGARA / Irizar 5 Tel.: 943 76 10 81</p> <p>AHOLKULARITZAK</p> <p>ANDRA MARI AHOLKULARITZA ARETXABALETA / Araba ibilbidea 20, behea Tel./Faxe: 943 79 29 26 andrama@arrakis.es</p> <p>ALBERDI ASESOREAK BERGARA / Matxiategi 36 Tel.: 943 76 90 83</p>	<p>ARKITEKTOAK</p> <p>BIARK ARKITEKTOAK ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea Tel.: 943 79 80 33 www.biark.net</p> <p>LARRAITZ VALENCIA AZKARGORTA Arkitektoa eta tradesperson formazioa Tel.: 636 89 92 11 larraitz.arkiostudioa@gmail.com</p> <p>ETXE ADMINISTRATIOAK</p> <p>URIBESALGO ADMINISTRATIOAK ARRASATE / Pablo Uranga 3, behea Tel.: 943 79 51 25 uribesalgo@uribesalgo.es</p>	
--	---	--

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 25 05 05** zenbakira.



ZABALIK

VALEN MOÑUX URIBESALGO

Instiren 50 urteak Aroztegi aretoan

Nire nerabegaroko oroitzapen onenak eta bizienak erabat lotuta daude Bergarako Institutuarekin. Frankismoaren amaierako haurtzaro osoa sexuen arabera bereizitako geletan igaro ondoren, Institutuko klase mistoen *paradisua* ezagutu nuen, eta, aldi berean, klase mistoen... *infernua* ere ezagutu nuen. Nahiko kalifikazio oneko ikaslea izan nintzen, baina bizitzako garai hartan hain garrantzitsuak ziren maitasun kontuetan *kalabaza* bilduma zabala lortu nuen –gai akademikoak baino askoz garrantzitsuagoak, jakina–.

Garai hartan *Instituto Nacional de Enseñanza Media de Vergara* –Ipintza izena ondoan zegoen baserriak zuen, besterik ez– izenez ezagutzen zenaren inaugurazioaren 50. urteurrena bete da, eta erakusketa bat ireki dute Aroztegi aretoan. Bertan, *Santo Tomas de Akino*-ren ospakizunak gogoratzean gozatu dut, batez ere. Ikuskizun baten, nire bizitzako lehen aldiko

BERTAN, 'SANTO TOMAS DE AKINO'-REN OSPAKIZUNAK GOGORATZEAN GOZATU DUT

aurkezpenaren argazkia agertzen da... Maite Aristegi ospetsuarekin batera! Ezkontza dotore-dotore baten parodia ere ageri da, baina... ai! Gaur egun klasikoa den *Grease* musikal famatuaren egindako parodia ikusgarriaren argazkiren bat falta da.

Kasualitate ikaragarria da Toti Martinez de Lezearen *Bretxa* musikal berria Victoria Eugenia antzokian antzeztu aurretik 150 lagunek aurrestireinaldi bat egingo dugula antzerki-ikusizun ahaztezinak –eta ezin hobeak– egiten genituen gimnasio berean. Poz handia izango da niretzat, eta, zalantzarik gabe, zoritxar txiki bat antzerki musikaleko konpainiako nire kideentzat, *abuelo Cebolleta*-ren –orduko *tebeo*-etako pertsonaia ospetsua– pasadizo batzuk entzutera behartuta baitaude, ezinbestean.

Erakusketa urriaren 23ra arte egongo da zabalik, eta, bide batez, zenbait irakurleri gogorarazi nahi diet urte gutxi barru *Bachiller Unificado Polivalente (BUP)* delakoa inauguratu zuen belaunaldiaren *Insti* maitean sartzeko urrezko ezteiak ospatu behar ditugula.

Zorionak erakusketa egileei eta eskerririk asko zuri-beltzeko apliazio handiena on Imanol apaiza-argazkilariaren irudia aukeratzearen.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



GUTUNAK

Eskerririk asko!

ARIANNE KAREAGA IRAZABALBEITIA
DEBAGOIENEN ERREKA
BATZORDEAREN IZENEAN
DEBAGOIENA

Deba ibaiak Leintz Gatzagan du iturburu, baita gure kaleetan ere.

Pasa den zapatuan herriz herri eginiko auzolanak taupadak arindu dizkie gure errekei.

Debagoieneko batzordetik eskerrak eman nahi dizkiogu aletxo bere modura jarri duen parte hartzaile zein antolaketan lagundu duen eragile orori.

Bailaran errekekiko eta inguruneari loturiko debagoiendarrak badaudela

azaleratzeko indar erakustaldia izan da, gure herrietatik pasatzen diren errekekin harremana estutzeko aukera paregabea baliatuz.

Ezagutzen dena soilik zaindu eta maitatzen delako, aurrerantzean gehiago zaindu eta maiteko dugulakoan gaude.

Bestalde, erreka garbiketa burutzean herri bakoitzean puntu beltzak identifikatu ditugu –zenbait establezimendu ingurutan, erabilera handiko guneetan...–, eta gune horietan eragiteko beharra ere azpimarratu nahi dugu; izan ere, soilik guztiok zaintzen dugunean egongo

dira osasuntsu gure errekek.

Auzolana gure arbasoek urteetan zehar eginiko praktika da eta XXI. mendean ere zentzua du: komunitatea egiteko, harremanak sendotzeko, gure ingurua zaintzeko eta abar.

Eta aurrerantzean ere auzolanei eta ekintza bateratuei helduko diegu.

Sortutako emaria eten ez dadin, datorren urterako ere hitzordua luzatzen dizuegu.

Urriaren 14an berriz ere Debagoiengan Errekak Bizi Auzolanean ekimena antolatzeke konpromisoa hartzen dugu.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna

Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak

Xabier Urzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano,
Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.

Publizitatea

Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05

Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07

berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

D2030: ELKARRIZKETA

Miren Arregi OÑATI

Debagoiena 2030 ekimenak bultzatuta, Ikastetxe-klik ekimena martxan da Debagoieneko hamaika ikastetxetan. Ikastetxe-klik energia aurrezpena eta eraginkortasuna sustatzeko proiektua da. Ikastetxeek ekoON enpresaren bidelaguntza izango dute prozesuak irauango duen denboran. Monika Monteagudok, ekoON-eko kideak, eman ditu azalpenak.

Zer da ekoON?

Eredu energetiko berri baterantz trantsizioa bultzatzea helburu duen erakundea da. Hain zuzen ere, kudeaketa, aurrezpena, eraginkortasun energetikoa eta berriztagarrien ezarpenerako proiektuak garatzea da haren ardura, arlo publikoan zein pribatuan. Sentsibilizazio lanketak ere egiten ditugu, formakuntza eskainiz, eta instalazio teknikoak ere egiten ditugu.

Debagoienean zer-nolako lanketak egin dituzue?

Esaterako, Debagoieneko udal guztietan energia diagnosis egin dugu joan den urtean. Udal eraikinetako eta instalazio publikoetako – argiteria eta abar – energia eta ur kontsumoak aztertu ditugu eta tresna bat ahalbidetu diegu eurek kontsumoak kontrolatu eta kudeatu ditzaten. Bilakaera osoa, beraz, automatizatuta dute. Gainera, lege berriarekin, Eusko Jaurlaritzak urtero eskatzen die udalei eraikin eta instalazio publikoetan kontsumoaren alorrean nola dauden ezagutzera ematea. Azken finean, helburua da udalek gaitasuna izatea euren bidea autokudeaketaren bidez egiteko.

Zein da energetikoki eraginkor izateko bidea?

Lehen-lehenik, aurrezpena eta eraginkortasuna leudeke, eta horien ondoren etorriko litzateke berriztagarrien instalazioa. Aurrezpenaren eta eraginkortasunaren alorrean badago non lan egin. Gainera, denon ardura da, herritarrok egin behar dugu trantsizioa. **Ari gara aurrerapausoak ematen?**

"Helburua da eskolei neurri eraginkorrek proposatzea, murrizketari begira"

MONIKA MONTEAGUDO EKOON ERAKUNDEKO KIDEA

Energia eraginkortasunean lanean dihardu ekoON enpresak, eta, orain, Debagoieneko hamaika ikastetxetan garatuko den proiektu baten gidaritza hartuko du



Monika Monteagudo. EKOON

Bai, geroz eta jende gehiago dago kontzientziatuta, eta, bereziki, fakturak igo direnean hasi da jendea alternatibak bilatzen. Esaterako, bizilagunen komunitate mordera jarri da gurekin

harremanetan, eta mugimendu handia nabari da. **Debagoienean Ikastetxe-klik proiektua garatuko duzue oraingo ikasturtean. Zer da?** Eskualdeko hamaika ikastetxek hartuko dute parte,

eta, udalekin egin dugun moduan, energia diagnosi txiki bat egingo dugu eskola bakoitzeko eraikinean. Helburua da urte bukaerarako energia eta ur kontsumoak murriztea. Ikasturte osoa irauango duen proiektua izango da. Dagoeneko ikastetxe guztietako azken hiru urteetako fakturak jaso ditugu eta atera dugu kontsumoaren batez besteko bat. Helburua da, hori abiapuntu, murrizketari begira neurri eraginkorrek proposatzea. **Energia garbi eta merkeena, kontsumitzen ez dena** lelopean egingo da egitasmoa. **Eskola-komunitatearen parte hartzeak garrantzi handia du prozesuan, ezta?**

Hala da. Eskoletan energia taldeak sortu dira eta horietan gurasoak, langile guztiak eta neska-mutikoak daude ordezkatuta. Hilabetean behin biltzen gara eta hor proposatzen ditugu neurri berriak. Lehenengo urtean landuko ditugu, batez ere, ohitura aldaketak, programazio egokiak... Ikasgela bakoitzean arduradun energetiko bat izendatu da. Haren ardura izango da geletatik ateratzen direnean – izan jolastokira edo eguna bukatzean – argiak itzaltzea, leihoak itxita daudela ziurtatzea berogailua piztuta dagoenean eta abar, eta abar. Modu horretan lantzen da baita ere kontzientziazioa, eta esan dezaket ikasturte

bukaerarako aurrezpen handiak lortzen direla. Bigarren urtetik aurrera, efizientzia energetikoa lortzeko inbertsio txikiak planteatuko ditugu.

Hasiara honetan, zer aurkitu duzue?

Ez da proiektua garatzen dugun lehen aldia. Pandemia aurretik hasita geunden beste eskualde batzuetan horrelako lanketekin, eta ohikoena da aurkitzea, batetik, ezjakintasun handia. Esaterako, gertatu zaigu ikustea eraikin batean elektrizitate-kontagailu bi izatea. Konturatu gara kontagailu hori ez dela erabiltzen; hala ere, ordaindu beharreko kopurua finkoa ordaintzen ari dira. Kontsumorik ez egonda ere, baliteke urte osoko faktura 1.000 eurokoa izatea. Horrelako gauzak gertatzen dira eta egia da ez direla gauzak aztertzen. Beraz, gogoeta hori egitera behartzen ditugu ikastetxeak, prozedura desberdinen bitartez. Esaterako, zergatik dago horrelako kontsumoa abuztuan inor ez dagoenean? Edo gaeuz? Edo asteburuetan? Horrelako gauzak aztertzen ari gara. Ur ihesak dauden, ez dauden, noiz...

Zein balio ematen diozue proiektuari?

Pedagogikoki oso potentea da, kontuan hartuta eskolek duten eraldaketarako gaitasuna. Gainera, aurreztutako %50 bueltatuko zaio eskolari, eta energia taldeko kideek erabakiko dute diru hori non inbertitu. Gainerako %50a inbertituko da efizientzia neurrietan.

"PEDAGOGIKOKI OSO PROIEKTU POTENTEA DA, KONTUAN IZANIK ERALDAKETARAKO DUTEN GAITASUNA"

"AURREZPENA ETA ERAGINKORTASUNA, LEHENIK; GERO, BERRIZTAGARRIEN INSTALAZIOA"



Astelehen goizeko irudia. Argazkiaren eskuinaldean, ingurabidea, kokatu beharreko lekuan kokatu aurretik. HASIER LARREA



Astelehen arratsaldean, ingurabidea kokatu berritan, probak egiten. HASIER LARREA

Ingurabidea jarri ostean, matxuratuta dagoen hodia aldatzen hasi dira

"Arrakastaz" jarri zuten astelehenean ingurabidea, 'bypass'-a, eta jada ez dago ur ihesik. Alde horretatik, "askoz lasaiago" daudela dio Victoriano Fuentesek, Obra, Zerbitzu, Mantentze eta Auzoetako zinegotziak: "Dena den, lanak luzatu egingo dira"

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Astelehenean jarri zuten ingurabidea, *bypass*-a, matxuratuta dagoen ur-hodiaren alternatiba gisa. Behin esku-hartze hori eginda, matxura bera aurkitze-ari ekin zioten, ur-ihesa zehazki non zegoen identifikatze-ari, hain zuzen, eta eguaztenean lortu zuten hori. Teknikariek azaldu zuten, bost metroko sakoneran dagoen hodi batean zegoen ihesa, eta hodi hori hormigoizko kubo batekin babestuta zegoen.

Kontuak kontu, atzeman dute matxura, eta orain, hodi berria jartzeko lanetan ari dira, eta Fuentesek adierazi du "hainbat aste" iraun dezaketela lanek. "Izan ere, langileei pisu handiko pieza bat erori zaie hodi gainera eta beste zulo bat egin dute". Ondorioz, konponketa lanak zaildu egin zaizkie eta denbora gehiago beharko dute.

Horrez gain, bospasei metroko hodi berri bat jarriko dute eta hondeaketa-lan gehiago egin beharko dituzte horretarako. Gainera, bestelako hodi eta azpiegitura batzuk ere badaude inguruan, gasarena eta elektrizitatearena, besteak beste, eta "kontu handiz" egin beharko dituzte hondeaketa-lan horiek. Azkenik, hodi berriaren ingurua hormigoiarekin babestuko dute. Matxura zerk eragin zuen, berriz, ez dago erabat argi baina seguruenik uraren presioak berak eragin zuela uste dute.

40 litro segundoko galdu dira

Edozelan ere, behin ingurabidea jarrita, "askoz lasaiago" daudela azpimarratu du zinegotzi sozialistak: "Dagoeneko ez baikara ura galtzen ari". Ur-ihesa handia zen, 40 litro segundoko galtzen baitziren, Fuentesek

adierazi duenez. "Ohiko erabilera egiten denean, 4.000 metro kubiko ur kontsumitzen dira Arrasaten. Irailaren 26tik urriaren 17ra arte, hodi alternatiboa jarri zuten arte, 3.600 metro kubiko ur galdu ditugu egunean", dio zinegotziak. Beraz, Arrasaten egunero kontsumitzen den ur kopuru bera galdu da alperrik hodia matxuratuta egon den 22 egunetan.

Obras Hidraulicas Ortega enpresak jarri duen ingurabideari esker konpondu dute, hain zuzen ere, ur galeraren arazoa, eta esku-hartze horren kostua

ARRASATEN EGUNERO KONTSUMITZEN DEN UR KOPURU BERA GALDU DA EGUN BAKOITZEKO

92.000 eurokoa dela jakinarazi du Fuentesek. Obraren gainontzekoak izango duen kostua zehazteko, ordea, oraindik goiz dela adierazi du, ez baitakite zehazki zenbaterainoko lanak izango diren. Hondeaketa lanean, bestalde, Construcciones Moyua enpresa ari da.

Hiru ur-depositu nagusi

Asteleheneko ur-hornidura mozketak zeresan handia eman zuen herritarrengan, leku batzuetan guztiz eten baitzen ura eta beste batzuetan, berriz, ez baitzuten eraginik nabaritu.

Hori dela eta, OZMA Saileko zinegotziak hodiaren funtzionamendua azaldu gura izan du. Haren esanetan, hodi nagusia da matxura duena, eta hodi hori Kulturolaraino iristen da. Han, hodi nagusi hori hainbatetan banatzen da, erdiguneko hainbat gunetara, diametro ezberdinetako hainbat hoditan.

Horrez gain, hiru ur-depositu nagusi daude Arrasaten: Zalduspekoa, San Josepekoa (Kontzezino) eta Meatzerrekakoa. "Erdiguneak ur-hornikuntza hobia dauka, San Josepeko ur-deposituari esker. Hori dela eta, ura moztu aurretik, depositu hori goraino beteta utzi genuen. Beraz, deposituaren azpian zegoen etxebizitza orok ura eduki zuen eta erdigunean, beraz, ez zen mozketa eraginik nabaritu, deposituko erreberbeekin hornitu ahal izan zirelako", adierazi du Fuentesek.

Auzo garaietan –Makatzenan eta Erguinen eta Gesalibar auzoan, adibidez–, goizeko lehen ordutik geratu ziren ur-hornidura barik, hodiaren nagusitak jasotzen baitute ura zuzenean. Meatzerrekako depositua, azkenik, independentea da, ez du loturarik matxura izan duen hodi nagusiarekin, eta ez zuten ura moztu beharrik izan, esate baterako, Udala auzoan. Laburbilduz, ur-deposituei esker arindu zen, hein handi batean, asteleheneko mozketa.

Hodi nagusi alternatibo bat

Gertatutakoa ikusita, Fuentesek dio, etorkizunera begira, hodi alternatibo bat jartzea pentsatzen ari direla. "Ezin dugu hodi bakar baten menpe egon". Hori dela eta, "ondo landutako eta aztertutako proiektu bat" landu ostean, Zalduspetik Kulturolarainoko kilometro inguruko beste hodi nagusi bat jarri beharko litza-tekeela uste du, "bietetako batek matxura izanez gero, bestea erabili ahal izateko".

Mozketari nola egin aurre?

Mozketari aurre egiteko alternatibak askotarikoak izan ziren herrian. Debagoieneko Ospitalean, adibidez, 30.000 litroko bi ur-depositu dituzte, eta eraikin guztietarako bi eguneko autonomia dute, Horiei esker, ez zuten mozketa eraginik nabaritu. Arrasate Herri Eskolan, bestalde, bi depositu eramangarri erabili zituzten.

Euskaldun zaharrak eta berriak, 25 urtez eskutik

AEDko Zahar-Berri mintzapraktika egitasmoak 25 urte bete ditu ikasturte honetan eta ospakizunetan murgilduta daude egunotan. Atzo, mintzodromoa, txokolate-jana eta tonbola egin zituzten, eta gaur izango da egun handia, ospakizun ekitaldi nagusiarekin

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE 25 urteko ibilbidea ospatzen ari dira egunotan Zahar-Berri mintzapraktika egitasmoko kideak. Atzo, esaterako, mintzodromoak egin zituzten, goizean eta arratsaldean. "Ohi moduan, gai interesgarri batzuk jarri genituen mahai gainean eta, lauzpabost pertsonako taldeetan, gai horiei buruz eztabaidatu zuten mintzalagunek", adierazi du Nerea Zugastik, egitasmoko dinamizatzaileak.

Atzo motorrak berotu ostein, gaur, egubakoitza, ekitaldi berezia egingo dute Kulturateko areto nagusian, 18:00etan hasita. Seber Altube plazan ziren egitekoak baina, eguraldi iragarpena dela eta, Kulturateko areto nagusian egingo dute azkenean. Lehenik, aurkezpen txiki bat egingo dute eta, ondoren, Zahar-Berrin parte hartzen dutenen artean "hainbat sorpresa" egongo direla aurreratu du Zugastik. Sorpresendako tartearen ostean, antzerkiaz gozatzeko aukera egongo da; izan ere, Olatz Pagaldaik *Erdaldun berrien kluba* antzezlanana eskainiko du. Bukatzeko, luntxa egingo dute.

Urteurren borobilaren aitzakiarekin, era berean, bideo bat grabatu gura dute ikasturtean zehar, 25 urteko laburpen bat egiteko, mintzalagunen testigantzak jasota.

Ospakizunetan parte hartu ahal izateko, urte hauetan gutzietan egitasmoan parte hartu dutenei abisatzen saiatu direla aitortu du Zugastik. "Gure asmoa da ahalik eta mintzalagun gehienek parte hartzea, baina ez da erraza denengana iristea, asko baitira", gaineratu du.

Bidelagunak eta bidelariak

Egitasmoaren funtzionamenduari dagokionez, bidelagunak eta bidelariak osatzen dute. Hau da, bidelaguna da taldea koordinatzen duena; normalean,



Atzo goizean Kulturaten egin zuten mintzodromoa, txokolate beroarekin. E.A.

MENDE LAURDENKO OSPAKIZUN NAGUSIA EGINGO DU GAUR ZAHAR-BERRIK, KULTURATEN

euskaldun zaharra izan ohi dena. Eta bidelariak, berriz, euskara praktikatu gura dutenak dira, euskaldun berriak direlako edota euskara ahaztuta daukatelako eta berreskuratu egin gura dutelako. "Helburua da praktikaketa nahi eta bere inguruan horretarako aukerarik ez duenari aukera bat eskaintzea", adierazi du Zugastik.

Izen-ematea zabalik dago

Hasi berri duten ikasturte honetan, Euskal Herri mailan 7.000 mintzalagun inguru daude. Arrasateri dagokionez, 75-80 bat dira mintzapraktika egiten dutenak, hamasei taldetan banatuta. Hala ere, jende gehiagorendako lekua ere badutela nabarmendu du Zahar-Berriko dinamizatzaileak.

Izen-emate kanpaina irekita dute oraindik eta interesa dutenek bi bide dituzte horretara-

ko: 943 77 12 28 telefono zenbakira deitu edo zaharberri@aedelkartea.eus helbidera idatzi.

Bidelagun zein bidelari berriak ongi etorriak izango direla nabarmendu du Zugastik. "Edozeinek hartu dezake parte mintzapraktikan. Hala ere, euskaraz hitz egiteko gai izan beharko da. Batzuetan, etortzen zaigu jendea ez dena gai euskaraz hitz egiteko. Beraz, haiei gomendatzen diegu lehenengo euskaltegian ikas dezatela, gutxieneko maila bat lortu arte, eta gero etor daitezela gurera, besoak zabalik hartuko baititugu".

Eredua, Donostian

Esan moduan, AED elkartearen baitan sortu zen Zahar-Berri egitasmoa, duela 25 urte. Aurten 30 urte beteko dituen Donostiako mintzalagun taldearen esperientzia eredutzat hartuta, Arrasaten ere antzeko zerbait martxan jartzea pentsatu zuten. Hala ere, berba taldeen dinamikara ez mugatzeko, ekintzak gehitzea erabaki zuten AEDko kideek, herriarekiko zubi bat eraikitzeko asmotan, eta, beraz, solasaldiez gain, hainbat irteera eta ekintza ere egiten hasi ziren.



NIRE USTEZ

RAMON UGALDE

Kajoiko Mariaren onurak

Alde zaharrak pairatu duen gainbehera ageri-agerian dago: etxe hutsak, dendak eta bankuak itxita... Zurruterako espazioak, ordea, gehitu egin dira Dragoimendin.

Parrokiako Erdiko kaleko atean ia ahaztuta zegoen Errosario Ama Birjina txikiteroen babesle egitea erabaki zuten. Seriotasun guztiekin antolatuta zuten: nobenaria, eskapularioak, kofrade berrien izendapenak...

Eta fede zintzo honek Zeruko grazia jaso zuen ordainean: Kajoiko Mariak zurruteroren mesedetan Dragoimendiko alde zaharrean zabalduko onurak ukaezinezkoak dira. Ikusgarria da Kajoikoaren eraginpean dagoen eremuan nola ugaritu diren edariak lasai eta eroso gozatzeko espazioak: terrazak, toldoak, plaza publikoak ere zurrutegitu egin dira. Eta edariari eskainitako jarduerak ere ez dira gutxi: Mojitoaren Gaua Kubako Iraultza ospatzeko, Txakolin Eguna, ardo dastaketak... Kajoikoak babestutako eremuetan gauzatzen dira. Elikagai dendetan eta alderdi politikoen egoitzetan ere zurrutaren espazioa ez da txikia. Alde zaharra askoz alaiagoa da Kajoiko Ama Birjinari esker.



ARRASATEKO EAJ

Maria Ubarretxena, Erroman

Europako Alderdi Demokratik (PDE) kongresua egin du Erroman, eta han izan da Arrasateko alkatea. Harekin batera, EAJko presidente eta Europako Alderdi Demokratikaren presidenteorde exekutibo Andoni Ortuzar, BBBren presidente Itxaso Atutxa, Kanpo Ekintza Gaietarako arduradun Mikel Burzuko eta Bilboko alkate Juan Mari Aburto izan dira, besteak beste.



AGINTALDI AMAIERAKO ELKARRIZKETAK

"EAJrekin batera, lortzen ari gara gure helburuak"

ARITZ MURUA ARRASATEKO ALDERDI SOZIALISTAREN BOZERAMAILEA

Aurtengo maiatzean hartu zuen Muruak sozialisten bozeramaile kargua Arrasateko Udalean, eta maiatzeko udal hauteskundeetan PSE-EEren alkategaia izango da

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE 2019an hasi zuen ibilbidea Arrasateko Udalean Aritz Muruak (Arrasate, 1978), zinegotzi. Aurtengo udaberrian sozialisten bozeramaile kargua hartu ostean, haien alkategaia izango da datorren udaberriko udal hauteskundeetan.

Agintaldiak orain arte eman dituen hiru urteak nola baloratzen dituzu?

Egia esan, uste dut oso agintaldi ona izan dela. Hiru urte hauek arrasatearren onura ekarri duten hainbat gauza lortu ditu Udal Gobernuak. Esaterako, auzo garaietarako irisgarritasuna hobetzea lortu dugu, igogailu sistemen bitartez, Makatzenan eta Erguinen. Bi horiez gain, halaber, Santa Marinako igogailuen proiektua ere aurrera doa. Bestalde, haurren hainbat jolas-parke eraberritu ditugu; Legarrakoa eta Uribekoa, besteak beste. Azkenik, LED argiteria ezartzen jarraitu dugu. **Nola eragin du pandemiak Udal Gobernuaren kudeaketan?**

Pandemia oso golpe gogorra izan da guztiondako eta baita Gobernuaren kudeaketarako ere. Proiektuak egokitu behar izan ditugu eta pandemia egoerara moldatu behar izan dugu, zaurgarrienendako dirulaguntza lerro berriak sortuz.

Sozialistok bigarren agintaldia duzue segidan Gobernuan, EAJrekin batera. Nolakoa izan da bi alderdi politikoaren arteko harremana?

Oso erraza izan da elkarlanean aritzea. PSE-EEK urte luzeetako esperientzia dauka askotariko alderdiekin adostasunak lortzen. Are gehiago, alde bakarreko lanaren ordez, irtenbide eta soluzio aberasgarriak eskaintzen dituzten alderdiekin adostasunak lortzen ohituta gaude.

Nola baloratzen duzu oposizioak hiru urteotan egin duen lana? Nolako harremana izan duzue EH



Aritz Murua, *Ekobulebar*-ean, eguaztenez. E.A.B.

"GARIBAI ETORBIDEA OINEZKOENTZAKO IZATEA POSITIBOA DA, 'EKOBULEBAR'-AK ABANTAILAK DITU"

Bildurekin eta Podemos Arrasate-rekin?

Uste dut oposizioak dagokion lana egin duela; hau da, ados ez dagoen hori guztia kritikatu. Harreman pertsonalari dagokionez, adeitsua eta elkarrizketan oinarritutakoa izan da.

Zein da PSE-EEK Gobernuan jokatzeko protagonismo handiagoa izan behar-konzeptua uste duzue?

Alderdi sozialista Gobernuak bazkide minoritarioa izan arren, talde bakarra izango bagina bezala egin dugu lan, eta, protagonismorik ez dugula dirudien arren, gure helburuak lortzen ari gara, zalantzarik barik. **Hasierako proiektuarekiko aldaketa handiekin, baina gauzatu da *Ekobulebar*-a ere. Nola baloratzen duzue? Ze abantaila ditu orain?**

"EZ GARA GAI IZAN TAO SISTEMA MODU GARDEN ETA ARGIAN AZALTZEKO HERRITARREI"

Arrasateko etorbide nagusia oinezkoendako izatea modu positiboan baloratzen dugu, hainbat abantaila baititu. Batetik, dagoeneko ez dira erdigunetik pasatzen lehen egunero pasatzen ziren 320 autobusak eta bestelako ibilgailuak. Bestetik, herritarrendako leku atseginagoa da orain. Herriari bizitza ematen dio *Ekobulebar*-ak, gune humanoagoa baita, sozialagoa.

2019an, agintaldi hasieran, zein zen PSE-EEren helburu nagusia?

Autobus geltoki intermodala sortzea, herri barruko zein herri arteko garraio publikoa eraginkortasunez kudeatzea ahalbidetuko zukeena.

Bete da helburu hori?

Neurri handi batean, bai.

Oro har, alderdi sozialistaren aurreikuspenak bete dira?

Pandemiak gure lana baldintzatu duen arren, genituen aurreikuspen gehienak bete ditugu.

Zertan asmatu du Udal Gobernuak?

Next Generation funtseko dirulaguntzak eskatzean. Dirulaguntza horiek asko lagundu digute proiektuak modu egokian aurrera eraman ahal izateko, eta oso lagungarriak izango dira datozen urteetan ere.

Eta zertan huts egin du?

Uste dut ez garela gai izan TAO sistema modu argian eta gardenean herritarrei azaltzeko. Hobeto egin genezakeen hori.

Obra, Zerbitzu, Mantentze eta Auzoaren Saila da zuek kudeatzen ari zaretenetako bat. Ze esku-hartze nabarmenduko zenituzke?

LED argiteriara aldatzen ari da Arrasate, eta horrek ahalbidetzen digu argiaren fakturan aurrerata, era berean, ingurumenari lagunduz, CO2 gasen isuriak jaitsiz. Horrez gain, udal langileendako ibilgailu elektriko bat erosi izana ere nabarmenduko nuke, baita herriko autobusak gasoliotik petrolio gas likidotura pasa izana ere.

Berdintasun Saila da zuek kudeatzen duzuen bestea. Zertan jarri duzue fokua? Zer geratzen da egiteko?

Agintaldi honetako lorpen garantzitsuena izan da aho batez onartu izana Indarkeria Matxistari aurre egiteko II. Tokiko Plan Integrala. Hala ere, oraindik lan handia dugu egiteko, Arrasate edozein motatako indarkeriarik gabeko herria izan dadin.

Orain, zu zara alderdi sozialistaren bozeramaile Arrasateko Udalean. Orain arte, Victoriano Fuentesek izan du ardura hori. Zeri zor zaio aldaketa hori?

Jende askok egin digu galdera bera. Victorianok alderdiko antolakuntzako idazkari kargua hartu du Arrasaten eta horrek denbora dezente kentzen dio. Beraz, bozeramaile kargua nik hartzea erabaki genuen.

Nola hartu duzu ardura berri hori?

Ilusio handiarekin, egia esan. Arrasatearren ongizatea lortzeko lan egingo dut, haien beharrezan kontuan izanda eta haiengan iritsita.

Udal hauteskundeetan zu izango zara sozialisten alkategaia?

Bai, noski. Ardura hori hartu dut eta konpromiso irmoa daukat Arrasateren eta arrasatearren alde lan egiteko.



Gazte kuadrilla sarearen bilera. A.E.

Gazte Kuadrilla Sarea ere motorrak berotzen hasi da

Urriaren 14ean elkartu zen Gazte Kuadrilla Sarea, Euskaraldia herriko gazteen artean zabaltzeko helburuarekin. Adin askotariko hainbat gazte elkartu ziren, "Euskaraldia gaztetzeko gako eta behar diren baliabideen inguruan hausnartuz", adierazi dutenez. Halaber, gogorarazi dute izen-ematea irekita dagoela, bai entitateentzako eta baita norbanakoendako ere.

OHARRAK

Festa Al-Andalusen

Euskadiko Elkarte Andaluziarren Federazioak antolatuta, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin, jardunaldi kulturala egingo dute bihar, zapatua, Al-Andalus zentroan, eta emakumeen topaketa ere izango da. (Ikus *Goiena.eus*).

1967koen kintada

Zabolain jatetxean ospatuko dute, azaroaren 5ean. Interesatuek 65 euro sartu beharko dituzte kontu korrante honetan: ES07 3035 0044 88 0440040295; edo, bizum bidez, 605 77 59 47 telefono zenbakian (Carlos). Gaur da azken eguna horretarako.

EH Bilduk, batzarra

Urriaren 26an, eguaztana, Herri Batzarra egingo du EH Bilduk, 18:00etan, Bilgunean. Pello Otxandianoren parte hartzea izango da, EH Bilduko programa zuzendariarena, eta 2022-2023ko ikasturteari begira jartzea izango da helburua.

Hyundai i30 N Line

Nabarmendu zaitez

N Line

30 Hyundairen Urteurrena

i30 N Line
30. Urteurrena

130 eurotik aurrera hilean

- 130 euroko 47 kuota
- Sarrera: 6.526,50 euro
- Azken kuota: 11.341,02 euro
- UTB: %9,89
- TIN: %8,25



Oharkabeen pasatzea gustatzen ez zaien horietakoa bazara, zorteko zaude. Hyundai i30 N Line 30. Urteurrena Edizio Berezia heldu da. Ibilgailu horrekin, Hyundairen N autoetan inspiratutako kiroltasunaz gozatu ahal izango duzu, prezio ezin hobean. Serie berezi honek barne hartzen ditu N Line kanpoko diseinua kirol-aurrealdearekin eta kirol-atzealdearekin, 17"-ko hagun eksklusiboak, N Line barnealdea oihalezko eserlekuekin eta jostura gorriekin, kirol-bolantea eta lehiaketaren munduan inspiratutako xehetasun gehiago. Nabarmendu zaitez Hyundai i30 N Line 30. Urteurrena ibilgailuarekin.

ARRASATE-MUGARRI San Andres auzoa 6 (Mugarri eraikina). 943 79 70 06 www.oarsocar.com



5 URTE **Km-en mugarik gabeko Bermea**

i30 N Line 30. Urteurrena gama. CO2 isuriak (g/km): 135-138. Kontsumo mistoa (l/100km): 6-6,1. Lortutako kontsumo- eta emisio-balioak, WLTP homologazio-zikloaren arabera.

*i30 5ATE TGDI 1.0 120ZP N Line 30A ibilgailuarentzako finantzaketa-adibidea. PSP: 25.495,00 euro. Finantzatutako prezioa: 19.895,00 euro. Barne hartzen ditu BEZa, garraloa, matrikulazio-zerga, sustapen-deskontua, kontzesionarioaren ekarpena,

mantentze-lanen eskaintza eta Hyundairen Renove Plana, Hyundai Ibilgailu bat erosi aurreko 6 hilabeteetan gutxienez eroslearen titulartasunpean erabilitako ibilgailu bat entregatzeagatik aplikatzekoa. Sarrera: 6.526,50 euro. Formalizazio-komisioa, eskura ordainduta (%3,75): 501,32 euro. Finantzatutako zenbatekoa: 13.368,50 euro. 130,00 euroko 47 kuota eta 11.341,02 euroko azken kuota. Interesak, guztira: 4.082,52 euro. Kredituaren kostua, guztira: 4.583,84 euro. Zenbateko egokitua, guztira: 17.952,34 euro. Epeko prezio osoa: 24.478,84 euro. TIN: %8,25. UTB: %9,89. Frantziako amortizazio-sistema. Hyundai Finance-rekin finantzatua Cetelem Bankuaren bidez 2022/10/31ra arte. Iragarki honetan agertzen den modeloa: i30 N Line 30. Urteurrena. Hyundai Motor España SLU enpresak bere azken bezeroei eskaintzen dien 5 urteko kilometraje-mugarik gabeko merkataritza-bermea Hyundai sare ofizialak hasiera batean saldutako Hyundai ibilgailuei soilik aplikatu dakieke, zerbitzuko pasaportearen baldintzen arabera. Informazio gehiago, Hyundai kontzesionarioen sarean edo www.hyundai.es webgunean.

Eskubaloi derbia bihar, bergararren aurka

Mugarri Ingouk, Arrasate Eskubaloiren gizonezko senior mailako taldeak, Soraluze Bergara jasoko du Iturripen zapatuan, hilak 22, 20:00etan hasita. Etxetik kanpo erakutsitako nagusitasuna ezartzen saiatuko dira arrasatearrak zaleen aurrean

Hasier Larrea ARRASATE

Gipuzkoako Txapelketako laugarren jardunaldia jokatu dute elkarren aurka bihar Mugarri Ingou Arrasatek eta Soraluze BKEk. Etxekoak bi partidu irabazita eta bakarria galduta iritsiko dira hitzordura; mahoneroak, berriz, bakarria irabazita eta bi galduta. Orain arte ez dira lehiatu bata bestearen aurka, eta jada pasatu da urtebete Iturripen bailarako senior mailako taldeen arteko neurketa bat jokatzeko ez zena –Euskal Ligan dagoen Fagor Industrial Aloña Mendi izan zen bisitaria orduan–.

Arrasate Eskubaloikoak ondo moldatu dira liga berrira; etxetik kanpo bitik bi irabazi dituzte; lehena Aritzbataldere kantxan eta bigarrena Txingudirenean. Galdutako partidu bakarria lider doan Saiekoren kontura izan zen, puntu bakarrek aldeagatik: "Maritxu Kajoiko asteburua izan genuen, eta kontu ugari batu zitzaizkigun: guk oker egindakoak eta haiek asmatutakoak", adierazi du Ane Herrero, Mugarri Ingouko entrenatzaileak.

Fisikoan dago gakoa

Jokalariak "bigarren zatietan" eman dute euren onena: "Lehenengo zatiak nahiko parekatuak




Iturripen jokatuak azken derbia, iaz, oñatiarren aurka. GOIENA

egin ditugu, eta aurkarien jokora ohitu garenean hasten gara partiduak aurrera ateratzen". Herrero "taktikoki eta fisikoki indartsu" ikusten ditu mutilak, motibatuta, bai entrenamenduetan eta baita partiduetan ere: "Gure lana da daukagun baliabideekin partiduek zer eskatzen duten jakitea; gai gara baloia pibotarengana zein hegaletakoengana eramateko, kanpoko jaurtiketan trebeak gara eta bat baten aurka ere moldatzen gara".

Ezaugarri horiek baliatzen badituzte, Mugarri Ingou sail-

kapenaren goialdean egoteko hautagaietako bat izango dela-koan dago Herrero, "Ordizia, Saieko, Urola eta Andoaiekin batera, besteak beste". Normalean, Euskal Ligarako igoera fasea Gipuzkoako txapelketako lehen lau talde onenek jokatzeko dute, baina oraindik ez dakite aurtengo formatua zein izango den. Dakitena da etxeko lehen garaipena eskuratu nahi dutela, baina, horretarako, bergararrek baino neurketa borobilagoa egin beharko dute Iturripeneko kantxan zapatu iluntzean.



GOIENA

"Ez daude bi puntu soilik jokoan"

ANE HERRERO INGOU
MUGARRIKO PRESTATZAILEA


Oñatiarrekin iaz egin bezala, bergararrekin jokatu dute aurtengo derbi pare bat, gutxienez.

Mahoneroen neurketaren bat ikusi al duzu?

Ez dut aukerarik izan, baina, beti bezala, lan egin beharko dugu beraiek mendean hartzeko.

Gainontzekoen antzerako partidu bat izango da?

Derbiak beti dira derbi. Berdin dio sailkapenean ze diferentzia dagoen, liga hasiera edo amaiera den, talde bakoitzak nola jokatzeko duen... Bizilagunaren aurka jokatzeko duzunean, bi puntu baino gehiago egoten dira jokoan. Orain arte, makalaldiren bat salbu, ondo irakurri ditugu norgehiagoketako oneak; ea joera horri jarraipena ematen diogun.



GOIENA

"Erritmo bizia ezartzea da erronka"

J. ELORTZA SORALUZE
BKE-KO PRESTATZAILEA

lazu hartu zuen senior mailako taldea entrenatzeko ardurara 26 urteko Joseba Elortza bergararrak.

Aspaldi derbirik jokatu gabeak zarete. Zer espero duzue?

Bi taldeok ez dugu elkarren berririk, eta zaila da pronostikoa egitea. Guk liga hasi zenetik hona lortutako aurrerapenen bidetik segi nahi dugu. **Lehen bi neurketak galdu zenituzten; joan den astekoa irabazi.** Hobera egin dugu. Lehen jardunaldian ez ginen ondo sartu partidura, eta, azkeneko, beranduegi zen markagailua iraultzeko; bigarrenean, berriz, azken hogei minutuetan egin ziguten ihes bi puntuek. Azkenekoa irabazte gatz, erritmo biziaren jokatu guelako une oro.

Errekak garbi nahi dituzte

Bergarako erreka garbiketaren hamargarren deialdiarekin eskualdeko ordezkariak zabalak egin zuen bat; tartean, Arrasatekoak. Musakolan jarri zituzten edukiontzia, Deba ibaiko bazterretatik ateratako hondakinak bertara botatzeko. Denetik jaso zuten: farola bat, supermerkatuko karroak, motor bat, botilak eta latak, besteak beste.



GOIENA

Behobia-Donostia lasterketarako autobusa egongo da

Aurtengo 57. aldiz antolatu dute Behobia eta Donostia arteko maratoi erdia. Azaroaren 13an izango da eta 30.000 parte hartzaile espero dituzte –izen-ematea agortuta dago–. Arrasateko autobusa antolatu dute: 07:30ean irtengo da Behobiara, eta 15:00etan itzuli Donostiatik. Interesatuak Erdiko kaleko Maitia dendan gorde dezakete tokia.



Haizea eta Oihana Arana eskoriatzarrak, Aretxabaletako Arkupe aretoan, negu bukaeran. GOIENA

Dikotomiak zalantzan hamar pieza harilkatutan

Gaur, ostirala, 'Erre. Aldarri bat bertsoz' ikuskizuna plazaratuko dute bertsoaritzak batutako lau adiskidek; tartean, Oihana eta Haizea Arana eskoriatzarrek. Emakume Txokoak antolatuta, gaztetxean egingo dute ordubete inguruko saioa, 21:30ean

Hasier Larrea ARRASATE

Bertsolaritzaren, antzerkiaren, musikaren eta poesiaren arteko mugak lausotzen ditu esperimentu bezala sortu zen proposamenak. Bertsozale Elkartearen Lanku kultur zerbitzuko kideek xaxatu zituzten Aner Peritz, Leire Vargas, Haizea Arana eta Oihana Arana, elkarren artean ikuskizun berezi bat sor zezaten. "Laurok esaten dugu marrikak eta bollerak gara. Gure arteko elkarriketetan gai eta ezinegon ugari irten ziren, eta horiek lantzeko erronka jarri genion geure buruari; biderik onena dualismoen inguruko hausnarketa planteatzea zela erabaki genuen", azaldu du azken horrek. Izan ere, gizartean ikuspegi bitarra arlo askotan ezarrita dagoen uste sendoa dute: "Gizon-emakume, gazte-zahar, euskaldun-erdaldun... Dualtasun horiek hautsi nahian, galderak plazaratuko dizkiegu ikus-entzuleei, norberak aurki dezan erantzuna".

Hamar eszenatan tratatuko dituzte bertsoa, gaztetxuna eta identitatea ardatz dituzten gaiok. Bukaera gabeko kontakizun askeak dira, "hari fin batek" elkar lotutakoak. Obran zehar hainbat pertsonaia eta izaera interpretatzen dituztenez, sarri aldatzen dute arropa antzezleek. Kontrara, xumea da eszenatokiaren apaindura.

Gaztetxe batean lehenengoz

Joan den otsailean estreinatutako zuten, Durangoko San Agustin Kulturgunean, *Erre. Aldarri bat bertsoz*, eta herri bereko jaietako txosnagunean interpretatzen etorriko dira Arrasateko gaztetxera. Diote oso oholtza desberdinetan, "33 ingurutan",

OTSAILTIK HONA, 33 EMANALDI EGIN DITU LAUKOTEAK, "AHOZ AHOKOAREN ONDORIOZ"

aurkeztu dutela lana, baina gus-tura moldatu direla bakoitzaren berezitasunetara. Eta gogotsu daude gaurko emanaldirako, besteak beste, "lehen aldiz" azalduko direlako gaztetxe batean.

Ilusioa ere ez dute galdu, baina bai "itxuraldatu". Plaza bakoitzetik ateratzen dituzte "gauza berriak", eta, esperientzien pilaketaren ondorioz, "segurua-go" antzeztzen dute orain, alde batetik, "oso erantzun positiboak" entzun dituztelako: "Nahi genuen tokietara iritsi gara, ahoz ahoak funtzionatu duelako. Egia da onak diren lan askok ez dutela halako ibilbiderik egiten; beraz, baloratzeko modukoa da".

Gainera, antzezttera mugatzen da euren eginkizuna, Lankukoek hartzen baitute euren gain gaitz nontzeko lana. Martxa berean jarraituko dute aurrerantzean ere; Emakume Txokoak antolatu duen gaurko hitzordura joan ezin duenak jakin dezala Antzuolan arituko direla datorren asteburuan.

Dantza eta bideo proiektioz uztartutako egitasmoa Amaian

Hilaren 23an, 19:30ean, 'Suirrealismo' obra aurkeztuko dute Logela Multimediak eta Circle of Trust konpainiak

H.L. ARRASATE

Logela Multimediako kideak iaioak dira jendaurreko ikuskizunak efektu digitalez janzten. Estilo horretako dozenaka obra ondu dituzte, eta Amaia antzokian ere eman dute haurrentzako zein helduentzako ekimenen berri. Domeka arratsaldean aurkeztuko dutena Zaragozako Circle of Trust dantza konpainiarekin egindako elkarlanaren fruitua izango da. Askotariko modalitateak, tartean breakdantza, lantzen dituzte aragoiarrek beraien espektakuluetan. Beraz, talde bakoitzak maneiatzen dituen diziplinak elkartu eta *Suirrealismo* ekitaldia atera dute plazara.

Surrealismo izeneko korrante artistikoan dago oinarrituta izena. 40ko hamarkadan Parisko kafetegietan batzen ziren hainbat diziplinatako artistek



Dantza eta bideoa nahastuta. LOGELA M.

sortu zuten mugimendu hori, ezaugarrietako bat inkontzientea irudimenaren iturria dela erakustea duena. Hain justu, artista surrealisten ekarpena XXI. mendeko hizkuntzaren bidez berrinterpretatzeko xedea du Amaian taularatuko duten obrak.

Txorbela Otxoteak kontzertua egingo du San Frantziskon

Bihar, urriak 22, 19:30ean hasita, hamasei abeslaridun Txorbela Otxoteak Seber Altubeko San Frantzisko elizan egingo du doako emanaldia, Xabier Barriolaren zuzendaritzapean. Euskal kantu herrikoiak abestuko dituzte; besteak beste, Aita Madina konpositore oñatiarren piezak, haren heriotzaren 50. urtemugan.

Hurrek sormena lantzeko saioak asteazkenero

Helena Azkarragaurizarren eskutik, 6 eta 12 urte arteko neska-mutiek marrazketa, pintura, eskultura eta halako diziplina artistikoak jorratu ahal izango dituzte Herri Eskolako Erguingo eraikinean. Saiook asteazkenetan izango dira, 16:45etik 17:45era. Izena emateko, idatzi 652 73 62 70era edo geahe.formakuntza@gmail.com-era.

'Ganberock' jaialdian NCC eta El Volquete taldeak izango dira

Taupa tabernak antolatu ohi duen zuzeneko musika ekitaldia da Ganberock, bihar bertan, hilak 22, ospatuko dena. 19:00etatik aurrera igoko dira terraza inguruko oholtzara punk-rock estiloko jorrotzen duten bi talde: batetik, NCC, Donostiako banda mitikoa; eta, bestetik, El Volquete, bailarako musikariz osatutako hirukotea.

Sega Sound Killersek itxiko du Koolturen urriko egitaraua

Musika elektronikoa egiten duen rock banda bezala definitzen du laukote gipuzkoarrak bere burua. Aurten argitaratu dute *Dolu* izeneko lehen diskoa, "underground kulturari eta musika zirkuitu txikiei gorazarre" egiteko. Zuzeneko emaitza ikusi eta entzun nahi duenak gaztetxean izango du mokadua, hilaren 27an, 22:00etan hasita.



Markina-Xemeingo saioan saria irabazi zutenak. M.U.

Hiru txirlo jokoa berpiztu guran

Euskal Herriko 32. hiru txirlo txapelketako hirugarren saioa jokatuko da bihar, zapatua, Untzillan; azaroaren 19an, aldiz, finala jokatuko dute Etxaguengo bolatokian. Jokatzeko aukera edonork izango du; txapelketan lehiatzekoa, federatuek bakarrik

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO Bolo jokoa, eta, zehazki, hiru txirlo modalitateak indar handia izan du auzoetan. Azken urteetan auzoetako jaietan egin izan dira txapelketak, eta esan daiteke poliki-poliki indarra galdu duela jokoa. Bada, bolo jokorako Euskal Federazioaren laguntzarekin hiru txirlo modalitatea berpiztu gura da. Horretarako, Euskal Herriko txapelketako bi saio Aramaion jokatuko dituzte: bihar, zapatua, hirugarren saioa egingo dute, Untzillan, 17:00etan, eta azaroaren 19an, seigarren eta azken saioa, Etxaguenen.

Euskal Federazioko presidente Mikel Urkiak azaldu du hiru txirlo modalitatea "berpiztu" gura dutela. Horretarako, besteak beste, Etxaguengo bolatokia konpondu dute, han ere txapelketako saio bat egiteko. Azken

urteetako geldialdiaren ondoren, aurtengoa Euskal Herriko 32. hiru txirlo txapelketa izango da. Urriaren 8an hasi zuten txapelketa, Eibarko Asola Berrin; urriaren 15ean, Markina-Xemeingo Barinaga auzoan jokatuko zuten bigarren saioa. Hirugarrena bihar izango da, Untzillan.

Edonork parte har dezake

Biharko saioan, eta baita beste guztietan ere, edonork parte har dezake. "Euskal Herriko txapelketan lehiatzeko federatuta egon beharko da, baina parte hartu eta diru-sariak lortzeko 5 euro

EDONORK PARTE HAR DEZAKE LEHIAKETAN; 5 EURO ORDAINDU BEHAR DIRA IZENA EMATERAKOAN

ordaindu beharko dira izena ematerakoan", dio Urkiak.

Diru sariak izango dira: lehenengoak 65 euro irabaziko ditu; bigarrenak, 50 euro; hirugarrenak, 35 euro; laugarrenak, 20 euro; bosgarrenak, 10 euro; eta seigarrenarendako "ustekabea" egongo da. Federazioko presidente Mikel Urkiaren esanetan: "Jendea gerturatzea nahi dugu, ez dugu *petit comité* eran egingako zerbaitez gura".

Nola jokatzen den

Arta-egurrekin egingako bola batekin jokatzen den kirola da, bi kiloko pisua duen bola. "Zulo bat eta aho bat dituen bola da, baina horiek ez ditugu hatzak sartzeko erabiltzen. Aerodinamika hartzeko erabiltzen ditugu zuloak", dio Urkiak. Bola hartu eta zuloak beti ezkerrean begira jarri behar dira, eta bola aurre-



Bolatokia, margotu ondoren. M.O.

Etxaguengo bolatokia atontzen

Irailean hasi ziren Etxaguengo bolatokia konpontzen. "Nahiko erabili izan den bolatokia da, nahiz eta azkeneko urteetan ohitura zerbait galdu den. Ez zegoen egoera txarrean, baina txapelketa batek eskatzen dituen neurriak ez zituen betetzen", azaldu du Etxaguengo auzo-alkate Mikel Oterok. Hori horrela, buru-belarri ibili dira lanean: "Argiteria konpontzeko eskatu diogu Udalari, margotu egin dugu eta pistako oholza aldatu egin dugu, zaharra oso hondatuta zegoelako". Bola botatzen denean bi metro luzera duen ohol baten jo behar du; bada, ohol hori da aldatu dutena. Horrez gain, pista bera ere konpondu egin dute, buztin-lurrarekin. Azkenik, pistaren amaieran hesi bat harri dute, babesleku lana egingo duena.

70eko hamarkadan egingako bolatokia da, auzolanean, Diputazioaren laguntzarekin. "Orain dela gutxira arte erabili da; izan ere, 2012ko kopak baditugu", dio Oterok. Horrez gain, irailan auzolanean urtero konpondu izan dute bolatokia, baina araututako distantziak ez ditu sekula bete izan. "Hiru txirlo jokoa egiteko boloak ere ez genituen, bere garaian apurtu egin ziren eta. Zulo bako bola geneukan. Orain, bi bolo joko erosi ditugu auzorako", dio, eta gehitu du auzotarrek nor bere erabilerarako beste bederatziko joko erosi dituztela. Etxaguengo bolatokia zabalik dago gura duenak erabil dezan.

ra zuzen bota behar da: "Bolak lurrean dagoen egurrezko ohol-tzan jo behar du, eta, ondoren, buztinezko pistan joango da. Lehenengo txirloa hamazazpi metrora jartzen da eta ondorengo bi txirloak metro banatara daude". Lehiakide bakoitzak hiru aldiz botatzen du bola; hala, pertsona bakoitzak gehienez bederatziko txirlo bota ditzake.

Etxaguengo auzo-alkate Mikel Oterok azaldu du Etxaguengo bolatokia ezkertiarak direnendako zailagoa dela, aldamenen horma bat duelako eta horrek traba egiten duelako.

BOLAK ZULO BAT ETA AHO BAT DITU, ETA HORIEK AERODINAMIKARAKO ERABILTZEN DIRA

Bola eta txirloak

Urkiak azaldu du txirloak eta bola eskuz eginak izaten direla: "Azken 39 urteetan Antonio Ibarluzeak egin izan ditu, Markina-Xemeingo semea". 60 urterekin hasi zen Ibarluzea bolak eta txirloak egiten, eta argindarrik erabili gabe egiten ditu, denak eskuz.

Txapelketaren nondik norakoak

Euskal Herriko txapelketako lehenengo saioan 69 parte-hartzaile izan ziren eta bigarrenen, 72. Lehenengo bi saioetan egingako lana kontuan hartuta, Asola Berri taldeko Ganix Rodriguez dago lehenengo postuan. Azaroaren 5ean, Ziortza-Bolibargo Iruzubietza auzoan jokatuko dute laugarren saioa, eta bosgarrena Debagoienan izango da, Leintz Gatzagan, hain zuzen, azaroaren 12an.

"Enduroko jaitsieren adrenalina dut gustuko"

IKER SENAR DOMINGO ENDUROKO ZIKLISTA

Enduro mendi lasterketetan lan txukuna egin ondoren –Arrasaten hirugarrena izan zen–, ziklokros denboraldia hasi du aramaioarrak. Etzi, Berrizko proban izango da

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO

Orain dela bost urte hasi zen enduro modalitatea praktikatzeko Iker Senar Domingo (Aramaio, 1993), eta, egun, lasterketetan aurrean dabil. Enduroko jaitsierak duen adrenalina atsegin du Senarrek, eta gaineratu du kirol kompletoa dela. Bizikleta jaitsierak praktikatzeko inguruan dauden leku aproposak nabarmendu ditu, eta baita hainbat zalek egiten duten lana pistak txukun mantentzeko.

Zer du enduroak horrela zaletasuna sortzeko?

Jaitsiera politikatu, adrenalina ematen dutenak. Izan ere, errepideko bizikleta monotonoa egiten zait; eta mendikoa, aldiz, erakargarriagoa dela esango nuke.

Irail amaieran, Arrasateko enduro mendi lasterketa jokatu zenuen, eta hirugarren postua lortu. Espetro zenuen?

Hemen inguruan entrenatzen naiz; hortaz, leku ezagunetan lehiatzeak abantaila ematen du. Espero nuen ondo ibiltzea, eta egia da lehenengo hiru tramuak kontuan hartuta denbora onena egin nuela. Hala ere, azkeneko, Markel Uriartek eta Adiran Juradok aurre hartu ninduten; asko ibiltzen diren txirindulariak dira.

Arrasatekoa, gainera, Euskal Herrian jokatzeko den bakarretakoa da. Non lehiatzen zara?

Bai, inguruan lasterketa gutxi egiten dira. Arrasatekoaz gain, Nafarroan ere egiten dira; eta, gainontzean, kanpora joan behar da: Pirinioetara, Asturiasera, Galiziarara... Espainiako txapelketako lasterketara joatea zaila egiten zait: urrun daude, kilometro asko egin behar dira, eta, gainera, asko entrenatu behar da. Urtero joaten naiz, adibidez, Castejon de Sosera (Huesca). Askok gustatzen zait.

Zer eskatzen du kirol modalitate honek?



Iker Senar bizikletarekin. A.E.G.

"HEMEN INGURIAN ENTRENATZEN NAIZENEZ, ESPERO NUEN ARRASATEN AURREAN IBILTZEA"

Oso kompletoa da. Ibilbide osoa bizikleta gainean egiten da eta erreflexua, oreka, indarra... lantzen dira, bai hanketakoa eta baita gorputzeko goiko atalekoa ere.

Kanpotik ikusita, kirol gogorra dirudi. Minik ez hartzea garrantzitsua izango da txapelketan aurrera egiteko.

Bai, baina, momentuz, ondo nabil. Hasieran, hasi nintzen, beti lurrean ibiltzen nintzen... Ez nintzen hain trebea. Egia da kolpe txarren bat hartu dudala, baina, batez ere, bizikleta bera apurtu izan dut.

Nolako bizikletak izaten dira endurokoak?

Mendiko bizikletak izaten dira, baina duten berezitasuna da moteltze edo amortiguazio luzeagoak dituztela, kolpeak hobeto hartzeko. Gurpilak ere handiagoak dira.

Bost urte dira enduroan hasi zine-la. Nolako bilakaera izan duzu?

Oñatira bizi izatera joan nintzen hasi nintzen enduroa praktikatzeko. Egia da azkeneko bi urteetan asko hobetu dudala. Markel Uriarte, esaterako, erreferente moduan izan dut, nire mailatik oso urruti ikusten nuen; eta, azkenaldian, podium batera igo naiz Markelekin batera.

Enduroko lasterketak amaituta, ziklo-krosean arituko zara?

Geratzen diren enduroko lasterketak hemendik oso urruti daude. Horregatik, ziklo-kros denboraldiari ekingo diot: dagoeneko bi proba egin ditut, Ortuellan bat eta Burgosen beste bat. Domeka honetan beste lasterketa bat izango dut, Berrizen. Ez daukat talderik, nire kabuz nabil, baina egia da Gasteizko Vibike bizikleta-dendak laguntzen didala.

Aramaion dauden inguruak ikusita, mendiko bizikletarekin ibiltzeko leku aproposak egongo dira.

Bai, badaude lekuak. Arrasaten ditudan lagunei esker sartu nintzen mundu honetan, eta esan behar da lan handia egiten dutela pistak konpontzen eta mantentzen.



NIRE USTEZ

JOKIN LARRAÑAGA

25 urteko aitona bi

Orain dela bi aste, txikitako lagun on batekin hizketaldi interesgarri batez gozatzeko aukera izan nuen. Ez dut gogoan haren hasiera, baina momentu batez solasaldia eten zitzaigun poltsikoan nuen mugikorraren kapritxoaz. Hitz egiten ari ginena berreskuratu ezinik, telefonoa itzali nuen, eta jarraian, gure mugikor-aurreko bizimodua gogoratu genuen. Izugarria zen ume izatea. Asperraldiak bultzatutako sormen geldiezin hura... Lagunen bila atez ate joan denak badaki orbel eta makila huts batzuekin egin daitekeen guztia: errekan behera doazen itsasontziak; haizetik babesten gintuzten baso-txabolak... Ez dira hainbeste urte pasa, baina guztia da ezberdin orain. Telefonoa etxeko kablera lotua zegoenean askea baitzen gure irudimena, baina mugikorrak kablerik ez duenetik, gu geu lotu gaitu.

Ume izatearen alderdi onak asko balio dutelakoan, gure etorkizuneko seme-alabei mugikorrak emango ez diegula adostu genuen, barrez. Guraso kaxkarrak izango gara oso.



ARAMAIOKO UDALA

Auzolanera batu ziren

Deba erreka auzolaneko garbitzeko eskualde mailan egindako deialdira batu zen Aramaio. Zapatuan elkartu ziren, hamar bat lagun, Aramaio erreka tartea garbitzeko. Zubialde baserri ondotik sartu ziren errekarera, eta handik gora abiatu ziren. Zaborrez eta hondakinez betetako poltsa ugari ateratu zituzten errekatik. Parte hartu zuten herritarrak eskertu ditu Udalak.

Gaur egingo dute kurtso hasiera ekitaldia Sastiñan

Bertso saio berezia egingo dute gaur iluntzean Sastiñan. Aramaio Bertsolari Eskolaren kurtso hasiera ekitaldia izango da: parte hartuko dute Bizkaiko Bertsolari Txapelketan Nerea Ibarzabalek eta Gorka Pagonabarra bertsolariak. Gai-jartzaile lanetan bertso eskolako kideak ibiliko dira. 19:30ean izango da saioa, doan.

Gaur bost lehia eta domekan bederatzita pilota txapelketan

San Martin pilota txapelketako partiduak jokatu dituzte gaur eta domekan. Gaur, 18:15ean hasita, bost lehia jokatu dituzte. Domekan, 10:00etan hasiko dira partiduak: Ibai Osoro eta Peio Orue, Xuban Altuna eta Jakes Valoria eta Maia Armentariz eta Manex Herrarte pilotari aramaioarrek domekan jokatu dute.



Udal ordezkariak eta Basotxo erretiratuaren elkarteko kideak komentuko lanen berri ematen, martitzenean. MIRARI ALTUBE

Urtea bukatu aurretik abian izango dira gizarte zentroaren lanak

Basotxoren egoitza berria, mendekotasun txikia duten adinekoentzako eguneko arreta zerbitzua eta erabilera askotariko aretoa egokituko dira komentuaren beheko solairuan; bi milioi euro pasako aurrekontua dute lanek eta urtebete iraungo dute

Mirari Altube ARETXABALETA

Astelehenean egindako osoko bilkuran esleitu zituen udalbatzak, aho batez, agustindarren komentuko eraikinean adinekoentzako gizarte zentroa egiteko lanak. Urdinberri, Viuda de Sainz eta Gerte enpresek osutako aldi baterako enpresen elkarteari (ABEE) eman diote horren ardura, 2.093.080 eurotan, eta urtebeteko epea izango dute bukatzeko.

EH Bildu "kezkatuta"

Lanen esleipena babestu zuen EH Bilduk osoko bilkuran, baina kezka agertu ere bai. Batetik, luze joan delako komentuko lanen prozesua: "Atzerapen horrek ardura ezberdinak ditu: handiena proiektuaren egilearena, baina horri, Udal Gobernuak egin duen kudeaketa gehitu behar zaio".

Eta bestetik, "tabernaren etorkizunaren gainean esandakoenatik": "Ekipamendu horren etorkizuna hain beltz ikusten badu Udal Gobernuak, nola ez da baloraziorik egin, alternatibak eta kudeaketa-aukerarik aztertu eta beharrezkoak izango diren baliabideak aurreikusi?".

Proiektu estrategikoa

Lanen gaineko xehetasunak martitzenean eman zituzten Unai Elkorok alkateak, Karmele Uribarri Gizartegintzako zinegotziak eta Elena Gibello Hirigintzako teknikariak. Basotxo erretiratuaren

ADINEKO PERTSONEN SOZIALIZAZIOA ETA INTEGRAZIOA BERMATZEA DA HELBURUETAKO BAT

elkarteko presidente Migel Elortza eta zuzendaritza batzordeko kide Ramiro Gomez eta Juan Cruz Diez ere bertan izan ziren.

Lehenengo faseari ekingo diote orain, beheko solairuko lanei, hain zuzen ere. Basotxo elkartearen egoitza berria, mendekotasun txikia duten adinekoentzako eguneko arreta zerbitzua eta erabilera askotariko aretoa egokituko dira. "Urtea bukatu aurretik hasi eta, ezustekorik ez badago, urtebete barru amaituta egongo dira", zioen alkateak.

ABEE horrek, hain zuzen ere, osasun etxe berriaren lanak egingo ditu; joan den astea ezker dihardute horretan. "Udalak eta Osakidetzak 6,5 milioi euro inguru inbertituko dituzte Errekabarren kaleko inguru horretan, herria izaera sozial eta sanitarioko bi ekipamendu-

rekin hornitzeko", nabarmendu gura izan zuen Elkorok.


Gizartegintzako zinegotzi Uribarri ere "pozik" agertu zen lanak abian jarriko direlako, nahiz eta horiek "gura baino beranduago" etorri: "Pandemiak eta hirigintza-izapideek eta proiektu arkitektonikoaren idazketak prozesua luzatu egin dute, baita kaperaren intsonorizazioa gehitzeak ere". Eta barkamena eskatu zien herriarrei, sortutako eragozpenengatik; bereziki, Basotxori eta Erdu talde feministari.

Era berean, gogorarazi zuen proiektu estrategikoa dela Udal Gobernuarentzat: "Adineko pertsonen sozializazioa eta integrazioa bermatuko ditu, kaperan kokatuko den areto berriarekin batera. Areto horrek herriari eta bertan garatzen diren jarduerari azpiegitura eskainiko die". Tabernari ere balioa eman zion: "Eraikinari bizia eman eta adin askotariko jendearen mugimendua bultzatzen lagunduko du". Zentro berria adinekoen bakardadeari aurre egitera bideratuta dagoela ere azpimarratu zuen.

Basotxoren egoitza, Zainduz-en

Zainduz gimnasio zaharrean izango du egoitza Basotxok lanek iraun bitartean. Bi areto izango ditu han: bulegoa eta jardueretarako gela. "Obra txiki batzuk egingo dira leku gehiago eskaintzeko Basotxori, baldintza egokietan garatzeko jarduerak", azaldu zuen alkateak. Estimulazio kognitiboko tailerrak ere ematen hasi dira hor, ondoren komentuaren eskainiko direnak. Basotxoko presidente Migel Elortzak zioen jardueragela txiki geratuko dela hainbat ekintzatarako.

Erretiratuaren tabernari dagokionez, datozen egunetan emango dutela erabakiaren berri adierazi zuten.



Egoitzaren beheko solairuko planoak. ARETXABALETAKO UDALA

Lanak beheko solairuan

Beheko solairua hiru hegaletan banatuta dago. Horietako batean Basotxoko taberna kokatuko da, terraza eta guzti, eta sarrera nagusia lorategitik izango du. Bigarren hegalean eguneko arreta zentroa egongo da, eta hirugarrenean, Basotxoren bulegoak.

Erdisotoan, bestalde, tabernako sukaldea, biltegi bat, langileen aldagelak eta instalazio-gela egongo dira. Lehenengo solairuarekin komunikatzeko, eskailerak eta igogailu baten kaxa egokituko dira; etorkizunean, proiektuaren bigarren faseari ekitekoan, komunikazioak prest izateko.

Kaperak sarrera propioa izango du, intsonorizatu egingo dute eta komuna eta biltegi bat izango ditu.

Eraginkortasun energetikoaren ikuspegitik, eraikinak aerotermita sistema eta eguzki plakak izango ditu teiltuan.

Udal tasak eta zergak %4 igoko dituzte, orokorrean

Ondasun higiezinaren gaineko zerga eta zaborraren tasa horren azpitik igoko dira eta beste batzuk dagoenetan utziko dituzte; adibidez, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga eta Udalak ematen dituen hainbat zerbitzuren tasak

Mirari Altube ARETXABALETA

Udal zergen eta tasen igoera onartu zuen udalbatzak joan den astelehenean egindako ezohiko osoko bilkuran. Udal Gobernuak eta EH Bilduk adostasuna lortu zuten, eta, orokorrean, %4ko igoera izango dute. Ordenantza fiskalak jendaurrean jarriko dira orain, alegazioak aurkeztu ahal izateko.

Hobariak familiei

Unai Elkoro alkateak igoeraren zergatia azaldu zuen: "Iaz lau puntu galdu genituen eta aurrean ere ia %10era igo da KPIa. Horri aurre egiteko, ezinbestekoa da guk ere igoerak aplikatzea".

EH Bilduko Ion Albizu gustura agertu zen: "Eskatu dugu 32.000 euro baino gutxiagoko diru sarrierak dituzten familiek hobariak izatea tasetan zein zergetan, baita familia ugariak ere. Helburua da gutxien duten familiei laguntzea, batetik, eta, bestetik, guztiek erabili ahal izatea udal zerbitzuak; kiroldegia, esaterako". Azken horri dagokionez, 23 urtetik azpiko tasa %25 jaistearen onartu zuten.

Zerga batzuek igoerarik ez

Honako hauek izango dute %4ko igoera: trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergak; obrak



Ibarra kiroldegi ingurua. MIRARI ALTUBE

egiteko baimenak; uraren tasak; jabari publikoa erabiltzearen tasak; animalien gaineko tasak; eta kiroldegiko tasak –gazteen eta ikasleenak, %25eko jaitsiera–.

Ondasun Higiezinaren Gaineko Zerga (IBI), ostera, %3,8 igoko dute, eta zaborrarena, %3. "Igoera horrekin, Udalak Debagoieneko Mankomunitateari zerbitzu horrengatik ordaintzen dion kostuaren %100 estaltzen da", azaldu zuen alkateak.

Igoerarik izango ez dutenen artean daude hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga;

eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga; eta Udalaren hainbat zerbitzuren prezioak: udalekuak, gaztelekuak, ludoteka eta ikastaroak, besteak beste.

Energiaren prezioa, kezka garria

Elkoro kezkatuta agertu zen energiaren prezioaren igoerarekin: "Astindu handia eman digu gasak; bereziki, azken bi hilabeteetan". Eta beste neurriren bat hartu beharrean izango direla ere aurreratu zuen: "Gastua izugarri hazi zaigu, eta zerbait pentsatu beharrean gaude".



Almeneko ikasleak, landutako proiektuaren berri ematen. KOLDO ZUBIA

Begisare erakundearekin bat egin dute Almeneko ikasleak

Ikusmen murriztua dutenen zailtasunen berri emateko hainbat jolas egingo dituzte gaur, Mitarte kalean

Koldo Zubia ARETXABALETA

Ikusmen murriztuaren inguruko Ikus Nazazu proiektuan murgildu dira Arizmendi ikastolako Almen guneko DBH-2ko ikasleak. Helburua da ikusmen murriztua zer den ikastea, horren inguruan ikertzea eta kontzientzia hartzea; horretarako, Begisare elkartearekin harremanetan egon dira. Hitzaldia izan zuten elkartekoekin astelehenean; eguaztenean, gaiaren inguruan ikertu zuten eta txostena egin; eta eguenean, jasotakoaren berri eman zioten Aretxabaleako Udalari.

Jolasak eta salmenta gaur

Ekimenari bukaera emateko, gaur, egubakoitza, Begisare elkartearekin batera karpak bat jarriko dute Mitarte kalean. Hainbat jolas antolatu dituzte ikusmen murriztua duen jendeak egunerokotasunean izaten dituen zailtasunen inguruan kontzientzia

hartzeko. Gainera, borondatearen truke txapak salduko dituzte eta bildutako diru guztia elkarte horretara bideratuko da.

Itsutasuna baino sarriago

Ikusmen murriztuaren inguruko datu batzuk ere eman dituzte ikasleak. Itsutasuna baino maila bat beherago dagoen gaitza da, eta, beraz, betaurreko edo ebakuntzekin ezin daiteke zuzendu. Itsutasuna baino maizago gertatzen den arren, ez da hain ezaguna eta askotariko gaixotasunak sailkatu daitezke ikusmen murriztu gisa; besteak beste, fotofobia, petatxuz beteriko ikusmena, gaueko itsutasuna eta ikus eremuaren galera dira gaixotasun horietako batzuk. Hori dela eta, ikasleen hitzetan: "Aretxabaleako herritarrek animatzen ditugu jarriko dugun karpatik pasatzera eta txapa solidarioak erostera".

Ibaia garbitzen "gustura"

Hirurogei lagunetik gora –umeak zein helduak– elkartu ziren Deba ibaia garbitzeko joan den zapatuan. Errotabarri baseritik Mugarrirainoko tartean, taldeetan banatuta, jardun zuten lanean; gustura jardun ere, eguraldia lagun. Plastiko eta ontzi asko jaso zituzten, baloiak, patinete bat, burdin pusketak, hodi zatiak eta beste hainbat zikinkeria.



MIRARI ALTUBE

Mobiliario
ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Jou Díaz
Karakina

Durana 15
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

PATXI CASTRO

Era guztietako aukien konponketa
•
Tapizatu lanak
•
Zumezko eta kanaberazko artikuluak salmenta
•
Besuak, mahaiak, saskiak e.a.
943 78 71 65
639 01 69 69

Txistularien Eguna, gonbidatu bereziekin

Zapatuan, Demetrio Iriarteren omenez, bi orduko alarde ibiltaria egingo dute Eskoriatzako, Aretxabaletkoa eta Arrasateko txistulariek, eta jaira batuko dira Iriarteren lanak digitalizatu, berreskuratu eta partiturak egoki jarri dituzten txistulariak

Imanol Beloki ARETXABALETA

Aretxabaletan ospatuko dute aurten Txistularien Eguna, eta 09:00etan entseatzeko hasiko dute egunera batuko diren txistulariek. Hamarretakoa egin, eta, 11:30ean hasiko dute alarde ibiltaria. Bi orduz, Demetrio Iriarteren 24 pieza joko dituzte, eta, saioa amaitzean, Taberna Barrin bazkalduko dute, hala, egunari amaiera emanda.

Digitalizazio lanari eskertza

2011n, Eskoriatzako, Aretxabaletko eta Arrasateko txistulariak batu ziren, urtero egun berezi bat antolatzeke asmoz, eta jaieguna herriz herri txandakatzeke asmoz. Hori horrela, Txistularien Eguna 2019an egin zen azkenengoz, Arrasaten, eta, bi urtean ez dutenez ospatu, zapatu honetarako gogoz daudela adierazi du Jokin Antxiak, Aretxabaletko txistulariak: "Eskoriatzako, Aretxabaletko eta Arrasateko txistulariak elkartzeko gara, normalean, urtero, baina

2018ko edizioan, esaterako, Gasteizko txistulariak gonbidatu genituen, eta Oñatikoren bat ere beti izaten da gure artean. Hala ere, aurten, berezitasun moduan, Zarautz, Getaria, Pasaia, Andoain, Hernani... ingurukoak diren zortzi txistulari inguru izango ditugu, baita Iruñetik etorriko diren pare bat lagun eta Altsasutik etorritako hiru gazte. Horiek gonbidatzearen arrazoia honako hau da: kontua da 2015ean, Demetrio Iriarte jaio zen 100. urteurrena ospatu genuela, eta bertako txistulariok Demetrio Iriarteren lana bistaratzea jarri genuen helburu. 140 lan agertu ziren, baina hala moduz zeuden partiturak: fotokopien fotokopiak ziren, batzuei

DEMETRIO IRIARTEREN 24 PIEZA JOKO DITUZTE 11:30EAN HASIKO DEN ALARDE IBILTARIAN

zatiak falta zitzaizkien... eta partiturak ez ziren ondo irakurtzen. Ondoren, zapatuan, Gipuzkoako zenbait herritatik Txistularien Egunera etorriko diren txistulari horiek gogoz hartu zuten Demetrio Iriarteren lanak digitalizatzea. Dena digitalizatu dugu, partiturak eginda, hainbat grabazio eginda... Partiturak modu egokian jarri dituzte, eta lan horri itxura ederra eman diogu. Beraz, aurtengo Txistularien Eguna lan horren inguruko izango da".

Pieza dedikatuek

Demetrio Iriartek elkarteei eta lagunei dedikatzen zien partiturak, eta, hori oinarri, modu berean antolatu dute alarde ibiltaria. Hau da, jotzen duten pieza bakoitza norbaiti eskainia izango da. "Tomas Otxoa eta Ramon Eraña bizi ziren tokian joko ditugu piezak, baita Uratz-Alde eta Muru-alde elkarte aurretan... Alardearen ibilbideak ere zentzu bat dauka".



Oihana antzezlanaren momentu bat. ATX TEATROA

Transmisioa eta identitatearen eraikuntza hizpide dituen lana

Domeka honetan 19:00etan izango da 'Oihana. Sorginak ote dira?' antzezlanaren, Zairaia aretoan

I.B. ARETXABALETA

Itzulik, ATX Teatroak eta El Puntoguneak aurkeztutako *Oihana. Sorginak ote dira?* antzezlanaren izango da domekan, 19:00etan, Arkupeko Zairaia aretoan.

Maryse Urrutyren gidaritzapean, Barbara Rivas, Arantxa Hirigoyen eta Joana Olasagasti izango dira oholta gainean, zientzia fikziozko eta sorginkeriar buruzko istorioa antzeztzen. 10-12 urtetik gorako ikusleei zuzendutako lanak 50 minutuko iraupena du, eta sarrerak bost eurotan erosi daitezke. *Aretxabaleta.eus* webgunean.

Dantza eta antzerkia uztartuta

Antzezlanaren sustatzaileen hitzetan, obra honetan honako hau transmititu nahi da: "Ibilbide errituala da, eta erdigunean feminismoa, elkartasuna eta maitasuna pausatzen ditu. Biharamun eguzkitsu batekin amesten dugulako. Ekofeminismoa, hizkuntzaren gaitasun magikoa, zientzia fikzio utopikoa... Iturri askotatik edaten du eta dantza eta antzerkia uztartuz transmisioari eta identitatearen eraikuntzari buruz hitz egiten digu, publiko zabal batengana heltzeko asmoarekin".



2019an Arrasaten ospatu zuten Txistularien Egunean, Portaloian gora kalejiran. GOIENA

Gaba Baltzaren baitan, kontakizun ilunen lehiaketa

Ate-joka dago Gaba Baltza, eta, eguna ospatzeko, hainbat ekin-tza antolatuko dituzte. Ekintza horien artean, Aretxabaletko Loramendi elkarteak deituta, kontakizun ilunen lehiaketa antolatu dute.

Gehienez orri bateko luzera duten kontakizunak aurkeztu beharko dira, formatu librean egin ahal izango dira eta urriaren 28a baino lehen entregatu beharko dira. Udaletxe zaharreko egoitzara eramán daitezke lanak, edo posta elektronikoz bidali honako helbide honetara: euskara@loramendielkarte.eus. Irabazlearentzako saria Aretxabaletko liburu-dendetan erositako liburu-sorta izango da.

OHARRAK

Kirol-nutrizioaz

Kirol-elikaduraren gaineko hitzaldia antolatu du UDAK, Aike Nutrikirolekin batera. Hilaren 25ean izango da, 18:30ean, Ibarra kiroldegian. Aurrez izena eman behar da.

Mikologia hizpide

Mikologiaren bueltan jardungo du Unai Fernandez adituak, *Onddoak biodibertsitatearen giltzarri* hitzaldian. Hilaren 25ean, 19:00etan, Arkupen.

Immigrazioa berbagai

Amelia Barquinek egingo du berba, *Zubi bat euskaratik* hitzaldi zikloaren baitan. Arkupen izango da, hilaren 26an, 17:30ean.



Eskoriatzako Udalaren jabetzako ortuak, Torrebaso. IMANOL BELOKI

Torrebasoko ortuak eskatzeko epea zabalik

29 partzela daude hiru lursailetan banatuta, eta bakoitzak 60 metro karratu ditu. Ortuak erabiltzeko interesa duten eskoriatzar guztiek urriaren 28ra arte izango dute eskaerak aurkezteko. Presentzialki, udaletxean, edo online egin daiteke

Imanol Beloki Unamuno **ESKORIATZA** Torrebaso dauden aisialdiko udal ortuak 2004an jarri ziren martxan, eta, Eskoriatzako Udalean eskaera eginda eta baldintzak beteta, horiek erabili ditzakete herritarrek. Lursail horiek autokontsumorako eta nekazaritza-ekoizpenerako soilik dira, eta adinez nagusiak diren pertsonen denbora libre modu aberasgarrian betetzea da Eskoriatzako Udalak eskaintzen duen aukera. Horrekin batera, nekazaritza tradizionalaren erabilera eta ohitura batzuk berreskuratzea da asmoa, produktu naturaletan oinarritutako elikadura osasungarria bultzatuz.

Gaur egun, 29 partzela daude, hiru lursailetan banatuta, eta bakoitzak 60 metro karratu ditu. Eskaerak egiteko epea irekita, momentuz hamasei eskaera egin direla jakinarazi dute Eskoriatzako Udaletik: "Eskaera nahikotxo izaten dira, beti dago mugimendua, baina egia da oraindik ortu batzuk libre dau-

dela". Hori horrela, eskaerak aurkezteko epemuga urriaren 28a izango da, 14:30ean.

Baldintzak, udal webgunean

Baldintzei dagokienez, Eskoriatzako Udalarekiko zerga betebeharrak egunean izatea nahitaezkoa da; pertsona bakoitzak ortu bakarria erabiltzeko baimena lortu ahal izango du; bizikidetzaren unitate bakoitzari ortu bakarria erabiltzeko baimena emango zaio, Eskoriatzako erroldatuta egotea edo egoitza soziala izatea, gutxienez urtebeteko antzinatasunarekin, ezinbestekoa izango da; orturik jabetzan ez izatea... Horrekin batera, esleipenerako lehentasun-hurrenkerara jarraituko da.

**ORTUAK ESKATZEKO
BALDINTZAK
ESKORIATZAKO UDAL
WEBGUNEAN DAUDE
IKUSGAI**

Lursailleko partzela guztiak eskatu eta banatu arren, interesdunek edozein unetan eskatu ahal izango dute udal baratze bat erabiltzea, nahiz eta une hartan ortu librerik ez egon. Izan ere, eskatzaileen zerrenda bat egongo da, eta, ortuak eskuragarri egon ahala, zerrenda horretan izena emandakoei esleituko zaizkie.

Erabilera eta arauak

Ortu baten erabilera baimentzen zaion pertsonaren erantzukizuna izango da instalazioen mantenua eta horien osasungarritasun, segurtasun eta apaindura egokia. Gainera, erabiltzaileak baimendu zaion lursaila bakarrik erabili ahal izango du. Bertatik lortutako barazkiak etxean kontsumitzeko bakarrik izango dira, debekatuta dago horiek saltzea. Debeakututa egongo da ortuetan animaliak edukitzea, zaintzea, haztea edo ustiatzea edo maskotak egotea; lotuta edo aske egon...

GORA ETA BEHERA



Mazmelan argiteria jartzen izan dira asteon

Zerbitzu elektrikoek arduratzen diren Tecuni enpresakoek farol bat jarri dute Mazmela elizateko Basauria elkartearen pareko aparkalekura zuzenduta, eguzki-plakarekin. Horrekin batera, beste argi bat ere jarri dute kanposantuko sarrera alboan.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus
edo 688 69 00 07.



Udaletxean izango du kokapena Ekiolako arreta-bulegoak

Energia Aldaketarako Europako Estrategia eta Euskal Energia Trantsizioa bultzatzeko eta gauzatzeko sortutako ekimena da Ekiola. Kooperatiba gisa, komunitate energetikoak sortzea du helburu, eta Leintz bailaran eskainiko da zerbitzua.

Hori horrela, Eskoriatzako arreta-bulegoa astelehenean jarriko dute martxan. Herritarrek informazioa lortzeko, zalantzak argitzeko eta, interesa badute, kooperatibaren parte izateko aukera izango dute, eta honako hau da ordutegia: 08:00etatik 20:00etara. Arratsaldeetan aurretiko hitzordua hartu beharko dela azpimarratu dute Ekiolako arduradunek.

Literatura solasaldiak hasita, euskarazko irakurketa hurrengoa

Atzo, eguena, Patrick Radden Keefe autorearen *No digas nada* liburuaren gaineko solasaldia izan zuten literatura solasaldien taldeko kideek, Monica Leivak gidatuta. Datorren astean, urriaren 27an, berriz, Eider Rodriguez idazlearen *Eraikuntzarako materiala* liburua izango dute aztergai, kultura etxean, 18:00etan. Mikel Antzaren gidaritzapean egingo dute saioa, eta eguneko liburua irakurrita izatea gomendatzen da.

Literatura solasaldietan parte hartu nahi duten interesdunek bibliotekan galdetu dezakete, *biblioteka@eskoriatza.eus* helbidera idatzi edo 943 71 31 35 telefono zenbakira deitu.



Elorreta Goikoko jaiak, lehenengoz, era xumean

Bost hitzordu nagusirekin osatu dute zapatuko programazioa Elorreta auzoko bizilagunek. Hitzordu guztiak herri osora irekita egongo dira, auzo-bazkaria izan ezik. Hala ere, gainontzeko ekintzetara herritarrak gonbidatu nahi izan dituzte

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA Eskoriatzako herrigunetik Bolibar elizatera bidean dagoen Elorreta auzoan jaiak ospatuko dituzte, lehenengoz, zapatu honetan. Elorreta Goikoko jaiak; izen horrekin bataiatu dituzte, eta, egitarau xumea antolatu duten arren, bertako bizilagunak ilusioz daude egunerako. Batzuek lan gehiago eta beste batzuek gutxiago egin arren, denek jarri dute euren aletxoak gustuko programa antolatzeke, eta aste honetan zehar Karmelo Oñate Elorreta auzoko ilustratzaileak egindako egitarauaren kartela ikusi ahal izan dute eskoriatzarrek herriko zenbait txokotan.



Elorreta Goikoko haurrak jaietako karteekin. KARMELO OÑATE

Funtzionatuko duen asmoarekin Elorretan bizi den Juan Sangre aritu da hango programa lantzen, beste hainbat auzokiderek in batera, eta azpimarratu du bertako bizilagunak denbora luzez daudela jaiak antolatzeke gogoz: "Aspalditik geneukan auzokideok batu eta egun eder bat antolatzeko gogoia. Auzoa berri samarra da, eta, elkar ezagutzen garen arren, harremanak estutzeko hitzordua izango da. Horretarako, ekintza xumeak antolatu ditugu, eta pozik gaude antolatu dugunarekin".

Bazkaria eta ekintza irekiak Egun osoko jaiak izango dute zapatuan, eta, guztira, bost hitzordu nagusi antolatu dituzte: "Haurrendako jolasak, ardo berezien dastaketa, auzo-bazkaria, Nhil taldearen kontzertua eta DJ Motoren saioa izango ditugu. Haurrendako jolas ezberdinak izango dira 11:30ak inguruan hasita, eta helduendako, berriz ardo berezien dastaketa izango da. Ostean, paella-jana izango dugu. Honako hitzordua bakarra da egitarauan, bertakoentzat antolatu duguna; gainontzekoak herri guztiarentzat irekiak izango dira. Aurreikusten dugu 50

NHIL TALDEAREN KONTZERTUA IZANGO DA, 17:30EAN, FORMATU AKUSTIKOAN

Zapatuko egitaraua

Hitzordu guztiak Elorretan egingo dituzte.

Zapatua, urriak 22

- **11:30** Haur jolasak.
- **13:00** Ardo berezien dastaketa.
- **15:00** Auzo-bazkaria. Paella-jana.
- **17:30** Kontzertua: Nhil akustikoan.
- **20:00** DJ Moto. Andoni Motoren saioa.

13:00etan, txosna irekiko dute eta gheritar guztiei gonbidapena egiten diete antolatzaileek bertaratu daitezen.

lagun inguru batuko garelaz bazkaltzeko, eta *catering* bat arduratuko da jana prestatzeaz. Gero, Nhil taldearen emanaldia izango dugu, eta, kasu honetan, espazio faltagatik, formatu akustikoan gauzatzea erabaki dugu emanaldia. Amaitzeko, berriz, musikaz girotuko du auzoa DJ Motok, hau da, Andoni Moto eskoriatzarrak".

Kantu moldatuak

Aretxabaletarrak, eskoriatzarrak eta arrasatearrak kide dituen Nhil taldeko bi musikari soilik igoko dira oholtzara Elorreta Goikoko jaietan formatu akustikoan kontzertua eskaintzera: Beñat Arrieta eskoriatzarra eta Sara Alonso aramaiarra. "Sara abeslaria eta biok izango gara kontzertua eskaintzen. Talde handiko formatuan barik, zerbait txikiagoa nahi zurten antolatzailleek, eta, beraz, piano eta gitarra akustikoarekin gure kantuen moldaketa akustikoak eskainiko ditugu. Seguruenik, bertsio bat edo beste ere izango dute entzungai bertaraten direnek, baina, oraindik zehaztu gabe dugu...", adierazi du Beñat Arrieta musikariak.

Fikzioak errealitatean duen eragina ikusarazteko antzezlan


'Hiru kortse, azukre asko eta brandy gehiegi' antzezlan izango da domeka honetan, Zaldibar antzokian

I.B. ESKORIATZA

Domekan, 19:00etan, Kamikaze Kolektiboak eta Ttak Teatroak eskainitako *Hiru kortse, azukre asko eta brandy* gehiegi antzezlan izango da Zaldibar antzokian. Sarrera bost eurotan dago salgai; alde aurretik kiroldegian erosi daiteke, edo *bibe.me* webgunean. Hala ere, egunean bertan leihatilari ere erosi ahal izango da.

Hausnartzeko saioa

Fikzioak errealitatean duen eraginari buruzko antzezlan da. Oholtza gainean hiru emakume eta galdera bat: *Gero eta fikzio gehiago kontsumitzen dugula jakinik, non geratzen zaigu begiz jaten dugun hori?* Lan honetan, gazteek aktoreen jolas etengabearen eta umorearen bitartez hainbat gairen bueltan hausnartzeko dute.



Antezlanaren une bat. KAMIKAZ

Emanaldiaz gain, saioaren amaieran, ikusitakoaren gaineko solasaldia egingo dute, eta, aurretik, DAPekoen eskutik, ikusleak elkartu eta lanari buruz dituzten aurreiritziak eta bestelakoak partekatuko dituzte, 18:00etan, kultura etxean.

John Dealer & The Coconuts-en emanaldia Inkernun

Legazpiarren rock-and-rolla izango da entzugai gaur, egubakoitzean, 22:30ean, Inkernu tabernan. John Dealer & The Coconuts taldea emanaldi bizia emateko asmoz igoko da Inkernuko oholtza gainera, eta, besteak beste, The Hellcopters Suediako garage-rock eta hard-rock taldearen kutsuko kantuak eskainiko dituzte.

'Historias de media X' liburua aurkeztuko dute gaur, Zaldibarren

Jaione Fernandez de Jauregik hirugarren liburua argitaratu du, eta gaur egingo du lan berraren aurkezpena, Zaldibar antzokian, 19:00etan. Aurkezpena egiteko, Vanessa Gonzalez ipuin kontalari eta bakarrizketa-ariaren laguntza izango du; izan ere, liburuko kontakizunetako batekin bakarrizketa eskainiko du arrasatearrak. Eki-

Atxorrotx Kultura Elkartek antolatutako emanaldi honekin, udazkeneko programarekin hasiko dira. "Barruko denboraldia hasiko dugu gaur; hau da, hemendik aurrerako kontzertuak Inkernu barruan egingo ditugu. Dagoeneko landu dugu programa, eta datak iristen joan ahala iragarriko ditugu saioak. Hala ere, aurrerapen gisa, azaroaren 19an, Eskoriatzako Euskaraldia- ren jaietan DJ Jotatxo izango dugu, eta ardo dastaketa, berriz, azaroaren 26an izango da".

taldia amaitzeko, liburuen salmenta eta luntxa izango da.

Eskoriatzarrak 17 kontakizun erotiko proposatzen ditu *Historias de media X* liburuan, plazera modu naturalean kontatuz: "Sexu esplizitua duen kontakizun sorta da. Aurretik idatzi nituen liburuak testu laburrez osatu nituen, poesia oinarri. Oraingoan, sexua gure bizitzaren parte dela adierazi nahi nuen, eta kontakizunek umorea eta maitasun handia dute, errespetu handiarekin kontatutakoak".

Bidezidor berriekin eta ibilbide laburragoarekin

Zapatuan 09:00etan hasiko da aurtengo EskoXtrem mendiko bizikleta martxa, Fernando Eskoriatza plazan. Bi ibilbide izango dira, luzea 37 kilometrokoa eta motza 26 kilometrokoa, eta parte-hartzaile kopurua 300 lagunera mugatutakoa izango da

Imanol Beloki Unamuno **ESKORIATZA** EskoXtrem martxa urte luzez egin da uztaileko lehenengo asteburuan; gero, urrian antolatzen hasi ziren, eta aurtengoa ere urrian izango da, zapatuan, inoiz ez bezala –lehen, domeketako hitzordua izaten zen–, eta berrikuntzekin dator proba.

Bi ibilbide prestatu dituzte mendiko bizikleta martxarako: luzea, 37 kilometrokoa eta 1.700 metroko desnibel positibokoa; eta motza, 26 kilometrokoa eta 1.100 metroko desnibel positiboa duena. Aurten, gainera, Jarindo

inguruetan barik, herriaren beste aldeko lursailak lekualdatu dute ibilbidea, eta honako hauek izango direla aukerak adierazi du Iñigo Viterik, bizikleta martxako antolatzaileetako batek: "Ibilbide luzean, Fernando Eskoriatza plaza–Bolibar–Agiña–Atxorrotx–Uxar–Makatzgain–Hiruerreketa–Gure Ametsa bidea egingo dugu. Bertan anoa-postua izango da, eta ibilbide luzea eta motza bertan desbideratuko dira. Luzeak Gure Ametsatik Landa aldera eramango ditu parte-hartzaileak,

eta bertan hiru bidezidor gainditu beharko dira –Kalabera, Kalagora eta Whisler–, Gure Ametsara bueltatu eta, Gatz Bidea eginda, Fernando Eskoriatza plazan amaituko da. Ibilbide motzean, berriz, lehenengo anoa-postura iristean, Gure Ametsara, bertatik Gatz Bidea jaitzita amaituko dute proba. Amaieran, DJ Moto izango da plaza girotzen, eta salda, txoria, tortillak eta Pertuttiko piz-zak izango ditugu txirrindularientzat".

Proba egingarriagoa

Kilometro aldetik, laburragoak izango dira aurtengo bi ibilbideak, eta teknikoki ere samurragoak, Viterik adierazi duenez. "Jende asko aritu da proba prestatzen, eta ibilbide luzea egiten dutenek Landa inguruko hiru bidezidorretan izango dute oztopo gehien, baina baita dibertsioa ere. Hamar kilometroko bidea izango da bertan, zailtasun teknikoekin osatuta".

Egunean ere izen-ematea

300 parte-hartzaileendako mugatuta, izena eman ez duen despiasturen bat balego, probaren egunean 08:00etatik 09:00ak bitartean aukera egongo dela izena emateko gogorarazi dute.



2019an, EskoXtrem mendi bizikleta probaren une bat. IMANOL SORIANO

Erreka garbitzen

Erreka Eguna izan zen joan den zapatuan, eta eskoriatzarrak ere batu ziren ekimenera. Erreka garbitzeko hamabost lagun inguru batu ziren Santa Marina plazan. Bertan zakar-poltsak hartu, eskularruak eta botak edo katiuskak jantzi eta erreka jaitzi ziren. San Pedro parrokia eta Santa Ana auzo arteko zatian aritu ziren garbiketa egiten.



ESKORIATZAKO UDALA



Gatzaren Eguneko edizio batean, bertako produktua saltzen. GOIENA

Gatzaren kultura sustatzeko, label kalitateko jaia domekan

Gatzaren Egunaren seigarren edizioa ekintzaz beteta egongo da, bi gune nagusirekin: plaza eta museoa

Imanol Beloki GATZAGA

Gatzagako ondareari balioa emateko, Gatzaren Eguna ospatuko da domeka honetan. Gaur egun, zero kilometroko gatz ekoizten da herrian, Eusko Label kalitatekoa, eta, beraz, produktu izarra ez da faltako bertan, baina, gatzaz haratago, bertako eta sasoiko produktuak ere izango dira gatzaren eta produktu ekologikoen azokan. Guztira, hogeitu inguru izango dira San Migel enparantzan, eta hura izango da jaiaren erdigune. Hala ere, goiz osoan zehar bestelako hitzorduak ere izango dira: men-

di ibilaldiak, zurezko plaza jokoak, Jakoba Errekondoren kontsultategia, sukaldaritza tailerra, bisita gidatuak Gatz Museoa, gatz-xaboiak egiteko tailerra...

Bi aukera interesgarri

Mendi ibilaldiei dagokionez, bi proposamen egin dituzte: *Gatz kulturak eman digun paisaia eta bioaniztasuna eta Gatzaga mendebaldeko pagadietan zehar*. Horietan izena emateko aukera dago oraindik, Debagoieneko Mankomunitatera deituz –943 79 64 63 / 943 71 89 11–.



IMANOL BELOKI

Uste baino zabor gehiago

Hiruerreketa da Deba ibaiaren sorlekua, eta, beraz, bertako erreka garbi jaitziko zen aurreikuspena zuten gatzagarrek. Hala ere, taldetxo bat zen joan zapatuan Gatzagako erreka zenbait eremu garbitzeko, eta Gatzainuzketako Mendi Etxeak dauden eremutik Gure Ametsa bitartean, esaterako, plastiko dezente batu zuten.



Rosa Errazkin, Gorka Artola, Ainhoa Lete eta Fanny Alonso, eguaztenean, museoan egindako aurkezpen agerraldian. JOKIN BEREZIARTUA

Ehungintzak herrian utzi zuen arrastoa desagertu aurretik, 'Kotoizko kafeak'

'Bergarako ehungintzaren bizi istorioak' ekimena aurkeztu dute asteon, oihalgintzan lan egiten zutenen eta haien gertukoaren ahozko ondarea kafe baten bueltako solasaldietan grabatzea helburu duena; lehen solasaldia urriaren 26an egingo dute

Jokin Bereziartua BERGARA

Jakinekkoa da Bergara herri erreferentea izan dela ehungintzan. Baina benetan zein garrantzi izan du ogibide horrek herrian? Nola sentitzen dute bergarrek oihalgintza? Galdera horiei eta beste batzuei erantzuteko asmoarekin, *Begarako ehungintzaren bizi istorioak* ekimena egingo dute Laboratorium museoan. "Askotan komentatu izan dugu ehungintza industriaren arrasto asko eta asko galdu egin ditugula. Industria bera ezingo dugu berreskuratu, baina saiaturako gara, gutxienez, testigantzetan oinarritutako ondarea berreskuratzen eta gizarteratzen", adierazi zuen eguaztenean aurkezpenean Gorka Artola alkatea.

Ehungintzan lan egin zuten pertsonen testigantzak jaso eta industria horrek herrian izan

duen eragina aztertuko dute. Hala, herritarren testigantzak jasotzeko, *Kotoizko kafeak* izeneko solasaldiak gidatuko dituzte Fanny Alonsok eta Anne Galarragak, Laboratorium museoarekin elkarlanean.


Langile ohi baten proposamena

Fanny Alonso bera izan zen *Kotoiaren emakumeak* izeneko erakusketako zuzendaria; hain zuzen ere, 2021eko ekainaren 25ean Laboratoriumen bertan ireki zen erakusketatik dator




GORKA ARTOLA
BERGARAKO ALKATEA

"Industria bera ezingo dugu berreskuratu, baina saiaturako gara testigantzen bidez ondare hori guztia errekuaritzen eta ondoren gizarteratzen".



ROSA ERRAZKIN
LABORATORIUM MUSEOKO ARDURADUNA

"Azaroaren 16an San Joxepe erretiratu elkartean aurkeztuko dugu ekimena, oihalgintzarekin bizipen gehien izan zituzten herritarren bila".



FANNY ALONSO
'KOTOIAREN EMAKUMEAK' ERAKUSKETA

"Ez ditugu emakumeak bakarrik elkarrizketatuko oraingoan, gizonezkoak ere izan zirelako lanean ehungintzan. Testigantza horiek ikerketa osatuko dute".



Kotoiaren emakumeak erakusketaren irekiera, iazko ekainean. J. BEREZIARTUA

Aurrekaria, 'Kotoiaren emakumeak'

Begarako ehungintzaren bizi istorioak ekimenaren aurrekaria 2021eko ekainaren 25ean ireki zen *Kotoiaren emakumeak* erakusketan izan zen. Algodoneran lan egin zuten emakumeak izan zituzten protagonista ekimen hark; proiektuaren bigarren zatia dator orain.

bigarren ekimen hau. Alonsok Algodonerako langile ohi baten partetik jaso zuen proposamena, erakusketako bisita gidatuetako bat amaitu ostean. "[Langile ohiak] esan zidan erakusketak asko gustatu zitzaizola baina San Antonioko Algodoneraz bakarrik egiten genuela berba, eta faltan igartzen zuela berba egitea Bergaran izan zen ehungintza-industriaren barruko gainerako enpresen inguruan. Horri buelta batzuk ematen hasi nintzen eta erabaki genuen zerbait egin behar zela". Proiektuaren bigarren zati honi begira egin dutena eta egingo dutena zehaztu du Alonsok: "Orain arte egin duguna da ehungintzaren gaineko ikerketa bat, artxiboetan eta dokumentuetan begiratuta. Hemendik aurrera, *Kotoiaren emakumeak* erakusketarekin egin genuena egingo dugu: in-

dustria horretan lan egin izan duten pertsonekin berba egin, baina ez Algodonerakoekin bakarrik, baizik eta baita beste lantokietakoekin ere. Oraingoan ez ditugu emakumeak bakarrik elkarrizketatuko, gizonezkoak ere izan zirelako lanean ehungintzan. Testigantza horiek guztiak alde aurretik egindako ikerketa osatzera etorriko dira".

Txoko iraunkorra museoan

Etorkizunean txoko iraunkorra jarri nahi dute Laboratoriumen. Museoko arduradun Rosa Errazkinnek testigantzen garrantzia azpimarratu du, eta, horretarako, besteak beste, San Joxepe erretiratuen elkartera joko dute: "Azaroaren 16an San Joxepen aurkeztuko dugu ekimena, oihalgintzarekin bizipen gehien izan zituzten herritarren bila".

San Joxepekoaz gain, hiru hitzordu zehaztu dituzte kafe baten bueltan beste hainbat testigantza ere jasotzeko. Urriaren 26an, azaroaren 9an eta azaroaren 23an 16:00etan elkartuko dira museoan; langile ohiez gain, haien senide eta gertukoak ere erakarri nahi dituzte. Kafe bakoitzean hiru edo lau pertsona bilduko dira, haien bizipen eta oroitzapenez hitz egiteko. Solasaldi guztiak grabatu egingo dira, ondare hori guztia memoriari gordeta gera dadin. Eta, ekimenak iraun bitartean, ehungintzarekin zerikusia duen edozein irudi edo objektu jasoko dute museoan.

Jokin Bereziartua BERGARA

Bergarako EAJko udal taldea ez dator bat EH Bilduren Udal Gobernuak 2023ko ordenantza fiskalen harira egindako proposamenarekin. Udal Gobernuak "herriarrei kalitatezko udal zerbitzuak" eskaini ahal izateko 2023ko udal zergak eta tasak, oro har, %4 igotzea proposatu zien oposizioko taldeei. Proposamen hori egiterakoan, Udal Gobernuak gogora ekarri zuen 2022. urterako eta 2022-2023ko ikasturterako igoera %3,3 izan zela, eta KPIa %6,5ekoa zela orduan, eta gaur egun KPIa %9an dagoela. Hala ere, EAJk "argi" dauka ez dela igoerarik egiteko momentua, eta zergak izozteko eskaera egin diote EH Bilduren Udal Gobernuari: "Argi daukagu, ez da igoerarik egiteko momentua. Negua badator, eta badirudi gogorra izango dela guztiontzat, herritarren ondoan egin behar dugu. Udalak ezin du herritarra gehiago estutu".

Izan ere, jeltzaleen ustez, zergak izoztu arren, Udala eskaintzen diren zerbitzuen kalitatea bermatzeko gai da, eta bestelako zerbitzuak gehitzeko arazorik ere ez luke izango: "Alegia, kudeaketa eraginkorrarekin eta planifikazio zehatza izanez gero, Udala 2023an etorriko denari aurre egiteko gai izango litzateke, zergak izoztuta ere. Baina, noski, berriz ere EH Bilduren politika agerian geratu da: kudeaketa eraginkorra egin ordez,



EAJko zinegotzi Maite Agirre, Angel Murgiondo eta Martin Etxaniz, asteon, batzokian. EAJ

"Argi daukagu ez dela zergak igotzeko unea"

Urriaren 24ko osoko bilkuran onartzekoak diren 2023rako ordenantza fiskalen bueltan, EAJk uste du ez dela momentua EH Bilduren Udal Gobernuak proposatzen duen %4ko igoera orokorra aplikatzeko: "Ezin ditugu herritarrak gehiago estutu"

bide errazena aukeratu dute, herritarren egoera aintzat ez hartzea eta zergak igotzea".

Foru Funtsa, inoizko handiena

Bestalde, EAJk azpimarratu du Diputaziotik inoizko diru sarrearik handiena lortuko duela Udalak, Foru Funtsaren bitartez: "Udalak 11.962.243 euro jasoko

ditu Foru Funtsetik. Horrek esan nahi du 2022an aurreikusitakoa baino 800.000 euro gehiagoko diru sarrera izango duela 2023an. Kopuru hori egoki kudeatuz gero, Udalak arazorik gabe jarrai dezake kalitatezko zerbitzuak eskaintzen, baina hor dago EH Bilduren arazoa eta gabezia".

Gerakina ere badagoela diote

EAJk gogoratu du, bestetik, Udalak baduela gerakina datorren urteko erronkei heltzeko: "2023an Udalak izango dituen erronkei aurre egiteko beste diru sarrera bat izango du, eta arlo honetan ere kudeaketa ereduak berebiziko garrantzia izango du. Momentu honetan, esfortzua Udalak

egin behar duela uste dugu, eta ez herritarren gain beste zama bat jarri". Horrez gain, Udalak azken 25 urteetan egindako tasa, zerga eta prezio publikoaren igoerak ere kontuan izan beharrekoak direla gaineratu dute: "Igoera horiek KPIaren aldaketen gaineratik doaz, %7 altuago. Beraz, aurten igoerarik ez aplikatzeak ez luke atzerapenik ekarriko".

Negoiazioetan oraindik

Negoiazioetan ordenantzak ez igotzearen alde "azken unera arte" lan egingo dute jeltzaleek: "Erantzukizunez jokatu behar dugu egungo egoera ekonomikoaren aurrean, bergararrak eta sektore ekonomikoa hasiak dira eta prezioen igoeraren ondorioak jasaten. Bergararren erosteko ahalmenean eta haien negozioen kostu finkoetan eragina izaten ari da igoera. Udalzergak ez igotzearen helburua da inflazioaren eragina murriztea, nahiz eta Udala ere nabaritzen ari den haren ondorioa. Horrek behartzen gaitu baliabideak eraginkortasun handiagoarekin kudeatzera, eta hor agerian geratzen da EH Bilduren ahulezia eta gaitasunik eza".

AURREIKUSITAKOA BAINO 80.000 EURO GEHIAGO JASOKO DIRA DIPUTAZIOTIK, EAJ-REN ARABERA



IMANOL SORIANO

Kontseilu Sozialista: Guda Zelaia

Kontseilu Sozialista Deba Bailara taldeak egun osorako egitaraua antolatu zuen urriaren 15erako, Guda Zelaiaaren bigarren jardunaldiaren barruan. Ekida Arte Ekimen Sozialistak antolatutako arte sorkuntzaren gaineko hitzaldia, Moises Azpiazu dantza taldearen emanaldia,

bazkaria kartzela zaharrean –argazkian– eta *Agirretarren bandera* antzeulanaren estreinaldia izan zituzten, besteak beste. Gaur, urriak 21, "gazte langileendako proposamen politikoa" aurkeztuko dute Zubietako zentro sozialistan (18:30) –eskola zaharra izan zena–.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza (ZTB) jardunaldiak, martxan

Atzo aurkeztu zituzten Zientzia, Berrikuntza eta Teknologia (ZTB) jardunaldiak, eta atzo bertan egin zuten lehen ekintza, Seminarioxan: *Makinek euskaraz hitz egiten badakite? Eta Bergarakua ulertzen dabe?* izeneko saioa eskaini zuten Elhuyar fundazioko hizketa-teknologiaren arloko arduradun Igor Leturiak eta Goiena Komunikazio Taldeko zuzendari nagusi Iban Arantzabalek. Gaur, ehungintza jasangarriaren gaineko saioa eta diseinuen erakusketa izango dute Laboratorium museoa (17:00); eta, hurrengo astetik aurrera eta urtea amaitu bitartean, askotariko saioak izango dituzte. Argibide gehiagorako: ztbergara.eus.

Zinemaon: Arantza Santestebanen '918 gau' urriaren 26an

Eguaztenetako Seminarixoko zinema emanaldiez arduratzen den Zinemaon taldeak gogotsu ekin dio ikasturte berriari. Arantza Santesteban zuzendariak *918 gau* lana aurkeztuko du urriaren 26an, 20:00etan. Filmaren ostean, solasaldia egingo dute zuzendariarekin; Santestebanek bere bizipenak batu ditu filmean: 2007ko urriaren 4an atxilotu eta kartzelara eraman zuten, eta 918 gauren ostean aske gelditu zen. Sarrerak www.seminarixoa.eus webgunean eskuratu daitezke, edo leihatilan. Antolatzaileek gogora ekarri dute edonork har dezakeela parte taldean, zinemaon@gmail.com helbidera idatzita edo sare sozialen bidez.

"Energian ere handitik txikira egin behar dugu"

ANDER ZANGITU EHUNDU EGITASMOKO KIDEA

Energia Berriztagarrien Komunitatea urriaren 25ean aurkeztuko dute, UNEDen (18:30); saioaren helburua zehaztu du Ander Zangitu: "Jendea batu nahi dugu proiektura"

Jokin Bereziartua BERGARA

Ehundu egitasmoaren barruko lan ildo ezberdinetan buru-belarri ari da lanean Ander Zangitu (Bergara, 1990); orain bertan, Energia Berriztagarrien Komunitatea (EBK) herriari aurkeztea dute lehentasun.

Zer da urriaren 25ean UNEDen (18:30) aurkeztuko duzuen ekimena?

Trantsizio energetikoari aurre egiteko herri mailan sortu dugun proiektu bat da Energia Berriztagarrien Komunitatea. Ehundu dinamikaren gainerako lan-ildoetan moduan, lankidetzamarko publiko-komunitario baten egingo dugu lan; herritarrak, eragile sozialak eta erakundeak –publikoak zein pribatuak– arituko dira elkarlanean.

Ze bide egin duzue orain arte?

2021. urtearen bukaeran, mahai gainean jarri genuen gaia. 2022 hasieran, Emun aholkularitza enpresarekin, Debagoiena 2030 ekimenarekin eta Goiener enpresarekin hasi ginen prozesua



Ehunduko Ander Zangitu, aurkezpene iragartzeko kartelarekin. THE BADASS PROJECT

martxan jartzen. Hilero 15-20 laguneko talde bat elkartzen ibili gara, etorkizunean sortuko den komunitate horren hasierako oinarria sortzeko. Horretarako, energiaren gaineko formakuntza-saioak jaso ditugu eta, bes-

talde, hiru lantalde banatu ditugu: proiektuen lantaldea, lantalde juridiko-administratiboa eta komunikaziorako lantaldea.

Ze prestatu duzue aurkezpenerako? Orain arteko bidea azalduko dugu eta bertan egon ahal diren

Bulegoaren irekiera, urriaren 27an

Mizpildi kaleko bigarren zenbakian kokatuta dagoen Ehunduren eraldaketa bulegoa urriaren 27an, eguena, inauguratuko dute. "Asmoa da azaroan bulegoa martxan egotea. Energia Berriztagarrien Komunitatearen [EBK] bueltako beharrak ase eta zalantzak argitu nahi ditugu bertan, eta baita bestelako lan-ildoen barruan aholkularitza eta beste zerbitzu batzuk eskaini ere", dio Zangituk. Eta honako hau ere gaineratu du: "Ehundu herri mailako erronka bat izango da, herritik herriarentzat egina, eta askotariko arloetan onura kolektiboa bilatzen duena". EBK proiektua UNEDen aurkeztuko dute urriaren 25ean, baina asmoa da aurrerago auzoetan eta beste leku batzuetan – Enpresare, kasu– ere aurkeztu eta kide berriak erakartzea.

zalantzak argitzen saiatuko gara; proiektuaren lan-ildoak eta helburuak ere azalduko ditugu. Hala ere, aurkezpenearen helburu nagusia izango da norbana-koak proiektura erakartzea; komunitate berri hau herrira zabaldu nahi dugu. Proiektuaren onurez konbentzitu nahi ditugu herritarrak, eta bazkidetza kanpainarekin ere hasiko gara aurkezpenean bertan.

Ze aurreratu dezakezu esku artean duzuen proiektuen bueltan?

Energia sortzeko baliabideak aztertzen ari gara, baina gure lehen proiektua autokontsumo partekatatu bati begira egongo da, plaka fotovoltaikoak oinarri hartuta. Xehetasun gehiago aurkezpenean emango ditugu.

Pil-pilean dagoen gaia da trantsizio energetikoarena...

Trantsizio sozioekologikorako saioetan igarri genuen herrita-

rren artean bazegoela kezka, baina azken asteotan zentralitate handia hartu du gaiak. Aurkeztura geroz gero komunitatearen aspirazioen artean badago etorkizun baten energia sortzea, eta Ehunduren bulegoan energiaren gaineko aholkularitza emango dugu, besteak beste, gure kontsumo ohituretan eragiteko eta gure fakturretan gutxiago ordaintzeko. Bestalde, azken hilabeteotako markoak argi utzi digu formatu handietatik txikitara egin behar dugula salto, oso tokian tokiko baliabideekin gure beharrak asetzen saiatzeko.

"LEHEN PROIEKTUA AUTOKONTSUMO PARTEKATU BATI BEGIRA DAGO, EGUZKI-PLAKAK OINARRI"



UNAI AZKARATE

180 bat lagun erreka garbitzeko

Bergarako erreka garbiketarako lantaldeak hamar urte bete dituela baliatuta, urriaren 15eko Erreka Eguna berezia izan zen Debagoiengan; 600 bat lagun elkartu ziren bailara osora irekitako ekimenean. Bergaran 180 lagun inguru elkartu ziren; bederatzi talde aritu ziren

zuzenean erreka garbitzen, eta horiei gehitu behar zaie zikinkeria jasotzeko taldea eta osteko mokadutxoak egiteko ezinbesteko izan ziren sukaldariak. Hamar urtez jarraian garbitu arren, denetarik atera zuten: farolak, karroak, plastikoak, latak...

OHARRAK

Euskara modu ludikoan praktikatzeko aukera

Euskara apur bat jakinda ere euskaraz berba egiteko zailtasuna dutenak euskaraz natural berba egiten dutenekin elkartu eta berba egitea errazten duen egitasmoa da Berriketari. Astean ordubetez euskaraz berba egitea da helburua. Izena emateko: 943 76 36 61 edo jardunkultura@topagunea.eus.

Bergara Bizi Pop Up azoka, udaberrian

Urriaren 22rako eta 23rako aurreikusita zegoen Bedelkarren Pop Up azoka bertan behera geratu da. Udala konponketa batzuk egiten ari da Oxironon, eta ez dute denborarik izango prestaketetarako. Udaberrian egingo dutela adierazi dute.

Orfeoaren mendeurrenerako logo lehiaketa

2023an 100 urte beteko dituela-eta, Bergarako orfeoia irudi korporatibo berri baten bila dabil. Proposamenak azaroaren 1era arte aurkez daitezke, eta diseinu irabazleak 500 euroko saria jasoko du. Harremanetarako: Bergarakoorfeoialogo@gmail.com.

1959an jaiotako ospakizuna

Urriaren 28an Tartufon afalduko dute. Izena emateko, 50 euro ordaindu behar dira: ES20-3035 0009 1500 9116 1220 (Laboral Kutxa).

"Itzela da 50 urtez igeriketa taldeari eustea"

ASIER PEREZ BERGARA IGERI ELKARTEKO ENTRENATZAILEA

Elkartek 50. urteurrena beteko du bihar Azpeitian abiatuko duten denboraldian; 60 bat igerilari izango dituzte, ahalik eta gehien lehiaketetan izatea helburu dutela

Jokin Bereziartua BERGARA

2018an hasi zen Bergara Igeri Elkartearen entrenatzaile Asier Perez (Bergara, 1998), eta, gaur egun, talde guztien ardura dauka; benjaminetatik hasi eta junior mailara arte, 60 bat igerilariarekin dihardu. Elkartearen 50. urteurrena ospatuko dute denboraldi honetan; atzera begiratuta egindakoaz harro, ilusioz begiratzen diote etorkizunari.

Mende erdia beteko duzue aurten. Bada zerbait...

50 urtez, etenik gabe, igeriketa moduko kirol baten taldea mantentzea bera sekulako lorpena da. Ez dakit zein izan den sekretua, baina bai dela harro



Asier Perez entrenatzailea Agorrosingo igerilekuan, eguazten arratsaldean. A.P.

egotekoa. Lan ona egin da eta egiten da; ikustea besterik ez dago, adibidez, proba bat Bergaran antolatzen denean nola inplikatzaren diren igerilarien gurasoak eta gertukoak.

Igerilari kopuruari dagokionez, nolakoak izan dira azken urteak?

Atzera begiratuz gero, orain bertan Bergarako taldea ere ez dago bere onenean. Bailerako beste herri batzuekin alderatuta, betidanik izan ditugu igerilari gehiago; gogoan dut entrenatzaile sartu aurretik egon zirela urte batzuk kopuru baxuekin... Hori ikusita, orain bertan ez gaude kezatzeko.

Lorpenei dagokionez, ze igerilari nabarmendu da azken urteotan?

Iaz, Ane Alberdik Espainiako txapelketarako sailkatzeko gutxieneko marka lortu zuen. Lorpene oso handia izan zen, urte mordo zirelako ez zela halakorik lortzen. Anerentzat itzela izan zen, baina taldearendako sekulako albistea izan zen. Aurten ere lehiatuko da, infantil mailan.

Oro har, zeintzuk dira denboraldi berrirako helburu nagusiak?

Bergarako taldeko entrenatzaile naizenetik nire lehen helburua

da igerilariak ondo pasatu dezatela, talde moduan ondo funtzionatu dezatela eta giro ona izan dezatela. Behin hori lortuta emaitzak badatoz, ondo baino hobeto. Gipuzkoako txapelketara begira ahalik eta igerilari gehien erroteko ari naiz lanean, gutxieneko markak ez direlako oso zorrotzak; izan ere, zenbat eta igerilari gehiago eroan txapelketetara, orduan eta entrenamendu giro hobea lortzen da. Hau da, marka bat lortzeko lehiatzen ari dena askoz motibatua etortzen da entrenamenduetara marka bati begira ez dagoena baino. Emaitza handirik lortu barik ere, oso garrantzitsua da igerilariak helburu zehatz bat izatea.

Eta zeintzuk izango dira egutegiko hitzordu nagusiak?

Zapatu honetan bertan [bihar] hasiko dugu liga, proba izango dugu eta Azpeitian. Hala ere, guretzat esanguratsuenak izango diren probak ez dira 2023ko otsailera arte izango; otsail hasieran Gipuzkoako txapelketa jokatu da eta handik bi asteira, Euskadikoa. Biak antolatuko ditugu Bergaran.

Manso Optika

Dúo Office
Azken belaunaldiko zure progresibo pertsonalizatuak

%50 ean,
eta, gainera, eraman lente okupazionalak erabat

DOAN

HOYA
FOR THE VISIONARIES

WWW.OPTICAMANSO.COM • 943 76 27 86 • IRIZAR PASEALEKUA 2, BERGARA



Afagi elkarteko presidente Koldo Aulestiak alzheimerri buruzko hitzaldia egin du Kulturaldian. IÑIGO BARRENA KORTABARRIA

Kulturaldian "hurbileko" gaiak landu dituzte

Zahartze aktiboa jardueren bitartez sustatzeko, Kulturaldia antolatu du San Joxepe elkarteak. Bihar amaituko da, herri bazkari batekin, baina, orain arteko balorazioari dagokionez, lehendakariak adierazi du parte hartzaileak "asebeteta" gelditu direla

Amaia Ramirez de Okariz Kortabarría BERGARA

Kulturaldia antolatu du San Joxepe jubilatua eta pentsiodunen elkarteak, 24. aldiz, eta, Nestor Inurrieta lehendakariak azaldu duenez, zahartze aktiboa sustatzea izan dute asmo egitasmoarekin; adibidez, jubilatuen bizikaltate hobetzeko antolatutako jardueren bitartez.

Urriaren 14an eman zieten hasiera ekintzei, eta, orain arteko jardueren gaineko balorazio orokorrik egin ez badute ere, "hurbileko" gaiak lantzen aritu dira. "Nabarmenduko nukeena da hitzaldietan parte hartu dutenen asebetetze maila. Oso pozik gelditu dira eta gaiak ere interesgarriak izan dira". Baina aitoratu du kezka ere baduela bertaratuakoen kopuruarekin. "Tristura sortzen du 20-25 lagun bertaratzeak".

Gai ugari berbagai

Lehen hitzaldian, alzheimerri landu zuten, eta Koldo Aulestiak

Afagi elkarteko lehendakaria izan zen hizlaria. "Esperientzia pertsonala izan zen, eta horrek begiak asko ireki zizkigun". Horrez gain, energiaren fakturari buruz aritu ziren Kepa Loizaga OCU elkarteko arduradunarekin, eta Inurrietak azaldu du banan-banan eman zizkiela aholkuak hitzaldira faktura eta guzti joan ziren jubilatuei. "Azalpen argitzaileak eman zituen, gaur egun asko arduratzen duen gaia baita".

Hitzaldiez gain, ordea, egon da bestelako aisialdirako aukera ere. Besteak beste, irteera bat egin zuten martitzenean Tolosara, eta eguaztenean antzezlan bat eskaini zuen Donostiako itsuen Oroimenak taldeak

INURRIETAK DIO SAN JOXEPEK ERLAZIONATZEKO ESPAZIO BAT ERE ESKAINTZEN DUELA

Seminarixoa. Atzo, berriz, *Oinordetzak eta dohaintzak* hitzaldia izan zuten, Gipuzkoako Foru Ogasunaren eskutik.

Bihar, bazkaria

Gaur, mus txapelketa egingo dute, 15:30ean, San Joxepe elkartearen, baina bihar izango da egun handia nagusienentzat: herri bazkaria egingo dute. "Batik bat, mugikortasun arazoak eta izan ditzaketentzat aukera bat da, haiek ere aprobetxatu dezaten lagunekin egoteko".

Izan ere, Inurrietak uste du erlazioztatzea garrantzitsua dela adin horretan. "Elkarteko leku bat izatea oso garrantzitsua da; bestela, pertsona horiek ez dute eta horretarako aukerarik izango". Erantsi du aktibitateak laguntzen duela bizitza "hobeagoa" izaten, eta hori "oso inportantea" dela. "Horren kontrako etxean egotea da, eta San Joxepe, beraz, era batean laguntzen du horretan ere, zorionez".



Vega, Suinaga, Unamuno eta Linzoain, bandako hasiberriak. IDOIA ARANBARRI ARZUAGA

Lau musikari berri izango ditu Musika Bandak aurrerantzean

Lehen kontzertua eginda, sentsazio "onak" dituzte, eta bandan jarraitzeko "gogotsu" daudela adierazi dute

A.R.K. BERGARA

Bergarako Musika Bandak 190 urte bete ditu aurten, eta hainbat aldaketa izan ditu urte horietan guztietan. 2020a ezker, esate baterako, hamabost gazte sartu dira taldean, eta horietako lauk joan den domekan egin zuten debuta Udal Pilotalekuan eskainitako kontzertuan.

Laida Unamuno eta Aimar Linzoain flauta jotzaileak eta Uxue Vega eta Alazne Suinaga klarinete jotzaileak dira bandako hasiberriak, 14 eta 15 urteren bueltakoak.

Unamunok adierazi duenez, urduri jarri ohi da kontzertuetan, baina bandarekin eginiko lehenengoan ez zuen halakorik sentitu: "Jende gehiena ezagutzen nuen; esaterako, nire aitak jotzen du, eta babestuta sentitu nintzen". Beraz, ez du dudarik aurrera begirakoei dagokienez: "Txikitatik jotzen dut flauta, eta, asko

gustatzen zaidanez, bandan jarraitzea gustatuko litzaidake".

Bada, horixe bera diote Linzoainek eta Vegak ere. "Uste baino gehiago disfrutatu nuen eta sentsazio onak izan nituen, asko entseatu behar den arren", azaldu du Antzuolako flauta jotzaileak, nabarmenduta musika "gogoko" duela eta taldean dagoen giroarengatik ere jarraitzea gustatuko litzaiokeela. Are gehiago, Vegak ere esan du "primerakoa" izan zela kontzertua, eta hasiera besterik ez dela.

Baita orkestran ere

Suinagak ere taldeko giroa nabarmendu du, eta bandan jarraitzeko "sekulako gogoa" duela erantsi. Gainera, Bergarako Orkestra Sinfonikoan ere badabil, baina, klarinetearekin beharrenean, biolinarekin. Hain justu, 2020a ezker sartu diren hamalau gazteetako bat da.

Tartalo jentilaren kondaira kontatuko duen ikuskizuna

Logela Multimedia antolatuta, *Tartalo, gaztaren sekretua* ikuskizuna egingo dute bihar Seminarixoa, 18:00etan. Joxemiel pertsonaiarekin, jentilaren kondaira ezagutuko dute bertaratuek, Gaizka Chamizo, Eneritz Garcia eta Ander Garaizabal aktoreen eskutik. 3 eta 7 urte arteko haurrei zuzenduta dago, eta lau euroko kostua du.

Organoak eta txistuak bat egingo dute Santa Marina elizan bihar

Organo Erromantikoaren 23. Nazioarteko Zikloa ari dira ospatzen Gipuzkoako hiru herritan urrian, eta, tartean, Bergaran. Hala, bihar, emanaldia egingo dute Ignacio Arakistain organistak eta Peio Irigoien txistulariak Santa Marina parrokan, 20:00etan. Eta datorren larunbatean, organo ikasleek hartuko dute lekukoa.



Realaren eta Betisen arteko partidarako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean



GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Reala-Betis partida beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuk eta zuk aukeratutako beste lagun batek: Reale Arena futbol zelaiko tokirik onenetik. Urriaren 30ean, domeka, 21:00etan.

Parte hartzeko azken eguna: urriak 25



Eserlekuak
Premium gunean



Catering
zerbitzua



Aldageletako tunelean
jokalariak ikusteko aukera



Ikus-entzunezko
erabilerak



Atentzio eta zerbitzu
pertsonalizatua



353 metro karratuko
gunea

**Ezin errazagoa da
zozketan
parte hartzea!**



1.
Aplikazioa
deskargatu.

2.
Zozketak atalean sartu
eta parte hartu.

Gertu.
Zorte on!

**goiena[™]
kide**

Okm: batzen gaituen distantzia



www.goiena.eus/kideak



Lur Korta dinamizatzailearen azalpenak jasotzen Herri Eskolako ikasleak, liburutegian, astelehen goizean. M.A.

'Motxila ibiltariak': familia, eskola eta liburutegia lotzeko sarea

Ekimenaren helburua da eskolaren, liburutegiaren eta familiaren zein etxearen arteko sarea osatzea. Hala, liburutegiarekin lehen hartu-eman izateko asmoz, HH3 eta LH2 arteko haurrak gurasoekin txandaka joango dira liburutegira aurrerantzean

Maidar Arregi ANTZUOLA

Abian da Antzuolako Herri Eskolan Galtzagorri elkartearen *Motxila ibiltariak* ekimena. Ilusioz eta gogotsu jaso dute asteen eskolako neska-mutikoek ekimenaren berri. Adi-adi, astelehenean, Lur korta dinamizatzailearen eskutik izan dute *Motxila ibiltariak*-en inguruko argibideak entzuteko aukera.

Ekimenaren nondik norakoak eta xehetasunak zeintzuk diren azaldu du Kortabarriak: "Herri bakoitzeko liburutegietan hainbat motxila daude, eta ikaste-txeetatik gerturatzen dira motxila horiek betetzeko asmoz. Motxila horietan liburuak daude gomendio gisara, eta haur bakoitzak aste bakoitzean aukeratu ditu gustuko dituen hiru bat liburu etxera eramateko; etxean irakurri ondoren, euren gelakideei erakusten eta

kontatzen diete. Ondoren, motxila beste ikaskide bati igarotzen die, hark, modu berean, gustuko liburuak aukera eta lan dezan. Modu horretan, 17 ikaskide badira, askotariko liburuak ezagutuko dituzte eta horien inguruan berba egingo dute. Ikasleak bere gustuko gauzak azalduko ditu eta protagonismo uena ere izango du".

Irakurzaletasuna xede

Liburutegira joatea, irakurzaletasuna sustatzea, ipuinak ezagutzeko, besteei ezagutaraztea... helburu asko dituela ekimenak

IRAKURZALETASUNA SUSTATZEKO EKIMENA HH3 ETA LH2 BITARTEKO IKASLEENDAKO DA

nabarmendu du Lur Korta ipuin kontalariak.

Ondorio positiboak

Antzuolan lehen urratsak egin dituen arren, *Motxila ibiltariak* ekimena bailaran aski ezaguna da eta dinamikak dakarren onurak asko direla aitortu du dinamizatzaileak: "Haurrak eta familiak liburutegietara eta liburutetara gerturatzeko modua da. Oso ondo funtzionatzen duen ekimen borobila dela uste dut. Egiten dugun balorazioa oso positiboa da. Izan ere, gertatzen da 5-6 urteko haur batek liburutegia ez ezagutzea".

Hala, asteen abiatu dute Herri Eskolako haurrek ekimena. Zehazki, HH3 eta LH2 arteko ikasleendako egitasmoa da, eta astelehenean liburutegiko bisita gidatua parte hartze ona erakutsi zuten, gainera.

"Antzuolarrek eleberri beltza irakurtzea dute gustukoaren"


ANE LETURIA LIBURUTEGIKO ARDURADUNA

Lierni Legorburuk erretiroa hartu berri du, eta Ane Leturiak, 34 urteko azkoitiarrak, hartu du Liburutegiko ardura. Hark dihardu eskolarekin *Motxila ibiltariak* ekimena koordinatzen. Euskaraldiaren eta euskara ikastaroen berri ere eman du.

Zer moduzko harrera egin dizute antzuolarrek?

Oso ona. Adinekoak gerturatzen dira, nagusiki, eta eleberri beltza dute gustuko. Herri txikia da, eta, liburutegiko lanez gain, Gazteria eta Euskara arloko lanak ere egiten dituzte; herritarrek *liburutegia@antzuola.eus* helbidean kontakta dezakete nirekin.

Zer moduz doa Alaine Agirrek gidatzen duen *Irakurketa kluba*?



ANE LETURIA

Harrera bikaina izaten ari da; batez beste, bederatzita bat lagun elkartzen gara irakurketa taldean. Oso talde parte hartzailea da, gustura elkartzen gara bi hilean behin. Hurrengo azaroaren 24an izango da, eguena, 18:30ean, liburutegian. Miren Agur Meaberen *Hezurren erretura* eleberria izango dugu;

aztergai taldea irekia da eta nahi duen oro etor daiteke. Era berean, irakurleek gustukoaren dituzten pasarteak azpimarratuta ekartzea gomendatzen du Agirrek.

Euskara ikasteko talderik sortu da aurretik?

Bai, hiru talde sortu dira. Talde batek iazkoari jarraipena emango dio; bigarren taldeak, berriz, lehen urtea izango du; eta hirugarren taldea maila handiagokoa da. Taldeak hasi dira lanean jada, baina izena eman nahi duenak oraindik badauka aukera. Gainera, Antzuolan erroldatutakoek euskara ikasteko laguntzak eskatu dituzkete, urriaren 31ra arte. Liburutegian bete dezakete inprimakia interesa dutenek.

Euskaraldiko Batzordea sortuta?

Bai; orain dela bi aste sortu zen seiko taldea, eta badoa martxa onean, eta egingo diren ekimenak antolatzen dihardute.

Autoestimua eta osasuna sendotzea, erronka

Antzuolako Eguneko Zentroak azaroan egingo du ate irekien jardunaldia. Asmoa da herritar orori zerbitzuen eta askotariko jardueren berri ematea, bertatik bertara. Aurrez, ordea, zentroak dituen erronkak, helburuak eta asmoak jakinarazi ditu

Maidar Arregi ANTZUOLA

Pertsona aktibo egotearen onurak askotarikoak dira. Izan ere, jarduerak –fisikoak, kognitiboak zein sozialak– menpekotasunari aurre hartzen laguntzen dute, baita osasuna zein autoestimua sendotzen eta gogo-aldarteak hobetzen lagundu ere.

Hain zuzen ere, Antzuolako Eguneko zentroak horixe aldarrikatzen du, zerbitzuak dituen baliabideen bitartez nagusien gizarteratzea eta bizitza aktiboa sustatzea. "Eguneroko bizitzan adineko askok beraien kabuz etxean jarduera horiek egiteko zailtasunak eta oztupoak izaten dituzte. Horretarako, Eguneko Zentroak baliabide ezin hobeak izan ohi dira, gizarteratzea eta bizitza aktiboa baitira baliabide horien helburu nagusiak", azaldu du Eguneko Zentroko arduradun Itsaso Garmendiak.

Modu berean, Eguneko Zentroa eguneroko bizitzako ekintzak egiteko laguntza behar duten pertsonen zuzenduta ere badago, eta arreta individualizatua eskaintzen diete. "Konfiantzako ingurune segurua, lasaia eta atsegina sortzen saiatzen gara Antzuolako Eguneko Zentroan lan egiten dugun profesionalok. Erabiltzaileak ezagutzeko eta haren parte hartzea bultzatzea oinarritzekoak dira gure funtzionamendu egokirako, eta, horregatik, erabiltzaileen eta beraien familiarterkoen iritziak kontuan izatea ezinbestekoa da", gaineratu dute.

Azpimarratu nahi izan dute zailtasunak eta askotariko laguntza behar dituztenendako ez ezik, sasoiko daudenendako lekua ere badela, arestian esandako moduan.

Azaroan ate irekiak

Azaroan, gainera, ate irekiak egingo dituzte, bertan egiten dituzten jarduerak eta eskaintzen dituzten zerbitzuen berri izan



Eguneko Zentroko egoiliarak. ANTZUOLAKO EGUNEKO ZENTROA

dezaten herritar guztiek, hain zuzen ere.

"Herritarrei Eguneko Zentroa erakutsiko diegu azaroan, eta bertan egiten dugun lana gertutik ezagutuko dute. Sagasti auzoko Torresoroako egoitzan dago kokatuta zentroa. Betidanik herritarren beharretara egokituta egon gara; horregatik, edozein zalantzararako eta dituzten beharrak entzuteko, harremanetan jarri daitezke Gizarte Zerbitzuen Sailarekin, 943 76 62 46 telefono zenbakira deituta. Zentroa ezagutu eta ikusi nahi izanez gero, nirekin jarri daitezke interesa dutenek, 679 11 17 28 zenbakian", jakinarazi du Itsaso Garmendia arduradunak.

Hamabi egoiliar daude eguneko zentroan; bi gizonezko eta hamar emakumezko. Hala ere, hemeretzirendako lekua dauka.

**KONFIANTZAZKO
INGURUNE SEGURUA,
LASAIA ETA ATSEGINA
SORTZEN SAIAZTEN
DA EGUNEKO ZENTROA**

Erabiltzaileak, gustura



**CARMEN
MOURE**
ERABILTZAILA

"Orain dela 11 urte hasi nintzen etortzen. Etxean gelditzeko arazorik ez neukan, etxeko lanak egiteko gai nintzen eta egunerokotasunean moldatzen nintzen. Hala eta guztiz ere, zentrorra etortzea erabaki nuen, konpainian egoteko. Inoiz ez naiz damutuko erabaki hori hartu izanaz. Hemen inon baino hobeto nago, egunero jendez inguratuta nago eta nahi ditudan ekintzak egiten ditut: koadroak, marraztu, paseatu, gimnasia egin, kanpoko irteerak... Sukaldean ere aritzen gara! Zenbat gauza egin ditudan 11 urte hauetan...".



IMANOL SORIANO

Auzolanean garbitu dute erreka

Erreka Egunera batu ziren zapatu goizean antzuolarrak ere. Auzolanean ibili ziren erreka garbitzen, goizetik, eta hondakin ugariz betetako poltsak atera zituzten Deskarga errekatik. Bailaran, Deba ibaia garbitzeko lanetan ere makina bat plastiko eta hondakin atera zituzten debagoiendarrek, hainbat herritan egindako deialdiekin bat eginda.

Birgaitzen planaren bigarren deialdia egin du Gizarte Zerbitzuak

Profil sozioekonomiko zaurgarria duten familia antzuolarrak etxebizitzetan isolamendua jartzeko Birgaitzen planaren bigarren deialdia egin du Udal Gizarte Zerbitzuak. "Etxeko hormak intsuflazio bidez isolatzeko laguntzak dira. Etxekoen egoera ekonomikoaren arabera esleituko dira laguntzak, eta horien barruan sartzen dira intsuflatze gastua eta udal baimenaren tasa, % 100ean", argitu dute.

Informazio gehiagorako, jo Gizarte Zerbitzura; aurrez txanda hartu behar da, 943 76 62 46 telefonora deituta. Eskerak aurkezteko epea, urriaren 17tik azaroaren 4ra bitartean, Gizarte Zerbitzuetan edo udaletxean.

OHARRAK

Kontsumoa berabagai

Publizitatearen trikimailuak tailerra gaur, Olaranen, 16:30ean, Landatxoperen eskutik.

Aiherra Eguna

Domekan ospatuko da aurtengo Aiherra-Antzuola eguna, Aiherran.

Dokumentala

Hilaren 26an, Torresoroan, 18:30ean, *Errekak bizirik* dokumentala izango da ikusgai.

Ipuin kontaketa saioa

Urriaren 30ean, *Gau beltza* ipuin kontaketa saioa egingo du Ixabel Agirresarobek, liburutegian, 17:00etan.

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

**MUJIKA
HARATEGIA**

Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrak eta oilaskoak
Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

AGINTALDI AMAIERAKO ELKARRIZKETAK

"EH Bilduren Gobernua behea jota dago"

AINZANE OIARBIDE IRURETAGOiena EAJ-KO UDAL TALDEAREN BOZERAMAILEA
Lau urteko agintaldia amaitzear, balorazio gazi-gozoa egiten dute jeltzaleek.
Oposiziotik ilusiorik eta proiekturik gabeko Udal Gobernua ikusten dute

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA

Elgetak "aire freskoa" behar duela uste du Aintzane Oiarbidek (Errenteria, 1964). Oposiziotik, bozeramaile jeltzaleak uste du norabide "oso arriskutsua" hartu duela Elgetak bi agintaldiotan, eta herritarrek "ilusio-natuko dituen proiektua" behar dutela.

Agintaldiari buruzko zein balorazio egiten duzu?

Pobrea, iluna, ilusiorik gabekoa, proiekturik gabea. Udaletxean sartzen zarenean hezetasun usaina dago geroz eta gehiago, bazter guztietan trasteak, osoko bilkuren aretoak trasteleku bat dirudi, utzikeria da nagusi. Gela batzuk ezin dira erabili, dagoen hezetasuna eta prekaritatea dela eta. Horixe da Udal Gobernuaren isla. EH Bilduren Gobernua behea jota dago. Etorkezuneko proiekturik gabe jarraitzen du, eta herritarrek geroz eta urrutiago ikusten ditut. Aire freskoa behar du Elgetak, eta herritarrek ilusio-natuko dituen proiektua. Herriari dagokionez,

mantentze-lan enpresa besterik ez da Udala. Bestalde, aurrekontuetan jartzen dituzten lehentasunak ere ez dituzte betetzen. Makina bat aldiz sartu dute San Roke kalea konpontzea, baina berdin jarraitzen du, okerrera eginez. Irisgarritasuna geroz eta okerragoa da, lurzorua arriskutsu dago leku askotan. Elgetako gazteak geroz eta gehiago beste herri batzuetara joaten dira. Oso norabide arriskutsua hartu du Elgetak, eta lehenbailehen buelta eman beharra dago, herri erakargarriagoa izan dadin bizi-modua bertan egiteko.

Nolako harremana izan duzue Udal Gobernuarekin?

Harreman pertsonalak onak izan dira; azken batean, denak gara pertsonak, baina harreman politikoak, zenbaitetan, desero-



Elgetako EAJko udal bozeramaile Aintzane Oiarbide. GOIENA

"AGINTALDIA IZAN DA POBREA, ILUNA ETA ILUSIORIK ETA PROIEKTURIK GABEKOA"

soak izan dira, oposizio bat izatea eta kritikak mahai gainertzea ez baitute ondo hartzen.

Oposiziotik zein gaitan eragin duzue, batez ere?

Herriko altzariak zaintze lanetan, plazako etxea errefuxiatuei lagatzen, frontoiko teilatuan eguzki panelak jartzea ere gure programako eskaera zen. Gainontzean, guk proposatutako gaiak ez dituzte aintzat hartu: industrialdearen eta enpresen egoeraren berri ez digute eman, eta ez dute hauekin harremanik ere. Gardentasuna eskatu dugu parte hartze prozesuetan, eta erantzunik ez, eta aurrekontuetan ere ez dute islarik izan jendeak eskatutakoak. Bestalde, urte zailak pasatzen ari gara pandemiarekin eta energiaren krisiarekin, eta zergak ez igotzea eskatu dugu,

"MANTENTZE-LAN ENPRESA BESTERIK EZ DA UDALA; EZ DAGO ETORKIZUNEN PROIEKTURIK"

kontuan izanik Udalak dirua jaso duela Foru Funtsetik. Aurten, adibidez, Udalak 783 euro jasoko ditu elgetar bakoitzeko, eta, hala ere, %4ko igoera aplikatuko dute zergatan. Ekiola kooperatibaren aldeko apusturik ere ez dago guztiontzat argindarra sortzeko eta argindar hori guk kudeatzeko.

Elgetarren bizi-kalitatea hobetzeko zein proposamen egin dituzue?

Ingurumena eta bertan energia sortzearen inguruko ekimenak, garai zailetan tasak ez igotzeko eskaerak, ekonomiaren garrantziari balioa ematea.... Guk ez dugu ulertzen udalerrri batek daukan motor ekonomikorik garrantzitsuenarekin batera lanik ez egitea udal batek. Nabaria da ezker abertzalearen kultura horretan enpresak jaun-

txoen eta jabeen negozioa besterik ez dela, eta Elgetako Udal Gobernuak ez dauka enpresengana hurbiltzeko kulturarik. Enpresetako parterik garrantzitsuenak langileak dira. Langileak enpresaren parte dira. Soldatak ezinbestekoak dira, eta enpresek ordaintzen dituzten zergak ere bai, herri batek behar bezalako zerbitzuak izan ditzan. Ezerezetik ez dago ezer ateratzerik. EH Bilduren Udal Gobernuak ez du hori ulertzen.

2023ko aurrekontua lantzen dihardu Udal Gobernuak. Zein proposamen dituzue?

Guretzat garrantzitsua da garai zail hauen aurrean elgetarrak kontuan izatea eta zerbitzuak bermatzea. Pertsonak dira helburu guretzat. Garrantzitsua da aurrekontuan lehentasunak islatzea -herriaren lehentasunak- aurrekontu sendo eta erreal bat eginez. Orain arte, itxurazko aurrekontuak izan dira, gero betetzen ez dituzten lehentasunetan. Oraindik ez dugu aurrekontuen zirriborrorik jaso.

Bide Azpiegiturarako foru diputatua zara. Zinegotzi lanarekin batera garria izan da? Ondo moldatu zara?

Ez da erraza izan. Ordu asko ematen ditut diputatu, baina beti saiatu naiz parte hartzen, batzordeetara ahal nuenean joaten eta Udalaren osoko bilkura ia guztietan hartu dut parte. Bestalde, Bide Azpiegiturarako diputatu eta zinegotzi izateak Elgetaren bide azpiegituren egoeraren ezagutza handiago eman dit, eta, ondorioz, Foru Aldunditik ere ari naiz elgetarren bide segurtasunaren alde lanean. Bizkaiko Aldundiarekin akordioa egin dut Kanpanzar gaineko bidegurutzean ikuspen handiagoa emateko, bidegurutze hori hobetuz. Laster hasiko dira lanak. Bestalde, Elgeta eta Kanpanzar arteko bidea zabaldu egingo dugu; aurreproiektua eginda dago, eta proiektua idazten ari gara. Lan horiek ere datorren urtean egingo ditugu. Garrantzitsuak izanongo dira elgetarrentzat.

Zerrendaburu aurkeztuko zara hurrengo udal hauteskundeetan? Hasi zarete zerrendak prestatzen?

Zerrendaburu ez, baina alderdikideek erabaki beharreko kontua da. Oraindik ez dugu barne prozesua abian jarri, baina ari gara jendearekin lanean.

Igoerarik ez udal tasa eta zerga gehienetan

%4ko igoera izango da ondasun higiezin zergan eta trakzio mekanikoko ibilgailuenean

L.Z.L. ELGETA

Asteon elkartu da Elgetako udalbatza, eta 2023ko udal tasen eta zergen inguruko erabakia hartu du. Iraitz Lazkano alkateak azaldu du zerga gehienetan ez dela igoerarik aplikatuko. Salbuespena izango dira, %4ko igoerarekin, ondasun higiezin zerga, trakzio mekanikoko ibilgailuen zerga, jarduera ekonomikoaren gaineko zerga eta gainbalioko zerga. Lazkanok gaineratu du sarrera txikiak dituzten familiek %90 merkeago izango dituztela udal zerbitzuetako tasak.

Oposizioa, izoztearen alde

EAJko bozeramaile Aintzane Oiarbidek proposamenarekiko desadostasuna agertu du. Argudiatu du negua nahiko gogorra izango dela, batik bat, familia zaurgarrientzat, eta zergak eta tasak izoztearen alde agertu da. Foru Funtsetik aurreikusitakoa baino diru gehiago helduko dela gogoratu du, eta esan du Udalak diru hori baliatu beharko lukeela zergak igo barik aurrera egiteko. Iraitz Lazkanok erantzun dio Udalak badituela bitartekoak zaurgarrienak babesteko, eta baliabide propioen eta funtsen arteko oreka bilatzearen alde agertu da.

OHARRAK

Ipuinen ordua

Kontalaritza saio bereziak gaur liburutegian. 17:30ean HH3tik LH1era arteko umeak, eta 18:30ean LH2tik LH5erakoak.

Gabonetako loteria

Elgetako EAJren Gabonetako loteria nahi duenak Maria Jesus Leteri edo Begoña Ardanzari eskatu behar dio azaroaren 14rako.

Kanpandorreko erlojua martxan da berriz ere

Egun batzuk beharko dira sistema elektronikoa berriak doikuntzak behar dituen jakiteko, baina orratzak bere lekura itzuli dira eta kanpai hotsa entzuten da atzera ere. Erlojugile adituak diren Suescun anaiak atzo goizean izan ziren kanpandorrean

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA Martitzenean heldu ziren Suescun anaien Gasteizko tailerrera Elgetako kanpandorreko ordularirako propio egindako elektromazoak. Kanpaiak jotzeko piezak dira elektromazoak, eta Kantabriako Hermanos Portilla artisau-etxean egin ditu Abel Portilla maisu galdatzaileak.

Ordurako, Alfonso eta Pedro Suescunek gertu zituzten ordulariari irailaren 23an kendutako orratzak, eta baita jarri beharreko sistema elektronikoa berriz ere. Hasi batean aurreikusitakoa baino luzeagoa izan da itxaronaldia, baina jasotako materialarekin pozik dira erlojugileak, eta ahal bezain pronto bueltatu dira Elgetara erlojua atzera ere martxan jartzera.

Luze jo zuen goizak Elgetako kanpandorrean atzo. Iragarrita ez zeuden zaparradaxoak ere izan ziren, eta goian asko sumatzen dira haizea eta euria.

Zailtasunak zailtasun, Suescun anaiek bi elektromazo berriak jartzeko zereginari ekin zioten. Sistema elektronikoa berriz ere jarrita dago, eta Pedro Suescun kanpandorretik zintzilikatuta ikusi zuten herritarrek garbitu, txukundu eta margotutako orratzak bere lekura itzultzeko. Hala, zehaztasun hobea, mantentze-lan

KANPANDORREKO ERLOJUA ORRATZIK GABE EGON DA IRAILAREN 26A EZKERO

gutxiago eta programatzeko aukera emango duen gailu berria dago aurretik zegoen sistema mekanikoaren ordean. "Gure ustez, egokiagoa da Elgetarendako. Erabiltzaileek ez dute alderik sumatuko, eta erlojuak hobeto

funtzionatuko du", azaldu du Alfonso Suescunek.


1698an egindako kanpaiak Udalarena da kanpandorreko ordulariaren ardura, eta egokitze lanok 7.000 euro inguruko aurrekontua dute. "Erloju ona duzue Elgetan. Kanpandorrean dauden erromatar estiloko bi kanpaiak ere asko gustatzen zaizkit. Jartzen du 1698. urtean egindakoak direla. Gutxi izango dira sasoi hartakoak izanda martxan dauden kanpaiak", esan du Alfonso Suescunek.



Alfonso Suescun, Kantabriako egindako elektromazoetako bat kokatzen. L.Z.L.

Orratzak bere lekuan, atzera ere

Kanpandorrera igotzea beti da abentura bat. Erlojuaren orratzak esku artean edukitzea, zer esanik ez. Minutuak adierazten dituen orratzak 1,2 metroko luzera du. "Atera kontuak esferak ze diametro duen. Erlojua ez dago iparraldera begira. Erloju-orratz horiek ez lukete urteetan arazorik eman beharko", azaldu dute Suescun anaiek.



Pedro Suescun, kanpandorretik zintzilikatuta, orratzak bere lekuan kokatzen. L.Z.L.



Alava Sarea sortu zuten lau emakumeak. SABINO ARANA FUNDAZIOA

Erresistentziako emakumeek sortutako Alava Sarea

Memoria Jardunaldien azken hitzaldian, historiak ikusezin bihurtu dituen emakumeak protagonista

L.Z.L. ELGETA

Bittori Etxebarriak (Elizondo), Tere Verdesek (Bilbo), Delia Laurobak (Donostia) eta Itziar Mujikak (Donostia) sortu zuten Alava Sarea. Espetxean zituzten senideei laguntza emateko hasi ziren kartzeletara joan-etorriak egiten, eta laster konturatu ziren zerbait gehiago ere egin zezakete. Hala, espioitza-sare bat ehuntzen joan ziren, eta informazio oso baliagarria helarazi zioten erbestean zegoen Eusko Jaurlaritzari. Josu Chueca historialariak ikerketa-lana egin du Emakume Abertzale Batzako

kide zen emakume talde honek sortutako sarearen inguruan. 30-50 pertsona inguruko sarea osatu zuten, eta heldu ziren Kataluniako zein Errepublikako gobernuen dokumentu sekretuak mugaz bestalde pasatzera.

Alava Sarea 1940an jausi zen, Gestapo Eusko Jaurlaritzaren Parisko egoitzan sartu zenean. Sareari esker bildutako dokumentazioa aurkitu zuten bertan. Etxebarria, Verdes, Lauroba eta Mujika espetxeratuak izan ziren beste 30 bat kiderekin batera. Heriotza-zigorren kondonatuak, aske irten ziren, azkenean.



L.Z.L.

Bigarren erreka, garbiago

Zapatuan erantzun polita izan zuen Bigarren erreka ingurua auzolanean garbitzeko egindako deialdiak. Etsigarria da zenbat zabor atera daitekeen goiz bakar batean, baina sentsibilizazio-ariketa interesgarria da bai helduendako bai umeendako, eta horrela adierazi zuten gehienek. Giro ederrean aritu zen lantaldea, udal arduradunen gidaritzapean.



Gaztetxo batzuk Zubikoa kiroldegira sartzen martitzen goizean. O.E.G.

Udal zergak %4 igotzea da aurreikuspena

Udal Ordenantza Fiskalak %4 igotzea, hobari berriak eta horiek emateko oinarri ezargarrien eguneratzea proposatu ditu Gobernuak 2023rako. Dio "arduraz" hartutako erabakia dela, "zerbitzu publikoa eskaintzen eta herritarrei laguntzen" segitzeko

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Datorren urteko udal zergen igoera orokorra %4 izatea proposatu du Udal Gobernuak, "dezente murriztagoa, KPIaren %10eko igoera ezohikoa dela iritzita". Egoera hori izanda, "ohiko helburuei heldurik" segituko lukeela dio Udal Gobernuak: "Kalitatezko zerbitzu publikoak eskaintzen eta egoera zaugarrian dauden eta behar handiena duten herrikideak zein herriko zenbait elkarte diruz laguntzen".

Hobariak handitzea

Udal Gobernuaren esanetan, "arduraz" landuriko proposamena da 2023ko Udal Ordenantza Fiskalena: "Ezohiko egoera ekonomikoa bizi dugu. Etorkizuna ere ziurgabetasunez dago josirik. Dena den, horrek ezin gaitu eroan herria gelditzera. Kalitatezko zerbitzu publikoak eskaintzen segi beharra dugu, herrikideak eta elkarteak laguntzen, unean uneko beharrei erantzun

egokia ematen, etor daitekeena behar moduan heltzen, proiektu berriak abiarazten... Beharrezkoa da arduraz eta seriotasunez jokatzeko".

Proposamen honetan, hobariak emateko oinarri ezargarrien zenbatekoen eguneraketa datorrela ere badiu Udal Gobernuak. Gehieneko muga igotzea proposatzen du Ondasun Higiezinaren Gaineko Zergan eta Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Gaineko Zergan, Udal Euskaltegiko zerbitzuan tasan eta udaleku irekietako zein ludotekako matrikuletan. Ostera, Langileen Gutxieneko Soldataren eguneraketa proposatzen da Zubikoa kiroldegiko hobarien tauletan, muga 13.300 eurotik 15.000 eu-

DIO PROPOSATUKO HOBARIEI ESKER HERRITAR GEHIAGOK LUKETELA HORIEK JASOTZEKO AUKERA

rora igota. Baita guraso bakarrek familiak familia ugarien kontsiderazioa jasotzea ere. "Proposamen horiei esker, herrikide gehiagok izango lukete hobariak jasotzeko aukera".

Hobari berrien artean aipatzen ditu, adibidez, etxebizitzaren energia eraginkortasuna sustatzeari loturikoa. Harekin, Ondasun Higiezinaren Gaineko Zergan, kuota osoaren %50eko hobaria lortuko lukete A motako efizientzia energetikoaren etiketa luketen edo lortuko luketen ondasun higiezinak. Bestetik, trantsizio ekologikoari begirako neurri moduan, CO2 isuri baxuak dituzten ibilgailu berrientzako hobariak ere proposatzen ditu.

Osteguneko osoko bilkuran

Oposizioa asteon zen ematekoa txostena Udal Gobernuari. Martitzeko Ogasun batzordean landuko dute gaia alderdi bietako ordezkariak eta egunean, hilak 27, eztabaidatuko dute, urriko ohiko osoko bilkuran, 18:30ean.



NIRE USTEZ

MANU EGAÑA TXOPITEA

'Glory days'

Bruce Springsteen *Glory days* entzunez irakurri.

Heltzea uko egiten jakitea da. Etapa batetik bestera ibiltzean, erantzun batzuk bazterten ikasten dugu, eta, horrela, heltzen goaz. Entseguz eta hutsegitez, nekez eta nekez, gure gizatasuna elikatzen goaz, eta erorikoek zuhurtziaz ibiltzen irakasten digute. Bizitza ez da bere buruari bira ematen dion gupil zoro bat. Espiral bat da, jatorrizko egoerara itzultzen bada ere, inoiz ez baita modu berean bihurtzen. Ez gaude harrapatuta betiko itzuleraren zirkuluan. Gure antzinako harremanetako akatsek aukera ematen digute gaur egungoetan hobeto moldatzeko. Lanean egin genituen hutsegiteek ahaztuko ez ditugun lezioak eman zizkiguten, eta harri berarekin bi aldiz estropezu ez egiteko aukera eman ziguten. Oker geunden eta ikasi egin genuen. Erratu eta ikasiko dugu. Bedeinkatuak izan bitez, beraz, nire akatsak! Goraipa itzazue nire hanka-sartzeak! Izan ere, horiei esker, lehen baino baldintza hobean nago funtsezko galderari erantzuteko: zein da bizitzaren zentzua? Gure *glory days* bakarrak oraindik bizitzeko ditugunak dira eta.

Elikagaien bilketa egingo du Hotz Oñatik asteburuan

Asteburuan egingo du Hotz Oñatik urteroko elikagaien bilketa. Gaur, egubakoitza, eta bihar, zapatua, herriko janari-dendetan egongo dira Hotz Oñatiko boluntarioak herritarrei poltsak eta informazioa banatzen. Lekaleak, kontserbak, olioak, pioxihalak, konpresak, irina, arroza eta pasta jasoko dituzte. Bildutakoa Zaporeak eta Errefuxiatuen Red Sos elkarteei emango diote, Lesbosen eta Atenasen banatzeko. Garaje baten pilatuko dute jasotakoa, eta asmoa da datorren astean bidaltzea kamioia. Produktu horiez gain, barra energetikoak ere eskatuko dituzte, *Aita Mari* itsasontzikoendako.

Eguenean emango dute 'Errekak bizi' ikus-entzunezkoa

Deba ibaiaren eta haren adarren gaineko *Errekak bizi* ikus-entzunezkoa emango dute datorren astean. Askotariko gaiak landu dituzte dokumental horretan Debagoienean Errekak Bizi Auzolanean ekimenak eta Goienak elkarlanean. Errekak historian zehar izan dituen funtzioak, aisialdiarekin lotuta izan dituen aroak eta errekupeazio lanekin eta biodibertsitatearekin lotutako gaiak landu ditu. Baita aurreko zapatuko erreka garbiketarako emandakoa. Eskoriatzan estreinatuta zuten, eta, orain, herriz herri ari dira eskaintzen. Oñatin egunean, urriak 27, 18:00etan, zinema aretoan. Sarrera doan da.

Baimendutakoak bakarrik pasako dira astelehenetik

Zirkulazioa erregulatzeke, matrikulak irakurtzen dituzten totem handi bana jarri dute Ramon Irizar eta Motxon kaleetan. Astelehenetik aurrera, baimendutako ibilgailuak baino ezingo dira pasatu 12:00etatik 07:30era eta jaiegunetan. Baimekin ez duen ibilgailuarendako gorri jarriko da semaforoa. 200 eurokoak izango dira isunak.



Ramon Irizar kalea.

Autlan zigortu dute, neurriak ez betetzearren

Azido sulfurikoazko laino azidoen gehiegizko eraginpean izan eta beharrezko prebentzio neurriak ez hartzeagatik zigortu du Autlan Emd enpresa Eibarko epaitegiak. Horietako biri kalte-ordainak ordaindu beharko dizkie enpresak

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Eibarko epaitegiak Autlan enpresa zigortu du osasun prebentzio neurriak ez betetzeagatik, ELA eta LAB sindikatuak astean jakinarazi dutenez. Biek osatzen dute enpresako komitea eta elkarrekin aritu dira afiliatu banaren kasuak epaitegietan defendatzeko; epaiak eskatutakoa jasotzen duela adierazi dute: lan-gaixotasuna aitortua duten bi langileren kontratua irautgiztea eta kalte-ordaina jasotzea.

Especialistek aztertuta

Hogei urte baino gehiago egin dituzte Jose Luis Fernandezek -2001etik- eta Jose Antonio Fernandezek -1998tik- Autlan -2020ra arte Cegasa- enpresan lanean azido sulfurikoarekin zuzeneko kontaktuan. "2017an jakinarazi ziguten osasuneko neurri higienikoak hartzen hasi zirela; ordura arte ez zuten inoiz egin. Urtebetera, lanerako maskarak jantzi behar genituela esan ziguten, lan-lekuko giroa osasunerako toxikoa zela esanez, eta langile guztiendako neurriak hartzea eskatu genuen sindikatutik, langileak mediku espezialistek aztertzea. LAB sindikatuaren laguntzarekin lortu genuen Osakidetzako pneumologoek artatzea, Mutualiaren bi-



Jose Luis Fernandez eta Jose Antonio Fernandez, Autlan enpresaren aurrean. O.E.G.

tartez. Bederatzi langilek egin genituen probak eta bostek positibo eman genuen; arnasbideak kaltetua genituela ikusi zuten. Ordurako hainbatek narbitzen zuten arnas falta, adibidez, eta kendu bako eztula. Probak egin genituen Galdakaon eta lan-gaixotasuna onartu ziguten bosti. Enpresak, baina, ez ditu onartu gure patologiak. Egoera luzatu egin da eta guk biok erabaki genuen kontratua irautgiztea, dirurik hartu barik, eta enpresa auzitara eramatera prebentzio neurriak ez betetzea-

gatik. Epaia gure aldekoa da, baina errekurritu egingo dutela esan digute". Gaineratu dute enpresari eskatzen diotela langile guztiendako neurriak hartzea eta probak Osakidetzako espezialistek egitea.

Enpresak ez, oraingo

Enpresarekin ere jarri da harremanetan GOIENA, auziari buruz esatekoa duena jasotzeko. Erantzun du epaiketaren sententzia irakurri gabe dutela eta hori egin arte ez dutela adierazpenik egingo.



Eguaztenean Eltzian egindako lehen bileran ateratako talde argazkia. OÑATIKO UDALA

Abiatu dute Emakumion Etxia eraikitzeke prozesu irekia

Bii lan ildo jarraituko dituzte: etxea bera eraberritzea eta parte-hartze prozesua. Biak eskutik joatea gura dute

O.E.G. OÑATI

Emakumion Etxia irudikatzeke parte-hartze prozesuaren lehen bilera irekia egin zuten eguaztenean Eltzian, eta prozesu "zaindua" izatea gura dutela adierazi zuen Izaro Elorza alkate eta Berdintasun Saileko batzordeburuak. "Espazio erosoak sortzea eta zainduak sentitzea. Denok parte hartu ahal izateko baliabideak eskainiko ditugu. Tartean, eztabaidak eta gatazkak ere sor daitezke, eta horiei ere lekua emango diegu. Helburua akordioetara iristea izango da. Guztiaren eritmoak eta joan-etorriak errespetatuz".

Berdintasun teknikari Jone Arriolabengoak aipatu zuen, era berean, etxearen beharra ikusten zutela Emakumeen Etxearen inguruko diagnostikoa egitekoan galdetu zieten herritar guztiak. "Orain, bi lan-ildo ditugu: etxea eraberritzea eta

parte-hartze prozesua. Biak eskutik joatea planteatzen dugu".

Beste eredu batzuk ezagutu

Parte-hartze prozesuak hainbat premisa izango ditu eta Udaletik ikuspegi komunitario, feminista eta ahalduzaila nabarmendu zituzten, baita inklusioa, interseksionalitatea eta elkarbizitza ere. Horrez gain, hiru konpromiso ere hartu ditu Udalak: proiektua martxan jartzeko beharrezko baliabide pertsonal eta ekonomikoak eskaintzea, aniztasuna kudeatzeko tresna egokiak eskaintzea eta parte-hartze prozesu zaindua eskaintzea.

Beste emakume etxe batzuetako esperientziak ezagutzeko beharra ere ikusi dute, eta bi irteera antolatu: azaroaren 4an Zumaiara eta Azpeitira eta 18an Hernanira eta Donostiara. Izena emateko: berdintasuna@onati.eus edo 688 62 12 13.



Gualbi
aholkularitza

ZERGA, KONTABILITATE ETA
LAN ARLOKO AHOLKULARITZA

ABOKATUAK
KONTU IKUSKARIAK

Bezero guztien beharrei erantzuteko prest!



Euskadi Etorbidea, 6 (OÑATI) • 943 78 16 48 • onati@gualbiasesores.com • www.gualbiasesores.com

Txani Rodriguez izango da Oñatin martitzenean

Idazlea, 2021eko Euskadi Literatura sariduna, liburutegian izango da hilaren 25ean (18:30), Tertulixan gaztelaniazko taldearen saioan, eta Monica Leivak egingo ditu dinamizatzaile lanak. Saioa irekia izango da joan nahi duenarentzat

Iñigo Barrena Kortabarria OÑATI
Urriaren 24an ospatuko da Liburutegiaren Eguna, eta, horren baitan, hainbat ekintza antolatu ditu udal liburutegiak datorren asterako. Azpimarratzeko artean da, besteak beste, iazko Euskal Literatura sariduna, Txani Rodriguez, izango dela gaztelaniazko Tertulixan taldearen ikasturteko lehen saioan. Bertan, haren azken nobelaren *Los últimos románticos* inguruan hitz egiteko aukera izango da, idazlea bera bertan dagoela, eta aukera zinez interesgarria edonorentzat.

Gainera, Rodriguezen azken lanak izan duen arrakastak beste urrats batzuk egingo ditu datozen hilabeteetan. Alde batetik, jakina da Irusoin ekoizteak pantaila handira eramango duela eleberria, eta, bestalde, Italian eta Turkian ere eskuragarri izango dute Txani Rodriguezen testua. Datorren astearteko saiora itzulita, berezia izanik, zinema aretoan egingo da eta irekia izango da parte hartu nahi duenarentzat. Dударик gabe, aukera paregabea Txani Rodriguez bertatik bertara ezagutzeko eta harekin berba egiteko.

'Heldu da kontua 2022'

Beste hitzordu garrantzitsuetako bat *Heldu da kontua 2022* izango da. Helduentzako ipuin kontalarien euskarazko zirkuitua Oñatin estreinatuko da datorren asteazkenean. Mainer Alzela eta Mireia Delgado izan dira Intujai antzerki konpainiak antolatu duen *Heldu da kontua* kontalaritza sorkuntzako sari-dunak. Ikuskizun bana aurkeztu zuten: *Emeen kemen* Alzelaik eta *Harriak, jostorrazak eta zauriak* Delgado; hain zuzen, azken hau izango da asteazkenean udal liburutegian ikusi eta entzun ahal izango dena. Oñatikoaz gain, zirkuituak beste sei saio



Txani Rodriguez. MARKEL ARRAYAGO

'HELDU DA KONTUA 2022', IPUIN KONTALARIEN ZIRKUITUA, OÑATIN ESTREINATUKO DA

izango ditu urtarrilaren hamahirura bitartean. Besteak beste, azaroaren hamazazpian, arrasaten Mainer Alzelairen *Emeen Kemen* lanarekin gozatzeko aukera izango da. Honako hauek dira hurrengo datak: Azaroaren hemezortzian Barrundian, hurrengo egunean Berrobin, azaroaren hogeita zazpian Iru-raitz-Gaunan, 2023ko urtarrilaren hiruan Tolosan eta, azken, urtarril bereko hamahiruan Zizurkilen. Euskaraz, helduentzako ipuin zirkuitu bat izatearen beharretik sortutako proiektua da *Heldu da Kontua*, eta, urtero, bi ipuin kontalariri zirkuitu honetan parte hartzeko aukera ematea da asmoa.

Urrirako agenda zabala

Liburutegiaren egunetik kanpo, agenda zabala eskaintzen ari dira liburutegitik. Astelehenean

ekin zioten, idazketa lantegiarekin, eta Joxe Mari Iturralde izan zen dinamizatzailea. Asteartean, berriz, Tertulixan euskarazko taldeak ekin zion ikasturte berriari, *Nirliit* liburua irakurritz, eta Miriam Lukik dinamizatu zuen lehen saioa.

Bestalde, urriaren 27an, osteguna, itzuliko dira umeentzako Ostegun Kontalariak, eta lehen saioan Lur Korta ipuin kontalaria izango da, han batzen diren belarriak goxatzen. Saioan parte hartzeko, iaz bezala, gonbidapena eskatu beharko da, eta, hura lortzeko, astelehena ezker zabalik da izena emateko epea. Umearen izena eta telefono zenbaki bat eman beharko dira eta izena ematen dutenen artean zozketa egingo da gonbidapenak banatzeko. Joan ezin duenak liburutegian abisatu beharko du, erreserbako beste pertsona bati gonbidapena eman ahal izateko. Ez da izango, ordea, etxeko txikienek liburutegia ezagutzeko izango duten aukera bakarra, eskolekin adostuta herriko 4 urteko ume guztiak udal liburutegia ezagutzeko bisitak egingo baitituzte, zer aurkitu dezaketen ikusteko.

Eskolarteko 34. mendi lehiaketa jokatu da domekan Oñatin

Goizeko bederatzietan plazan hasita, parte hartzaileek zortzi kilometroko ibilbidea osatu beharko dute

I.B.K. OÑATI

Ikasturte berriko lehen mendi irteera izango da domekakoa, eta Gipuzkoa osotik etorritako LH-5 eta DBH-4 arteko mila mendizale gaztetxo inguru espero dituzte Oñatin. Ia zortzi kilometro eta 370 metroko desnibel positiboa duen ibilbidea osatu beharko dute parte hartzaileek. Ibilbidea osatzeko bi orduko epea aurreikusten dute antolatzailak. Azpimarratu dute ibilbidean zehar ez dela hamaiketarik izango eta nor berea eramane beharko duela. Behin

Foruen enparantzara iritsita, ordea, hanburgesa txiki batzuk, fruta eta txokolatea izango dituzte, baita edatekoa ere.

Sari banaketa

Urtero egiten den bezala, aurten ere, joan den ikasturteko mendi irteera guztietan parte hartu zuten gaztetxoei diploma bana emango zaie, egindako lanaren errekonozimendu gisa. Bestalde, babesleek eta laguntzaileek emandako opariak zozketatuko dituzte bertan dauden ikastetxe guztien artean.

Kantakerixak lanaren aurkezpena gaur Antixenean

Iluntzean (20:00), Antixeneko gaztetxean, diskoa aurkeztu eta zuzeneko emanaldia egingo dute

I.B.K. OÑATI

Arantzazu eta Mirari Sagarzazu ahizpen proiektua da *Kantakerixak Oñatiko kontu zaharrak eta kanta berriak* lana. Hamaugarren mendetik gaur egunera arteko oñatiarren bizipenak jaso dituzte hamaika kantuz osatutako diskoan. Testuak eta kantuen hitzak osatzeko garaian hitzen bilaketa-lana sakona izan dela aitortu dute biek ala biek; kantuen musika eta doinuak, aldiz, herriko hainbat musikari eta kolaboratzaileen laguntzarekin osatu dituzte.

Proiektua ezagutzera eman

Gaurko emanaldian, herritarrei proiektuaren berri eman eta honen nondik norakoak aurkeztea da bi ahizpen nahia; horri, gainera, zuzeneko emanaldia batuko zaio. Bertan, hitzen esanahiaren azalpena emango dute eta disko kanta batzuk zuzenean joko dituzte eta beste batzuk bozgorailuetatik jarri, guztia disko kanta hartzailen laguntzarekin. Disko gehienak saldu-ta dauden arren, emanaldian bertan erosteko aukera egongo da, hamar euroren truke.

Pasadena taldearekin emango zaio hasiera kontzertuen kurtsoari

Gaztelekuan egiten dituzten *matinee* kontzertuen kurtso berria hilaren 30ean hasiko da, domeka (12:30). Hain zuzen ere, folk eta rock doinuekin gozatzeko aukera izango da lehen kontzertu horretan. Sarrerak joan den zapatua ezker daude salgai, Txokolateixan eta Oñatiko Udaren webgunean, sei euroko prezioan.

Superkopak emango dio hasiera Herriko Futbol Txapelketari

Joan den denboraldiko liga txapeladunak, Iturritxok, eta kopa txapeladunak, Albokek, neurtuko dituzte indarrak larunbatean (18:30). Denboraldi berria, ordea, hurrengo asteburuan hasiko da, hamar taldearekin. Weingüter eta Sarutobi taldeak dira berrikuntzak eta Txuskos eta Auschwitz taldeek, berriz, ez dute aurten parte hartuko.



EYHARTS • 112 INGUMA • LETAGIN

Bergarako Seminarixoa | **Urriaren 28a, egubakoitza** | 21:30

Chill out gunea, 20:00etatik aurrera, San Martin plazan, DOAN
Artista gonbidatua: Iban Borgas (DJ BRGS)

Sarrera arrunta **4€** • *Goiena* app-an alta ematen dutenek **2€** • Goienakideek *Goiena* txartela erakutsita **0€**

Azaroak 11

**AIERT • BROKEN LEGACY
SUKENA • BALARRASA**

Azaroak 25

**KTARSIA • ILUMINATIZZ
ERROMINTXELAK • ETXEPE**

Abenduak 16

**ARRAGOA • ISLABAT
ORHI • SINDY BERBENAS**

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Kultura, Lanikidetz, Gazteria
eta Kirol Departamentua



BABESLEAK

Diputación Foral
de Gipuzkoa
Departamento de Cultura,
Cooperación, Juventud y Deporte



Bergarako Udala

LAGUNTZAILEA



ANTOLATZAILEA

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA



Xabier Urzelai Atxa BERGARA

Ivan Velascok, Markel Irizarrek eta Eneko Lizarraldekin duela ez asko hartutako erabakia hartu berri dute Mikel Aristik eta Julen Irizarrek; alegia, txirrindularitza profesionala utziko dute. Gauza bera egin zuten, baita ere, profesionalismoaren atarian geratu ziren Etxabe anaiek eta Iker Eskibekek. Eurretako bakoitzak kirol ibilbide propioa izan du. Batzuenaz luzea izan da, beste batzuenaz lesioek pisua izan dute, eta, esandako moduan, profesionalismora iristean batera agur esan behar izan duenik ere egon da, baita atezoka geratu direnak ere. Bizitzaren legea, horixe bera da.

Mikel Aristiren (Bergara, 1993) eta Julen Irizarren (Bergara, 1995) kasuetan, ibilbidea emankorra izan da. Ez, ez dira txirrindularitzako izarrak izan, horiek gutxi daude munduan, baina ziklismoa barrutik bizi ahal izan dute, gazi eta gozoekin, eta garaipenak ere lortu dituzte. Azken urtean, baina, ez dute bizikleta gaineko lanaz nahi moduan gozatu. Orain, atsedean apur bat hartzeko opor egun batzuk hartu dituzte, eta biek aitortu diote GOIENARI aurrera begira bizikleta kontuek baino gehiago, bestelako erronkek motibatzen dituztela. "Gazteak gara, eta garaiz gaude ikasketei osterara ere heltzeko, edo lan munduan murgiltzeko", dio Aristik.

Zirt edo zart egiteko urtea

Neguan, Julen Irizarrek garbi zeukan denboraldi erabakigarriaren aurrean zegoela. "Neukan guztia emateko asmoz hasi nuen urtea, baina gauzak ez dira nahi moduan joan", adierazi dio GOIENARI erabakia naturaltasunez baneratu duen Irizarrek. "Buruan bizikleta baino ez banu izango, gehiago kostatuko litzaidake erabakia hartzea, baina beste gauza batzuk egin nahi ditut. Etorkizunean ere ez dut neure burua txirrindularitzara lotuta ikusten, asko gustatzen zait ziklismoa, horretan jardun dut ia bizitza osoan, baina beste kontu batzuei helduko diet. Urte politikak izan dira hauek, denetariko momentuak egon dira, bizitzan bertan gertatzen den moduan, baina elite mailako kirola oso lotua da, eta balantzan jartzen duzu dena. Hala, momentu bat iristen da non



Mikel Aristi eta Julen Irizar, Gorklako kantina ondoan. XABIER URZELAI

Agur esateko ordua iritsi da

TXIRRINDULARITZA Debagoiena umezurtz geratu da ziklista profesionali dagokionez, Euskaltel-Euskadiko Mikel Aristik eta Julen Irizarrek txirrindularitza uztea erabaki dute eta. Bizikletatik urrun, bestelako erronkak dituztela aitortu diote GOIENARI

aldatzeko gogoia duzun, gauza berriak egiteko nahiak pisu handia izan du erabakian".

Ordizian, lagunen babesean

Irizarrek udan hartu zuen erabakia, eta, hark aitortu moduan, ofizialki ez baina mentalki uztailearen 25ean Ordiziako klasiakoan hartu zuen erretiroa. Egun hartan denetik egin zuen: lasterketako ihesaldian sartu, bizikletatik erori, altxa eta lasterketa amaitzeko kapaz izan, eta

"BIZIKLETA GAINEAN JARRAITZEKO AUKEREK EZ NINDUTEN KONBENTZITZEN"



MIKEL ARISTI
EUSKALTEL EUSKADIKO
TXIRRINDULARIA

baita mendiko saria irabazi ere: "Lagunek bazuten nire erabakiaren berri, eta egun ederra pasa nuen eurei esker. Bi hilabete neramatzan lehiatu barik, ez nekien zelan egongo nintzen, baina ihesaldian sartu nahi nuen, lagunak aurretik lasterketa buruan pasa nahi nuen. Gero, posible zen zirkuituko lehenengo itzulian erretiroa hartu behar izatea, ja, ja... Baina ez, ondo ibili nintzen. Zirkuituari bost bat itzuli eman behar genizkion eta lagunak nire erretratuekin, musikarekin... zain nituen. Kanadar batekin nindoan ihes eginda, eta hura ere zur eta lur geratu zen; galdetu zidan ea erretratuetakoa ni nintzen, ja, ja...". Bada, egun hartan, mendiko sariak baino gehiago bete zuen egun osoan bizi izandakoak.

Mikel Aristik ez du gordetzen azken urteetan ez dela nahi moduan ibili: "2019ko garaipenen ondoren ez dut urte distiratsurik

izan, hori da egia. Banekien txirrindularitza lehenago edo geroago amaitu egingo zela, eta iritsi da ordua. Azken urteak frustragarriak izan dira, baina azkena bereziki izan da gogorra. Ez dut urte ona egin, eta jarraitzeko nituen aukerak ez ninduten konbentzitzen. Gehiago motibatzen nau ikasten hasteak edo lan mundura murgiltzeak, horretarako gazteak gara oraindik".

"IBILBIDE POLITA IZAN DA; EZ NOA PENAZ, BESTE GAUZA BATZUEK MOTIBATZEN NAUTE GEHIAGO"



JULEN IRIZAR
EUSKALTEL EUSKADIKO
TXIRRINDULARIA

Hastapenak, Lokatzen

Bi bergarrek Lokatzen eman zituzten lehenengo pedalkadak. Mikel Aristi gaztetatik nabarmendu zen; gazte mailan ederto ibili zen –Gipuzkoako Itzulia irabazi zuen belaunaldi oso oneko zenbait taldekide bergarar ondoan zituela–. Amateur mailan, Debabarrenan urte bakarra nahikoa izan zuen goikoen arreta erakartzeko, Migel Madariagak haren aldeko apustua egin zuen, eta kontinental mailan zegoen Euskaltelera eraman. Baina urte gogorak ziren talde laranjan, proiektuak ez zuen hamarkada bat lehenago izan zenaren antzekotasunik, eta Madariagak proiektuari berrekin behar izan zion, hutsetik hasi, kontinental mailari agur esan eta amateur mailara bueltatu. Hala, Aristik onartu egin zuen mailaz jaistea, amateurretara bueltatzea, eta ez zen apustu txarra izan: urte hartan, *hegan* egin zuen –zortzi garaipen, eta hamaika aldiz izan zen bigarren–.

Orduan, Frantziatik jasotako proposamena onartu eta bi urte egin zituen Delko Marsella KTM taldean. Maillot horrekin altxa zituen lehenengoz besoak profesional mailan, non eta Afrikan. La Tropicale Amissa Bongon (2017), atariko proban, esprintean nagusitu zen, eta sailkapen orokorra lehiatzen ibili zen aste osoan. Ondoren, Euskadi Muriasek (2018) fitxatu zuen, eta Odriozolaren aginduetara 2019an urte oso polita egin zuen. Garaipena lortu zuen bai Portugalgo Voltako etapa batean, eta baita Limousingo Itzulian ere. 2020an, berriz, Euskaltelek fitxatu zuen; lasterketa batzuetan garaipenetik oso-oso gertu egon da, baina, bergararrak aitortu duenez, urte hauetan ez da nahi moduan ibili. Denboraldiko une puntaletan zertzeladak erakutsi bai, baina erreleartasun barik ibili da.

Julen Irizar ere Lokatza hasi zen. Ampon nabarmendu zen amateur mailan –Castelloko Voltan etapa bat irabazi zuen–, eta Euskadi-Muriasek fitxatu zuen Oscar Rodriguezekin batera –orain Movistarren–. Talde horretan lau urte egin zituen bergararrak, eta maillot horrekin lortu zuen profesional mailan daukan garaipena, Portugalgo Sari Nagusian (2018). Debagoiena txirrindulari profesional barik geratu da.

Sailkapenaren zuloan daude lautik hiru

FUTBOLA Aspaldiko urteetan ez da halakorik gertatu, ohorezko erregional mailako seigarren jardunaldiko sailkapenak erakusten du Bergara, Mondra eta Aretxabaleta direla, oraingoz, ligako hiru talde txarrenak. Aloña Mendi da salbuespena

Xabier Urzelai Atxa ARETXABALETAK
Debagoieneko lau taldeetatik hiru sailkapenaren azken postuetan daude. Orain arte jokatu dituzten sei partiduetan Aretxabaletak bakarrik lortu du partidu bat irabaztea –hirugarren jardunaldian, Bergararen kontra (3-2)–, eta horri esker dira Calzonen mutilak, sailkapenaren zuloan daudenen artean, ondoen daudenak. Itsuen herrian begi-bakarra alkate.

Aretxabaletakoek lau puntu dituzte, Lagun Onaken kontrako berdinketak beste puntu bat eman zielako, baina Aloña Mendik, Amaiak Batek, Eibarrek eta Añorgak irabazi egin zieten. Ez da liga hasiera ona, eta, esan moduan, Mondra eta Bergara okerrago daude, pentsa. Mondrak eta Bergarak oraindik ez dute partidurik irabazi. Zuri-moreen kasuan, hiru puntu batu dituzte, Bergararen, Eibarren eta Añorgaren kontra berdindu eta gero. Partidu horietan pauso batera izan dute garaipena, eta kategoriako oilar izan daitezkeen Eibarren eta Añorgaren kontra partidu ona egin izanak arnasa eman zien. Horrekin batera, galdu dituzten beste hiru partiduak ere gol bakarreko aldeetatik galdu dituzte. Esperantzari eusteko datuak dira horiek,



Aretxabaletak Zarautz –irudian, iazko partiduan– hartuko du domekan. GOIENA

BERGARA SAILKAPENEN AZKEN DA, ETA SEGIDAN DATOZ MONDRA ETA UDA

baina puntuak hirunaka batzen hasteko ordua da. Eta Bergarak ere beste horrenbeste egin behar du, norberaren burua sailkapenaren azken postuan ikusteak mentalki ordaina izaten duela. Mahoneroek puntu bakarra

batu dute, Mondraren kontrako derbian (0-0), eta horiek ere galdu dituzten bost partiduak gol bakarretatik galdu dituzte. Inor ez da Bergara baino askoz nagusiago izan, baina kontrarioa baino gehiago izateko ordua iritsi da.

Aloña Mendi, salbuespena
Oñatiko taldea bestelako egoeran dago. Lehenengo lau partiduetatik hiru irabazi eta gero, sailkapenaren aurrealdeko postuetara egin zuten segituan. Seigarren daude, postu erosoan.

Reala kontrario Leintz Arizmendik

Realaren bisita izango dute Leintz Arizmendiko neskek domekan (16:30, Azkoagain). Donostiarrek orain arteko partidu guztiak irabazi dituzte (5), eta, gainera, 30 gol egin dituzte. Leintz Arizmendi ere ondo dabil, bost partidutatik lau irabazi dituzte. Atzealdean dabilen Bergarak, berriz, Zumaiako hartuko du zapatuan (16:15, Ipintza).



Leintz Arizmendiren eta Bergararen arteko lehia, artxiboko argazki batean. GOIENA

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

GIZ. OHOR. ERREG.

Oiartzun-Bergara

Zap. 15:45. Oiartzun.

Zumaiako-Mondra

Zap. 16:00. Asti.

Tolosa-Aloña Mendi

Zap. 16:30. Berazubi.

Aretxabaleta-Zarautz

Dom. 16:30. Ibarra.

EMAK. OHOR. ERREG.

Bergara-Zumaiako

Zap. 16:15. Ipintza.

L. Arizmendi-Reala

Dom. 16:30. Azkoag.

GAZTEAK, EUSKAL LIGA

Bergara-Lakua

Zap. 18:30. Ipintza.

Ariznab.-Aretxabaleta

Zap. 16:00. Gasteiz.

GOIRENGOEN MAILA

Anaitasuna-Aretxab.

Zap. 15:30. Azkoitia.

Antzuola-Tolosa

Zap. 16:30. Eztala.

Ilintxa-Mondra

Zap. 16:30. Bikuña.

Bergara-Billabona

Dom. 17:00. Ipintza.

ARETO FUTBOLA

MAILA NAZIONALA

Mondrate-Lagun O.

Zap. 17:30. Musak.

Eskoriatza-Antiguoko.

Zap. 18:00. M. Muñoz

GIPUZKOAKO TXAP.

Egintza-Mondrate

Egub. 20:00. Billab.

Antiguoko- Ingou C.

Egub. 21:00. Donos.

SASKIBALOA

EBA

MU-Pas Pielagos

Dom. 18:30. Iturripe.

EMAK. LEHEN MAILA

Navarro V.-MU

Zap. 19:15. Iruñea.

GIZ. LEHEN MAILA

MU-Leioa

Zap. 16:00. Iturripe.

GIZ. GIP. TXAPELKETA

Atletico-Mek. Aloña

Zap. 20:00. Aiete.

Soraluce BKE-Getari.

Dom. 16:00. Labeg.

ESKUBALOA

GIZON. EUSKAD. TXAP.

Fagor Indust.-Escolap.

Zap. 18:00. Zubikoa.

EMAK. EUSKAD. TXAP.

Eraiken-Const. Aloña

Zap. 19:30. Gasteiz.

GIZ. GIPUZK. TXAP.

Mugarri I.-Soral. BKE

Zap. 20:00. Iturripe.

PILOTA

Oñati: Gaur (18:15) bost partidu. Zapatua (16:00) lau partidu.

Aretxabaleta: Gaur (18:30) partidu bat.

Bergara: Gaur (19:15) lau partidu. Zapatua (11:30) lau partidu.

Arrasate: Gaur (19:30) hiru partidu.



Pilotari bat.

MENDIKO BIZIKLETA

EskoXtreme egingo dute zapatuan

EskoXtreme mendiko bizikleta irteera egingo dute bihar, zapatua, Eskoriatzan (09:00). Parte-hartze kopurua 300 lagunera mugatu dute, eta egunean bertan izena emateko aukera egongo da. Bi ibilbide prestatu dituzte antolatzaileek, luzea 37 kilometrokoa eta motza 26 kilometrokoa (Informazio gehiago, 23. orrialdean).

SASKIBALOA MUK Raisan Pas Pielagos hartuko du domekan Iturripen

Liga antzera samar hasi duten bi talde izango dira domekan zein baino zein gehiago (Iturripe, 18:30); jokatu dituzten bi partiduetatik bat irabazita, sailkapenaren erdialdean daude biak ala biak. Joan den astean, Los Arcosen MUKoek ondo bideratuta zeukaten partidua, baina azken laurdenean sufritu egin zuten (94-96).

ESKUBALOA Liderraren bisita izango du Fagor Industrialek

Bihar, zapatua (18:00), Fagor Industrial talde oñatiarrak ligako bi partiduak irabazi dituen Escolapios taldea izango du aurrean. Oñatiarrek ligako lehenengo garaipenaren bila egingo dute salto kantxara. Emakumezkoen taldea ere lehen garaipenaren bila joango da bihar (19:30) Gasteizera, Eraiken Eharraidearen kontra jokatuzera.

ARETO FUTBOLA Mondratek eta Eskoriatzak, etxean

Nazional ligako hirugarren mailan dabilen Mondratek eta Eskoriatzak etxean jokatuko dute asteburuan. Eskoriatza bosgarren dago ligan, eta apur bat atzerago dagoen Antiguokoren bisita izango du Manuel Muñoz kiroldegian (Ikus taula). Mondrate, berriz, bigarren postuan dago, eta Lagun Onak sailkapenaren atzealdean.



Jasan taldeak itxi zuen Danbakako lehen kontzertua; argazkian, Ixak Sarasua.



The Clayton aramaioarrek agertokian erakutsitako grinarekin gozatu ederra hartu zuten ikus-entzuleek.



Kiimak bikoteko Ainhoa Etxezarreta kantuan.



Lemak taldeko Biken Larrañaga, lehen planoan. ARGAZKIAK: IMANOL SORIANO

Bota du lehen harria Danbakak

Gogotsu, giro apartarekin eta musikaz gozarazteko gogoz itzuli da Danbaka, Debagoieneko musika taldeendako erakusleihen bikaina



XABIER GOROSTIDI

Iraganeko gauza onak itzultzea beti da pozgarria, eta, joan den barikuan, sentsazio atsegin horrek kutsatuta atera ziren agertokian aritu ziren musikariak, eta baita Bergarako Seminari-xora joan ziren ikusleak ere. Danbaka Musika Lehiaketa bueltan da, azalberrituta eta lekualdatuta, baina, batez ere, uzta musikal berri eta interesgarria plazaratzeko osagai guztiak lapikoan dituela.

Bosgarren edizioan, pandemia ostekoan, etxek aldatu da Danbaka, eta Bergarako Seminari-xoan hartu du aterpe. Hala, lehen sintomei erreparatu gero, musika lehiaketak eta Bergarako aretoak erlazio aberasgarria edukiko dutela dirudi. Zergatik? Bada, antzoki barruan eta baita antzoki kanpoaldean joko handia emango duelako Danbakak. Kanpoaldeko chill out guneak ondo funtzionatu zuten lehen ekitaldian, eta hor sekulako eragina izan zuen Sanprubusak eta baita aterpean egindako emanaldi akustikoak.

Fokua aretoaren barrualdean jarrita, apustua ondo irten zen. Eszenario altua, ikusleentzat toki zabala eta akustika aldetik baldintza apartak zuzeneko musikaren xarmaz gozatzeko. Teknikarien lana, azpimarratzekoa, eta ezin aipatu gabe utzi barruan edariak hartzeko aukera egoteak asko laguntzen duela bariku gau bateko kontzertu giro ganberroa sortzen. 150 ikusle inguru Seminarixoan. Kontuan hartzeko moduko kopurua, batez ere, egun berean Bergaratik oso gertu doako musika emanaldi aipagarriak zeudela jakinda.

Kolore askotako musika

Danbaka lehiaketaren indarguneetako bat aniztasun musikala izan da beti, eta edizio berriaren lehen kontzertuak argi utzi zuten ildo beretik jarraituko duela oraingoan ere. Izotza apurtzeko ardura Lemak talde bergararrak hartu zuen. Lehen kanta hasi orduko, jende asko barrura sartu gabe zegoen, eta zeuden apurrak, agertokitik oso urrun. Abeslaria fin ibili zen, eta lehen ilarara hurbiltzeko agindu zien ikusleei, eta, haien berotasuna igarri bezain pronto, euren onena eman zuten. Kantuak suabe hasi eta goi-goian bukatzen dakitela erakutsi zuten, eta etxeko ikusleen babes lagun izan zuten.

Kiimak taldearen emanaldia gordetzeko modukoa izan zen. Intimoa, baina mezu zuzenekin, eta abeslariaren ahots erakustaldi apartak publiko txunditza

lortu zuen. Jarraian, The Clayton aramaioarren tsunamia heldu zen. Jarreraz lepo taularatu ziren lehen segundotik eta konfiantzaz betetako emanaldi zirikatzaile eta indarrez bete eskaini zuten. Teknikoki ondo jotakoa rock-and-rolla, baina jarrera dosi itzelarekin bustita. Eta, azkenik, Jasan aretxabale-tarren saioa. Ez zuten lan erraza izan aramaioarren atzetik taularitzen, baina ez ziren kildu. Metal eta rock doinu landuak taularatu zituzten, eta gitarrak gogor astintzen dakitela erakutsi zuten.

Kontzertua hasi aurretik, ikusle asko pasa ziren Sanprubuseko barratik, eta gainera zetorkien musika uholderako beroketa lan-txukuna izan zen Unai Cantabrana bakarlarri elgetarrak Seminarixoko aterpean egindako emanaldia. Ahots sendoz, gitarraren laguntzarekin.

DANBAKAREN INDARGUNEETAKO BAT MUSIKA ANIZTASUNA IZAN OHI DA, BAITA ORAINGOAN ERE

TAULAGAIN ALTUA, IKUSLEENTZAT TOKI ZABALA ETA AKUSTIKA ALDETIK BALDINTZA APARTAK



Sanprubusa Bergarako San Martin plazan. Batek baino gehiagok ezusteko atsegina hartu zuen.



Unai Cantabrana, chill out gunean, emanaldi laburrean.



Atsedenean, kanpoaldeko chill out gunean.

**Lemak** | Bergara eta Antzuola

Publikoaren hoztasunari aurre egiten asmatu zuten, eta funtsezkoa izan zen euren talentua osotasunez plazaratzeko. Sekzio erritmikoan fin ibili ziren, eta abeslari eta gitarra jolea da taula gaineko taldearen iparra.

**The Clayton** | Aramaio

Agertokia irenstera irten ziren, baita lortu ere; lehen segundotik azkenera, lotsagabe eta ausart. Teknikoki oso fin, baina, batez ere, jarrera erakustaldi itogarri bati esker Danbakako tronurako hautagaitza aurkeztu zuten.

**Kiimak** | Antzuola

Ikusleak liluratu zituzten abeslariaren ahots harrigarriarekin. Berezko talentua du eta Seminarixoko soinu kalitatearekin saio borobila egin zuten. Goxotasuna izan zuten ardatz, baina hitz konprometituek ere euren zigilu dira.

**Jasan** | Aretxabaleta eta Eskoriatza

Doinu astunez jositako saioa egin zuten, zertzelada ausartekin: rap ukituko ahotsak eta kanta herrikoiak moldatzeko gaitasuna, besteak beste. Ez zuten ordu erdiko tartea bete, eta oholztan gehiago mugitzea falta izan zitzaion.

Aretoan jasotako iritziak

IÑIGO UGARTE

EPAIMAHAIKO KIDEA

"Bete-beteta atera gara aretotik epaimahaikook. Kezka apur batekin ere bai: beste lau kontzertu geratzen dira, beste hamasei talde, eta, gaurkoa ikusita, gure lana ez da samurra izango. Bestetik, chill out gunean giro bikaina sortu da".

JOKIN BEREZIARTUA

DANBAKAKO KOORDINATZAILEA

"Lan handia egin da, alde zurririk, puntu honetara heltzeko. Emaizta ikusita, agertokira igo direnek eskaini duten ikuskizun bikaina, lantaldeak egin duen lana... Oso pozik gaude; ezin gehiago eskatu".

NAHIA GOIKOETXEA

KIIMAK TALDEKO KIDEA

"Hasieran, urduri geunden, besteak beste, lehen aldia zelako agertoki honen moduko baten jotzen genuena. Oso gustura geratu gara, pozik. Geuri gertatzen zaigun gauzen gainean eta gertukoaren gainean abestea dugu gustuko".

IDOIA SANCHEZ

IKUS-ENTZULEA

"Kiimak bikoteak eta, bereziki, abeslari nagusiaren ahotsak txundituta utzi nau; Lemak talde ederra izan da gaua hasteko; The Claytonen indarra sekulakoa, eta Jasanen eztanda bukatzeko... Oso gau polita izan da, borobila".

HURRENGO KONTZERTUA

Urriak 28, egubakoitza. 21:30. Bergarako Seminarixoa.

Eyharts • 112
Inguma • Letagin

Publikoaren Sariaren sailkapena

- 1 KIIMAK**
Antzuola
Botoen %69,8
- 2 LEMAK**
Bergara-Antzuola
Botoen %8,5
- 3 THE CLAYTON**
Aramaio
Botoen %8,5
- 4 JASAN**
Aretxabaleta-Eskoriatza
Botoen %6,6
- 5 AIERT**
Oñati
Botoen %4,7
- 6 KTARSIA**
Bergara
Botoen %0,9
- 7 ETXEPE**
Arrasate
Botoen %0,9
- 112**
Arrasate
Botoen %0,0
- 9 ARRAGOA**
Bergara
Botoen %0,0
- 10 BALARRASA**
Aramaio-Eskoriatza
Botoen %0,0
- 11 BROKEN LEGACY**
Oñati
Botoen %0,0
- 12 ERROMINTXELAK**
Arrasate-Bergara
Botoen %0,0
- 13 EYHARTS**
Bergara
Botoen %0,0
- 14 ILUMINATIZZ**
Aretxabaleta-Otxandio
Botoen %0,0
- 15 INGUMA**
Oñati
Botoen %0,0
- 16 ISLABAT**
Bergara-Elgoibar
Botoen %0,0
- 17 LETAGIN**
Oñati
Botoen %0,0
- 18 ORHI**
Bergara
Botoen %0,0
- 19 SINDY BERBENAS**
Arrasate
Botoen %0,0
- 20 SUKENA**
Oñati
Botoen %0,0

BOTOA EMATEKO

Danbaka.eus webgunean edo Goiena.eus webgunearen Danbaka izeneko kanalean eman daiteke botoa, 2023ko urtarriaren 10era arte.

Karoi: antzerkia, erdigunean

Domekan hasi eta azaroaren 26ra arte, Debagoieneko Antzerki Jaialdia egingo du Debagoieneko Antzerki Plataformak (DAP). 'Ikusle kluba' ekimenarekin abiatuko dute, Eskoriatzan, eta askotarikoak izango dira, gero, Antzuolan, Aramaion eta Oñatin

Aitziber Aranburuzabala ANTZUOLA "Antzerki jaialdi bat izateko beharretik" jaiotako herri ekimena da antolatu dugun Debagoieneko lehen antzerki jaialdia, antzerkiak duen bartzeko gaitasuna funtsean hartuta. Gure helburua Debagoien osoa batzea da, eta, horretarako, ekimen ezberdinak antolatu ditugu hainbat herritan, Eskoriatzan, Aramaion, Oñatin eta, bereziki, jaialdiaren erdigune edo egoitza nagusi izango den Antzuolan. Jaialdiaren bidez, eskualde osoan dauden erronkak mahai gainean jarri eta elkarrekin horiei erantzuteko bideak topatu gura ditugu, horretarako bidea antzerkia izanik", azaldu dute DAPekoek.

Jaialdiari Karoi izena jarri diote. "Zergatik izen hori? Bada, kareharriz inguratuta gaude eta kareharriaren gainean sortu ditugu Debagoieneko herriak. Gure arbasoek kareharri hori erabiltzen eta eraldatzen jakin zuten. Hotza eta gogorra den materiala emankor egiten jakin zuten karoiei esker, baratzerako on-

garria, janaria kontserbatzeko modua eta etxeak babesteko bidea aurkituta. DAPeko kideok Karoi antzerki jaialdiarekin gure eskualdean eraldaketa eragin nahi dugu, Debagoiena antzerkiz ongarritu, kultura kontserbatu eta gure etxea den Debagoiena eraikitzen jarraitzeko".

Ikusle Kluba osatzeko "gogoz" Karoiekin, antzerki emanaldi eskaintzatik harago joan gura dute ekimenaren bultzatzaileek, eta parte hartzaileak ikusle hutsak ez izatea. Plataformako kide Olatz Pagaldai azaldu du Ikusle Kluba dela asmo horien erakusle: "Nolabait esanda, literatura arloan, eskualdeko biblioteketan egiten dituzten irakurle klubuen antzerako ezaugarriak ditu. EHAZEK (Euskal Herriko Antzerkizale Elkarteak) iazko azaroan proposatutako proiektua da, euskal antzerkigintzaren geografia zabalean lanean ari diren askotariko eragileekin elkarlanean. Antzezlanak ikusi aurretik elkartzeko gara, lanari buruz ditugun aurreiritziak

eta bestelakoak partekatze, eta antzezlanak ikusi ondoren berriz batuko gara, ikusitako lanari zukua ateratzeko. Antzerkia ikusi osteko solasaldi horiek formatu askotarikoak egitea da gure asmoa: aukera dugunean, antzezlaneko protagonistak gonbidatuko ditugu, eta, beste batzuetan, antzokiaren atzeko alde eta atzeko lanak bertatik bertara ikusteko aukera izaten saiatuko gara. Bide batez, badakigu antzokietara jende asko bakarrik joaten dela; beraz, lagunak egin

DEBAGOIENA BATU ETA ERAIKITZEKO TRESNA BALIAGARRIA IZATEA DU HELBURU KAROI JAIALDIK

ANTZERKIAREN ALORRAK PLAZARA ATERAKO DITU DAP-EK, AZAROAREN 26RA BITARTEAN



DAPeko Zubia, Castañeda eta Pagaldai, jaialdiaren aurkezpenean. MIKEL AGIRRE

eta taldea egiteko modu bat ere bada Ikusle Kluba. Parte hartzeko ez da derrigorrean antzerki aditua izan behar; librea da, bakoitzak bere subjektibotasunetik berba egitea da helburua. Onura asko ekar ditzakeen ekimena dela uste dugu".

Prestatu duten lehen jaialdiaren baitan hiru Ikusle Klub ekitaldi proposatu dituzte. Eskoriatzako Udalak domekarako Zaldibar antzokian programatu duen Kamikaze Kolektiboaren eta Ttak Teatroa konpainiaren *Hiru Kortse, azukre asko eta Brandy gehiegi* antzezlanaren bueltan izango da lehenengo, 19:00etan (Ikus 22. orria), eta Antzuolan izango dira beste biak: *Erre* ikuskizuna oinarri hartuta urriaren 28an; eta *Lakoste* antzezlanaren gainean izango da hirugarren solasaldia,

azaroaren 4an. Parte hartu nahi dutenek aurrez izena eman behar dute, *DAP.eus* atarian.

Antzerkiaren onurak

DAPekoek argi dute herri guztietan antzerki talde bat izatea garrantzitsua dela. "Herri guztietan edo ia guztietan daude askotariko kirol taldeak; bada, kultura, herrigintza eta gizarte alorrean ezinbestekoak ikusten ditugu antzerki taldeak. Antzerkiak onura asko ditu, esaterako, harremanetan eta autoestimuan; pertsona aktiboak sortzeko oso onuragarria da, eta, modu horretan, herri aktiboak sortzea lortuko dugu".

Bide horretatik proposatu dute azaroaren 15ean Antzuolako Olanan etxean 18:30ean egingo duten mahai-ingurua. Eskarmentu handiko Eneritz Artetxe eta Iñaki Ziarrusta antzerkigileak

GOIENA
TELEBISTA
SASOI
BERRIA

'HARA, BI!'
URRIAREN 25EAN, MARTITZENEAN,
21:00ETAN ETA 23:00ETAN
BERGARAKO HAURRAK PROTAGONISTA

goiena
Zu hemen zaude.

gonbidatu dituzte *Zergatik antzerki talde bat herrian?* galdera abiapuntu izango duen solasaldira.

Ikastaroak ere, askotarikoak

Formakuntza izan da orain artean DAPen lan-lerro nagusia, eta Kaireekin Plazara eta Sormena izenekoak azaleratuko dituzte. Hala ere, jaialdian formakuntzarako hainbat aukera eskaini dituzte; horien artean, Antzuolan azaroaren 26an gazte txokoarekin elkarlanean egingo duten gazteentzako kale antzerki tailerra. "Debagoieneko gazteentzako proposamena da, bereziki. Egun bakarreko tailerra izango da, 17:00etatik 20:00etara. Hiru orduko saio horretan prestatzen dutena egunean bertan erakutsiko dute gero kalean".

Azaroan Aramaion egingo duten hiru eguneko ikastaroa ere iragarri dute jaialdiaren baitan. "Hastapen ikastaroa da hori, azaroaren 5ean, 12an eta 19an 10:00etatik 14:00etara egingo duguna. Ikastaro honen helburua ez da kalera ateratzea, antzerkigintzaren oinarritzko ezagutzak jasotzea baizik".

Antzerki-eskolak ere, abian

Ikasturte osoko –urritik ekainera bitartean– askotariko formakuntza-saioen eskaintza zabala du antzerki plataformak; Arrasateren kasuan, DAPen barruan dagoen Doke Antzerki Eskolaren eskutik, eta Bergaran, berriz, Jardun Euskara Elkartean lagunduta. "Gure helburua hasieratik izan da eskualdeko herri guztietan antzerkigintzan murgiltzeko tresnak jasotzeko trebakuntza-saiok eskaintzea, eta ari gara, poliki-poliki, urtez urte eskaintza zabalagoa egiten. Talde gehienak nahiko beteta daude, baina ahaleginak egingo ditugu antzerkigintzan murgildu gura duten guztiei tokia egiteko. Aukera asko daude, norberaren herriko ikastaroetan izena emanda edo alboko herrietan bestela, ordutegia eta egutegia egokiagoa bada. 8 urtetik gorakoentzat Antzuolan, Elgetan, Oñatin, Aretxabaletan, Eskoriatzan, Arrasaten eta Bergaran ditugu. 12 urtetik gorako gazteentzako ere eskaintza zabala dugu eta helduendako –16 urtetik gorakoentzako– ere beste hainbat. *Dap.eus* atarian, *Formakuntza* atalean duzue informazio guztia".

Karoi antzerki jaialdiaren egitaraua

Eskualdeko herri ezberdinetan antzerkiaren askotariko alorrak jorratzeko askotariko ekitaldiak izango dira azaroaren 26ra bitartean Karoi, Debagoieneko antzerki jaialdiaren baitan.

Eskoriatza

- **Ikusle kluba** Udak antolatu duen *Hiru kortse, azukre asko eta Brandy gehiegi* lanaren inguruan; urriaren 23an, 18:00etan, Eskoriatzako kultura etxean. Ondoren, antzezlanaren emanaldia Zaldibar aretoan, 19:00etan.

Antzuola

- **Ikusle kluba** *Erre* lanari buruzko saioa, urriaren 28an, 18:00etan, Olan etxean. Ondoren, *Erre*-ren emanaldia Torresoroan, 19:00etan.
- **Ikusle kluba** *Lakoste* lanari buruzko saioa, azaroaren 4an, 18:00etan, Olan etxean. Ondoren, *Lakoste*-ren emanaldia Torresoroan, 19:00etan.
- **Mahai-ingurua** *Zergatik antzerki talde bat herrian?* gaiaren bueltan, azaroaren 15ean, 18:30ean, Olan etxean. Eneritz Artetxe aktorea eta Iñaki Ziarrusta antzerkigilea izango dira.
- **Kale-antzerki tailerra** Gazteentzako antolatuta, gazte txokoaren eskutik, azaroaren 26an, 17:00etatik 20:00etara. Ondoren, erakustaldia egingo dute herriko kaleetan zehar.

Aramaio

- **Hasiberrientzako ikastaroa** Hiru saio egingo dituzte: azaroaren 5ean, 12an eta 19an, 10:00etatik 14:00etara.

Oñati

- **Solasaldia** Alaine Agirre sortzailearekin *Bi aldiz erditu zinen nitaz, ama* nobelaren antzerki sormen prozesuari buruz jardungo du. Oñatiko zinema aretoan izango da, azaroaren 8an, 18:00etan, Irazan guneak antolatuta.
- **Kale ekimena** Irazan eguna ospatzeko, azaroaren 19an.

Informazio gehiago edo izenematea: *Dap.eus*.

Sormen-bekarako lau hautagai

Sormena lan-lerroaren baitan, eskualdeko antzerki proiektuak bultzatzeko deialdia zabaldu zuen orain dela aste batzuk DAPek, eta "pozik" daude izan duen harrerarekin. "Lau proiektu jaso ditugu: talde egitura askotarikoak –bakarkakoak eta bikotekakoak zein talde handiagoarekin–; gaiari dagokionez ere, askotarikoei buruzkoak dira; eta formatuari begira ere, hainbat aukera aurkitu ditugu: antzerkia soilik dute batzuek; eta bestelako diziplinekin batera –adibidez, dantzarekin– osatutakoak dira beste batzuk. Aniztasun handia, bada, ikuspegi ezberdinei begiratuta, eta poztekoa eta eskertzekoa da hori".

Dirulaguntza eta aterpea

Gaur, egubakoitza, dira zuzendaritza taldekoak biltzekoak, eta astelehenean emango dute aukeraturako proiektuaren izena euren atarian –*Dap.eus*– eta sare sozialetan. "Aukeraturako proiektuaren egileek azaroan –eurek erabakiko dute zein data zehatzetan– Sormen Egonaldia egiteko aukera izango dute Antzuolan. Dirulaguntza bat jasoko dute, eta, horrez gainera, lan egiteko aterpe bat ere bai. Proiektua aurkeztu zutenean, Antzuolan euren lanaren zabalkundea nola egin ere landu beharra zuten, eta alor horretan ere hainbat aukera erakutsi dituzte".

Goienakideen txokoa

URRIKO SARIAK

Tableta

'InnJoo Superb' tableta
Parte hartzeko sariaren izena: Tableta



EROSKI
ARRASATE

Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak.
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz

OTARREA
Bidezko merkataritzako produktuak.
Parte hartzeko sariaren izena: Otarra

ARRIKUTZ
GRATIKO DUA

www.harremandenda.org
Goiena Merkataritza Produktuak

PARTE HARTZEKO:
Posta elektronikoz: goienakide@goiena.eus WhatsApp: GOIENAKIDE
"sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia.
goiena app-a / zozketa atalean. Parte-hartzailearen artean egingo da zozketa.
Inoizko dagon(10) 15 699 legaren arabera jakinarazten ditugu sare-sozial pertsonak Goiena Forumikoa Zerbitzua-
ren edukiaren erabilera. Irudiak, testuak, irudiak, bideoak eta irudiak erabiltzeko erabiltzen diren irudiak, irudiak eta
irudiak erabiltzeko erabiltzen diren irudiak, irudiak eta irudiak erabiltzeko erabiltzen diren irudiak, irudiak eta irudiak

Realaren eta Betisen arteko partidarako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean



GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA
Reale-Betis partida beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuki eta zuki aukeraturako beste lagun batek.
Reale Arena futbol zelaiko tokirik onenetik.
Urriaren 30ean, domeka, 21:00etan.

Parte hartzeko azken eguna: Urriak 25

Irabazi bi lagunendako otordua

LARRINETXE JATETXEARI ESKER
Begiratu Puntua aldizkariko Otorduan atala eta hartu parte!
Parte hartzeko azken eguna: urriak 25.

☎ 943 25 05 05 | ✉ goienakide@goiena.eus | 📱 *Goiena app*-a / zozketa atalean.

📱 GOIENAKIDE Jabetzea | 🗨 [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...



BAZKIDETZA KUOTA: 15 €
Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



goiena kide

Okm: batzen gaituen distantzia.

DESKARGATU GOIENA APP BERRIA!

ESKER ONA

Elisabeth Mendizabal Agirre

Santi Etxebarria 'Zurdo de Mondragon'-en alarguna.
2022ko urriaren 19an hil zen, 92 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2022ko urriaren 21ean.



ESKER ONA


Reyes Biain Biain

2022ko urriaren 9an hil zen, 88 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Ondra meza zapatuan izango da, urriaren 22an, 19:00etan, Oñatiko agustindarren elizan. Bertaratuko zaretenoi alde zurretik eskerrik asko.

Oñatin, 2022ko urriaren 21ean.



URTEURRENA

Felix Ormaetxea Goitana


'Uribe'

2021eko urriaren 18an hil zen, 82 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, urriaren 23an, 12:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian.

Utzi gaituzun arren, beti egongo zara gure bihotzean eta zerutik argituko gaituzu.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Arrasaten, 2022ko urriaren 21ean.



OROIGARRIA

Maria Vitoria Arizmendi Azpiazu

Loratu da zuk landatutako hazia.

Eskerrik asko Ikastola sortzeko egindako lanagatik.



Bergaran, 2022ko urriaren 21ean.

BABESLEA

Oroilore

Maitasunez bizi,
maitasunez agurtu

Gure arloan agurtutako guztiei euren bidea aurkitzen lagundu diegu, orain arte bezala, eta guztiek izango dute agur berezia Oroiloren.

Gure eskerrik beroenak gugan izan duzuen konfiantzagatik eta maitasunagatik.

Ion, Mario, Iban eta Maribi

Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA
Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37



ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05
edo eskelak@goiena.eus

- ▶ Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarría edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 186 € / Goiena Klubeko bazkideendako 166 €
- ▶ Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 165 € / Goiena Klubeko bazkideendako 145 €

Goiena: irakurriena Debagoienan.

ZORION AGURRAK



BERGARA Uxue eta Alaitz Gonzalez
Urriaren 25ean, 8 urte. Zorionak, politto! Ondo-ondo pasau zuen eguna. Patxo potolo bat danon partetik!



ESKORIATZA Aitzane Izurategui
Urriaren 22an, 39 urte. Zorionak, Ti! Disfrutatu topera zure eguna! Patxo potoloak. E.J.I.J



ARAMAIO Enai Bolinaga Altuna
Urriaren 22an, 3 urte. Zorionak, Enaitxo! Jada hiru urte, ze handi! Primeran ospatuko! Mile muxu maixe zaitxuauen danon partetik!



ESKORIATZA Carmen Martinez Alcalde
Urriaren 22an, 98 urte. Zorionak, abuela maitea! Besarkada handi bat familiako guztion partetik!



DEBAGOIENA Paula Zubia Murugarren
Urriaren 22an, 9 urte. Zorionak, Paula! Belarri tirakada bat ta milaka muxu. Ondo pasa eguna! Familia guztiaren partetik.



ARETXABALETA Ekain Garro Larrañaga
Urriaren 21ean, 7 urte. Zorionak, Ekain, zure familia guztiaren partetik. Txokolatia jaten elkartuko gara. Ondo pasa.



OÑATI Unax Benito Alzelai
Urriaren 20an, 7 urte. Zorionak, Unax! Ondo-ondo pasa zure urtebetetze eguna. Esko maite zaitugu. Etxeko danon partetik. Muxu erraldoi bat!



OÑATI Aiert Marko
Urriaren 20an, 9 urte. Zorionak, politto hori! Ondo-ondo ospatu zure eguna eta patxo handi bat familiara danaren partetik!



ARRASATE June Garitaonandia Vecino
Urriaren 18an, 3 urte. Zorionak, June! Ondo ospatu zure eguna. Muxu handi bat etxeko danon partetik



OÑATI Lucia Fernandez Cano
Urriaren 18an, 6 urte. Zorionak, maïttia! Muxu erraldoi bat familia guztiaren partetik! Infinito maite zaitugu.



ARRASATE Ane Tena Pedrosa
Urriaren 16an, 9 urte. Zorionak, Ane!



ARRASATE Unai Velez de Mendizabal Otero
Urriaren 16an, 11 urte. Zorionak, handikote. Besarkada eta patxo pila bat etxeko guztien partetik. Ondo pasau eguna.



OÑATI Aner Olasagasti Bernal
Urriaren 15ean, 7 urte. Zorionak, txapeldun! Jarraitu zaren bezelakua izaten eta ez galdu zure irrifar politto hori!



ELGETA Lili Arantzabal Larrañaga
Urriaren 15ean, 10 urte. Hamar mar-mar. Tia-tiuek, amamek eta aïtta-amak zorientzen zaittue. Urte askotarako!




ARRASATE Alaitz Nin Ugalde
Urriaren 14an, 9 urte. Zorionak eta urte askotarako etxeko izarrari! 9 urte gure artien! Jaso patxo handi bat etxeko danon partetik!



BERGARA Maddi Mendizabal Larrañaga
Urriaren 14an, 8 urte. Zorionak, Maddi! Ondo pasatu zure eguna eta patxo handi bat familia guztiaren partetik. Esko maite zaitugu!

BERRI-ZAKUA



Olatz eta Alberto
Olatz Etxebarria eta Alberto Ramirez bergararrak urriaren 14an ezkondu ziren. "Azkenean, bai! Zorionak, bikote! Segi zoriontsu izaten!".



Beni eta Iñaki: 46 urte ezkondu
Bergararrek domekan ospatuko dute. "Zorionak, bikote! Iñakiren, Eliren, Aiurren, Laiaren, Gorkaren eta Nekaneren partetik".

Ander eta Elene
Arrasatearrak bihar ezkonduko dira, Axpen. "Zorionak! Jarraitu zoriontsu izaten! Ederto ospatuko dugu! Musu erraldoiak, Atuna eta Patataren partetik".



Abel eta Maria Angeles
Abel Saez eta Maria Angeles Gutierrez arrasatearrek 51. ezkontza-urteurrena ospatuko dute hilaren 29an. "Jarrai dezagun ospatzen. Aitzol eta Iزارo".

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 21

BERGARA Gau Beltza: tailerrak
Umeendako.
San Martin plazan, 17:30ean.

ELGETA 'Ipuinen ordua'
Saio berezia. 17:30ean, HHko 3 urteko eta LHko 1. mailako umeendako; eta, 18:30ean, LHko 2. mailatik bosgarren mailara artekoendako.
Liburutegian.

ARRASATE 'Ezberdin bezain eder' ipuin kontaketa musikatua

Nerea Ariznabarretaren eta Mariano Hurtadoren eskutik, 4 urtetik gorakoendako.
Kulturaten, 18:00etan.

ESKORIATZA 'Historias de media X' liburuaren aurkezpena
Jaione Fernandez de Jauregi egilea egongo da, Vanesa Gonzalezekin. Sarrera, debalde.
Zaldibar antzokian, 19:00etan.

ARAMAIO Bertso Eskolaren ikasturte hasierako saioa
Nerea Ibarzabalek eta Gorka Pagonabarragak egingo dute.
Sastiñan, 19:30ean.

OÑATI 'Kantakeriak' lanaren aurkezpena eta zuzeneko
Sagarzazu ahizpen eskutik.
Antixenean, 20:00etan.

ESKORIATZA John Dealer & The Coconuts taldea
Punkez betetako soinu klasikoak.
Inkernu tabernan, 22:30ean.

ZAPATUA 22

ESKORIATZA EskoXtrem Martxa
Bi ibilbide aukeran: 37 kilometrokoa luzea eta 26koa motza. Izenak, egunean bertan.
Fernando Eskoriatza plazan, 09:00etan.

BERGARA Agroekologiaren gaineko informazio-puntua
Agroekologia eta Elikaduraren Inguruko Jardunaldien baitan.
Oxirondon, 09:00etan.

ARRASATE Monterron parkera eta San Kristobalera bisita gidatua
Izenak emateko: 943-25 20 20 edo *kultura@arrasate.eus*.
Monterron parkean, 10:00etan.

ARRASATE Al Andalusen kultura eguna
10:00etan, alkatearen harrera udaletxean; 13:00etan, Gipuzkoako emakumei harrera; 13:15ean, Sierra Morena taldearen emanaldia; 15:00etan, bazkaria; eta 17:00etan, dantzaldia.
Al Andalus elkartean.

ESKORIATZA Udazkeneko bigarren eskuko azoka
Liburuak, diskoak, arropa, altzariak, jostailuak, kirol materiala... erosteko aukera.
Fernando Eskoriatza plazan, 11:00etan.

BERGARA Gau Beltza: tailerrak
Umeendako.
San Martin plazan, 11:00etan.

ESKORIATZA Elorreta auzoko jaia
11:30ean, hurrendako jolasak; 13:00etan, ardo dastatzea; 15:00etan, paella bazkaria; 17:30ean, Nhil taldearen akustikoa; eta 20:00etan, DJ Moto.
Elorreta auzoan.

ARETXABALETA Txistulari Eguna
Kalerik kale, Demetrio Iriartek sortutako piezak joko dituzte.
Aretxabaletako kaleetan, 11:30ean.

ESKORIATZA 'Zirko txosko'
Clown-a eta akrobazia dira nagusi. Zirkua, umorea eta absurdoa nahastuz, genero-berdintasunaren eta norberaren zailtasunei aurre egiteko garrantziaren inguruko hausnarketa.
Fernando Eskoriatza plazan, 13:00etan.

ARRASATE Internazionalista Eguna
13:30ean, omenaldia Pakito Arriarano oroitarran; 14:30ean, bazkaria, eta ostean, Mara; 18:30ean, bertso-saio ibiltaria, Oihane Perearekin, Iñaki

Viñasprerekin eta Ekaitz Samaniegorekin; 21:00etan, ekitaldia; eta, 22:00etan, The Clayton eta Keike taldeak.
Arrasaten.

ARAMAIO Euskal Herriko 32. hiru txirilo txapelketa
Hirugarren saioa jokatuko dute.
Untzillan, 17:00etan.

OÑATI Oñatiko Trikiti Jaialdia (sarrerak agortuta)
Lizargarate Elkartearen eskutik.
Santa Anan, 17:00etan.

BERGARA 'Tartalo, gaztaren sekretua' antzezlan
Logela Multimediaren eskutik, hurrendako. Sarrerak, lau euro.
Seminarixoan, 18:00etan.

OÑATI Zinema emanaldia
La sociedad literaria y el pastel de piel de patata pelikula emango dute. Sarrerak, bi euro.
Lagun Lekun, 18:00etan.

BERGARA Organo kontzertua
Ignacio Arakistain organistarekin eta Peio Irigoyen txistulariarekin. Debalde.
Santa Marina parrokian, 20:00etan.

DOMEKA 23

OÑATI Finalistaren Eguna
Eskolarteko 39. mendi lehiaketa. Ibilaldia eta oparien banaketa.
Oñatin, 09:00etan.

LEINTZ GATZAGA Gatz Eguna
11:00etatik 14:30eran, azoka eta zurezko jokoak; 10:00etan, mendi ibilaldi gidatuak; 11:00etan, Baso soinuak; 12:00etan, Jakoba Errekondoren kontsultategia; eta, gainera, sukaldaritza tailerra, mintegiak eta bisita gidatuak.
Leintz Gatzagan.

OÑATI 'Ilunpeko altxorak' bisita gidatua
3 urtetik gorakoentzako abenturazko bisita. Izenak, aurrez, hemen: 943-08 20 00 edo *arrikruz@onati.eus*.
Arrikruzten, 15:00etan.



GOIENA

ARETXABALETA Txistulari Eguna

Leintz Aldeko txistulariak eta beste hainbat lagun elkartuko dira Txistulari Eguna ospatzeko. Kalerik kale jardungo dute, eta Demetrio Iriartek sortutako piezak joko dituzte. Kalean egingo dute alardea.
Bihar, zapatua, Aretxabaletako kaleetan, 11:30ean.

ESKORIATZA Ikusle Kluba: Antzerkiarekin harremantzeko bide berria
Euskarazko antzerki ikusleei zuzenduta.
Kultura etxean, 18:00etan.

ESKORIATZA 'Hiru kortse azukre asko eta brandy gehiegia' antzezlan
Inklusioa, genero berdintasuna, botere harremanak, eta ahalduz lantzen dituen lana. Sarrerak, bost euro.
Zaldibar antzokian, 19:00etan.

ARETXABALETA 'Oihana. Sorginen bidea' ikuskizuna
ATX Teatroa, Itzuli eta Punto Gunea konpainien eskutik. Barbara Rivas, Arantxa Hirigoyen eta Joana Olasagasti dira protagonistak. Sarrerak, bost euro.
Arkupen, 19:00etan.

ARRASATE 'Su(i)rrealismo' dantza ikuskizuna
Logela eta Circle Of Trust taldeen lana. 1930ko hamarkadan, Parisko kafetegietan sortu zen korrante berriaren gaineko hausnarketa egiten dute, dantzaren eta musikaren bidez.
Amaia antzokian, 19:30ean.

ASTELEHENA 24

ARETXABALETA Erorikoak prebenitzeko tailerra
AtxabaltaMugi egitasmoaren baitan.
Ibarra kiroldegian, 10:30ean.

OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
Foruen plazan, 12:00etan.

ANTZUOLA Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
Herriko Plazan, 12:00etan.

BERGARA Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
San Martin plazan, 12:00etan.

ARRASATE Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
Herriko Plazan, 12:00etan.

ARETXABALETA Odol ateratzea
Herritar guztiek eman ahal izango dute odola.
Durana kalean, 16:45ean.

ARRASATE 'Errekak bizi' ikus-entzunezkoa
Deba ibaiaren eta haren adarren gaineko historia, Debagoiengan Errekak Bizi Auzolanean ekimenak eta Goienak elkarlanean osatu duten lanean.
Kulturaten, 18:30ean.

BERGARA 'Errekak bizi' ikus-entzunezkoa
Deba ibaiaren eta haren adarren gaineko historia, Debagoiengan Errekak Bizi Auzolanean ekimenak eta Goienak elkarlanean osatu duten lanean.
Irizar jauregian, 18:30ean.

MARTITZENA 25

OÑATI Bingo berezia
Erretiratuendako.
Eltzian, 17:00etan.

**ARETXABALETA Kiroi-
nutrizioaren gaineko hitzaldia**
*Errendimendua zelan hobetu
elikadura zainduta* gaia landuko
dute Aike Nutrikirol enpresako
kideek. Aurrez eman behar da
izena.
Ibarra kiroldegian, 18:30ean.

OÑATI Tertulaixan saio irekia
Los últimos románticos nobelari
esker 2021eko gaztelaniazko
Euskadi Literatura Saria eskuratu
zuen Txani Rodriguez
Hernandezekin solasean aritzeko
aukera.
Zinema aretoan, 18:30ean.

**ARETXABALETA 'Onddoak
biodibertsitatearen giltzarri'
hitzaldia**
Mikologiaren bueltan jardungo du
Unai Fernandez Agirre adituak.
Arkupen, 19:00etan.

**ARRASATE 'Lunana, un yak en la
escuela' pelikula hitzaldia**
Dorji Paworen pelikula
martitzenetako emanaldian.
Amal antzokian, 19:30ean.

EGUAZTENA 26

**ARRASATE Goienagusiren X.
urteurrena**
Goienagusiko bazkide eta
gonbidatuei ongi-etorria; Goienagusi
elkartearen hasiera eta oraina; eta,
urte hauetan egindako biderei
begirada. Elkarteko presidente izan
direnak omenduko dituzte.
Kulturaten, 11:00etan.

**BERGARA 'Arimen Gaua'
misterio jolasa**
Lehen Hezkuntzako 3., 4., eta 5.
mailetako neska-mutikoendako,
Aidau haurren zerbitzua eskutik.
Oxirondo azokan, 17:15ean.

BERGARA Eguaztenetako azoka
Garaiko produktuak erosteko.
Oxirondoan, 17:30ean.

**ARETXABALETA 'Euskara,
immigrazioa eta eskola
gurutzatzen direnean' hitzaldia**
Amelia Barquinek egingo du berba,
Zubi bat euskaratik hitzaldi
zikloaren baitan
Arkupen, 17:30ean.

**ANTZUOLA 'Errekak bizi' ikus-
entzunezkoa**
Deba ibaiaren eta haren adarren
gaineko historia, Debagoienean
Errekak Bizi Auzolanean ekimenak
eta Goienak elkarlanean osatu
duten lanean.
Olaran etxean, 18:30ean.

**LEINTZ GATZAGA 'Errekak bizi'
ikus-entzunezkoa**
Deba ibaiaren eta haren adarren
gaineko historia, Debagoienean
Errekak Bizi Auzolanean ekimenak
eta Goienak elkarlanean osatu
duten lanean.
Gatz Museoan, 18:30ean.

**BERGARA Gau Beltza: 'misterio
jolasak'**
LHko 3. eta 6. maila arteko
umeendako, Aidau haurren
zerbitzua eskutik.
Oxirondo azokan, 18:30ean.

**BERGARA 'Nolako izango
da etorkizuneko elikadura?'
dastaketa-solasaldia**
Agroekologia eta Elikaduraren
Inguruko Jardunaldien baitan.
Oxirondoan, 19:00etan.

**OÑATI 'Hariak, jostorraztak
eta zauriak', helduendako
kontakizuna**
Ikuspegi feminista duen narrazioa
egingo du Mireia Delgadok.
Zinema aretoan, 19:00etan.

**BERGARA '918 gau'
dokumentala**
Zineklubean. Ostean, solasaldia
Arantz Santesteban
zuzendariarekin. Sarrerak, hiru
euro.
Seminarioan, 20:00etan.

EGUENA 27

ARRASATE Sasoibide
Irteera berezia egingo dute.
Biteri plazan, 10:00etan.

**OÑATI 'Errekak bizi'
dokumentala**
Deba ibaiaren eta haren adarren
gaineko historia, Debagoienean
Errekak Bizi Auzolanean ekimenak
eta Goienak elkarlanean osatu
duten lanean.
Zinema aretoan, 18:00etan.

OÑATI Ostegun Kontalariak
Ikasturteko lehena, Lur Kortarekin,
6 urtetik gorakoendako.
Haur liburutegian, 18:00etan.

**ELGETA 'Errekak bizi' ikus-
entzunezkoa**
Deba ibaiaren eta haren adarren
gaineko historia, Debagoienean
Errekak Bizi Auzolanean ekimenak
eta Goienak elkarlanean osatu
duten lanean.
Espaloian, 18:30ean.

OÑATI 'Mass' filma, zineklubean
Fran Kranzen pelikula, jatorrizko
bertsioan
Zinema aretoan, 20:00etan.

**ARRASATE Kooltur Ostegunak:
Sega Sound Killers**
Sarrerak, zazpi euro.
Gaztetxean, 22:00etan.

EGUBAKOITZA 28

**BERGARA Gau Beltza:
gozokien banaketako herriko
komertzioetan**
Izarekin egindako mozorroekin
eskatu behar dira gozokiak.
Bergaran, 17:00etatik aurrera.

BERGARA Gau Beltza: tailerrak
Umeendako.
San Martin plazan, 17:30ean.

**ARRASATE 'Txori kantuzalea'
erreztaldia pianoarekin**
Alex Gurrutxagarekin eta Joana
Otxoa de Alaizaren eskutik,
helduendako.
*Kulturateko Jokin Zaitegi aretoan,
19:00etan.*

ELGETA Euskal dantzak
Euskal dantzak ikasteko saio irekia,
hileko azken egunenetan, herritar
talde baten ekimenez eta udalaren
babesarekin.
Gimnasioan, 19:00etan.

ZINEMA

ARRASATE
AMAIA ANTZOKIA
Viaje al paraíso
Zapatua eta
astelehena: 19:30.
Minions
Zapatua: 17:00.

BERGARA
SEMINARIOA
En los márgenes
Domeka eta
astelehena: 19:30.

Un héroe samurai
Domeka: 17:00.

OÑATI
KULTURA ETXEA
Black is beltza 2: Ainhoa
Egubakoitza eta
zapata: 22:00.
Domeka: 19:30,
22:00.
Astelehena: 19:30.

EIBAR

COLISEO
Lilo, mi amigo el cocodrilo
Zapatua: 17:00,
19:45.

Los renglones torcidos de Dios
Zapatua: 22:30.
Domeka: 17:00,
20:00.
Astelehena: 20:30.
La chica salvaje
Zapatua: 19:45,
22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.
Izurde mutikoa
Zapatua eta
domeka: 17:00.

GASTEIZ

BOULEVARD
Black Adam
Egunero: 17:00,
19:40, 22:20.
Egunero,
martitza eta
ezik: 15:50, 18:30,
21:10.
Martitza: 18:30.

Lilo, mi amigo el cocodrilo
Egubakoitza eta
domeka: 17:15,
19:15, 20:00.
Astelehena eta
eguna: 18:30.
Martitza: 18:00.

Mira como corren
Egunero,
martitza eta
ezik: 15:45, 17:55,

20:05, 22:15.
Martitza: 15:45,
17:55, 22:25.
Sin-Chan y el misterio de la academia
Tenkasu
Egubakoitzetik
domekara eta
eguztzena: 18:05.

Cerdita
Egunero: 22:35.
Operación bebe oso
Zapatua eta
domeka: 16:05.
La vida padre
Egubakoitzetik
domekara eta
eguztzena: 20:20.
Astelehena,
martitza eta
eguna: 20:10.

En los márgenes
Egubakoitza eta
domeka: 17:00.
Egubakoitzetik
domekara eta
eguztzena: 22:25.
Astelehena,
martitza eta
eguna: 17:50.

Bullet train
Astelehena,
martitza eta
eguna: 22:15.
Zapatua: 22:30.

Tadeo Jones 3
Egubakoitza:

18:30.
Zapatua: 16:00,
17:00.
Domeka: 16:30,
18:30.
Astelehena eta
egunero: 18:00.
Modelo 77
Egubakoitzetik
domekara: 21:40.
Astelehena eta
egunero: 22:35.

El vasco
Astelehena eta
egunero: 17:15,
19:30.

Los renglones torcidos de Dios
Egubakoitza, eta
astelehena eta
egunero: 21:45.
Zapatua eta
domeka: 15:50,
18:55, 22:00.
Egubakoitza eta
domeka: 20:40.

Smile
Egunero,
martitza eta
ezik: 17:05, 19:30,
21:55.
Martitza: 19:30,
21:55.

Halloween Ends
Egubakoitzetik
domekara: 18:05,
20:25, 22:45.

KRITIKA

Cerdita ★★★★★
Zuz.: Carlota Pereda. **Herr.:** Espainia (2022). **Aktoreak:** Laura Galán, Carmen Machi, Claudia Salas. **Iraupena:** 99 minutu.

Argia eta iluntasuna**ANTONIO ZABALA**

Sitgeseko Zinemaldia bukatu berri da. Laster, Donostiako Fantasiatzko eta Beldurrezko Astea hasiko da. Horietako film askotxo gero zinema aretoetara heldzen dira. Horren adibide *Cerdita* filma daukagu. Duela lau urte, Carlota Peredak *Cerdita* izeneko film laburra egin zuen. Orain, zuzendariek berak, film laburrean oinarrituta, izen bereko pelikula egin du. Sarrera bat dago, gero film laburrean agertzen zena, eta, hortik aurrera, gertatutakoaren ondorioak ikusiko ditugu. *Bullying*-a eta tratu txarrak gaur egungo gizarteak dituen kezka handienetako bat dira. Gai horiek erabiliz, Carlota Peredak beldurrezko filma bat burutu du.

Sara bizitzak, familiak eta bere adineko pertsonak itota sentitzen da. Bizi den herri txikian hiltzaile bat agertzen da, eta bien artean harreman berezia sortuko da. *Cerdita* filmean, *Doktor Jekyll and mister Hyde*-ren aztarnak ikusten dira. Hiltzaileak Sararen desioen isla izan daiteke. Agian, denok daukagu alderdi iluna; eta askotan, arazo baten aurrean, alde argitsuaren eta ilunaren arteko talka eta norgehiagoka sor daiteke. Joko horretan, Pereda zuzendaria ondo mugitzen da. Filma tentsioa du, zuzendariak ondo garatzen du suspensearen igoera bukaeraraino. Hor, odol eta zarata handia dagoenez, filma erradikalizatu egiten da, eta bukaera arruntagoa da.



AZKEN BERBA

ANDER ETXEBERRIA

Gertu

Bost urte dela, urriaren leian, egon zen Euskadi, historia modernoan, independentziaz gertuen. Egun hartan egin zen autodeterminazio erreferenduma Katalunian.

Hango lagunei kasu eginenez, 06:30erako gerturatu nintzen herriko hauteskunde eskolara. Gunea babestu beharra zegoen. Herriar batzuk bertan zeuden eta beste asko, iristear. Eguna argitzean, mosso bi agertu ziren distantziara. Aterantz metro batzuk egiten zuten bakoitzean, han batutakoon gorputzek bat egin eta atzera egiten zuten. Tentsioa bai, baina beldurrik ez zegoen, harik eta "ja por ellos!"-en kolpeen irudiak mugikorretara iristen hasi ziren arte. Ez zegoen jakiterik eskola hari ere eraso egingo zioten. 09:00 inguruan, norbaitek "ez begiratu!" oihu egin zuen: gordeta egon ziren hauteskontziak iristen ari ziren. Berandutxoago, lehen boto emailleek, adinez nagusienek, barrura egin zuten. Irteterakoan txalo zaparrada... eta malkoak, malkoak aurpegi guztietan.

Indarkeria ez zen oztopo izan bi milioi pertsonak aldeko botoa emateko. Orduan egon zen Katalunia bere bide propioa hastetik gertuen. Eta Kataluniak bidea erakutsita, Euskadi.

GOIENA OKM GIDA

"Pladurra ala igeltsua? Zertarako den erabaki"

ALBERTO DEL HOYO ETA ANA PILAR BAÑOS ESCAYOLAS DEL HOYO SL

Donostiako Santa Maria elizako eta Loiolako Santutegiko kupulak eraberritu dituzte, adibidez; Albertoren aitaren espiritua mantendu nahi izan dute negozioaren izenarekin

Idoia Aranbarri Arzuaga ARRASATE

Familiako negozioari eman dio jarraipena Alberto del Hoyok. Aita eskaiolaren maisua dela diote, edozer egiten baitzuen igeltsuarekin. Duela 28 urte murgildu zen igeltsuaren munduan. Hainbat familia-entresaren ostean, 2005a ezkerro Escayolas del Hoyo SL enpresan dihardu, eta urtebete geroago batu zen talde-erazte geroago Ana Pilar Baños, administrazio lanetan aritzeko.

Alberto, zure nahia aitaren pausoak jarraitzea zen?

Nire bokazioa mekanikaria izatea zen. Azkenean, laguntzeko eskatzen zidaten tarteka, eta ikasten joan nintzen. Gero, Decoraciones del Hoyo enpresan gauzak okertzen hasi ziren, eta alde egin nahi nuen. Orduan, aitak nirekin zetorrela esan zuen, eta horrela jarraitu genuen.

Ana Pilar, zu lanean Gasteizen. Asko kostatu zitzaizun aldatzea?

Kontratu mugagabea nuen, baina Arrasaten bizi gara. Ez da gauza bera oinez lanera etortzea edo autoa hartu beharra izatea. Ez naiz damutzen hartutako erabakiarekin.

Zein zerbitzu eskaintzen dituzue?

Igeltsua, zarata isolamenduak, sute-babesak... Azken hori pa-



Del Hoyo eta Baños, martitzenean egindako elkarrizketan. I.A.A.

Ospitalea Maurizio uharteetarako

"Maurizio uharteetan dagoen GKE batek ospitalea egiteko eskatu zuen. Goierriko Mankomunitateak babesa erakutsi zion, eta, hortaz, iaz, 26 edukiontzi —moduluak— egin genituen Zumarragan. Gainera, xehetasun guztiak zeuzkaten. Gero, horiek itsasontziz eraman zituzten, Santandertik. Ondoren, Maurizio moduluak elkartu eta ospitalea osatu zuten. Imajinatu, hiru modulu ebakuntza-gela osatzeko, bat ginekologia-gelarako...".

biloi handietan ari gara asko egiten, lege berria dela eta. Upategientzat eta herriko tabernentzat ere egin dugu lan. Lehen, gure tailerrean geuk egiten genituen piezak, baina orain, biltegietan eskatzen dugu. Instalazioak gara. Sabaiaren mundua oso ezezaguna da. Mila eratako sabaiak daude.

Bezeroak zorrotzak dira?

Orokorrean, bai. Egia da Arrasateko negozioa izanik nahi baino eskari gutxiago jasotzen ditugula hemendik. Aretxabaletan, Bergaran eta Eibarren, esaterako, asko egiten dugu lan. Beste herriekin alderatuta, gutxien lan egiten dugun herria da Arrasate. Ikusi dugu arrasatearrek nahiago dutela kanpoko enpresa bat kontratatu.

Pladurra ala igeltsua?

Ezberdinak dira. Zertarako nahi dugun ikusi behar da. Pladurak prestazio akustiko hobekak dauka; beraz, bulego edo taberna baterako egokia da. Etxe baterako, berdin dizu zein jarri. Egia da eskaiola merkeagoa dela, baina, agian, errazagoa da pitzadurak ateratzea.

Asteburuetarako plan berezirik?

Ana Pilar Bilarkoa (Araba) da, eta, nire gurasoak ere han daudenez, hara joaten gara. Familiarekin eta lagunekin egoten gara. Gainera, Ana Pilarren etxeok mahastiak dituzte, eta azken hilabetean mahats-bilketarekin nahastuta ibili gara.

Arrasateko lekurik gustukoena?

Santa Barbara. Pandemiaren dra-goiari bisita asko egin dizkiogu.

Goiena OKm
Gidaren
eskaintza
osoa



goiena
Okm
gida

ttap

Irakurri, ukitu,
ikusi, entzun.

DOAN
Euskarazko aldizkari digitala
zure mugikorrean

ASTE HONETAN

Jabi Elortegi
Zinema zuzendaria

"Euskal zineman industria dago
eta jendeari utzi egin behar zaio
gauzak kontatzen"

